

MIRANDE
eta
KRISTAUTASUNA

© de la maqueta, portada y texto:
Caja de Ahorros Provincial de Gulpúzcoa
Editorial N.º Registro 936 C.E.C.A.
Depósito Legal: S. S. 549-78
I.S.B.N. 84-7231-443-X
Imprime: E. Itxaropena, S. A. Víctor Pradera 2, Zarauz

JOXE AZURMENDI OTAEGI

MIRANDE
eta
KRISTAUTASUNA

Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa

San Sebastián

1978

Maiteri

AURKIBIDEA

HITZAURRE	13
Mirande eta kristautasuna	15
Kritiko arrai bat	17
Ez-kristaua	19
Kristautasunaren etsai	21
Alferrikako kristautasuna	22
Kristautasuna, euskalduntasunaren etsai	25
Kristautasun konformista	27
Kristau birtuteak	27
Familia	30
Bizitzaren balioa	32
Gogorkeria	34
Moralaren arloa	38
Faxismoaren eta nazismoaren kontua	47
Nietzsche	63
Gurutzifika zindezaket	69
Miranderen paganismoa	74
Sortalde eta sartalde	84
Gizagaindiko eta gizapetiko izateak: Tranzendentzia ...	87
Tranzendentziaren esperentziak: sorginkeria	98
Parapsikologia: izpirituaren ahalmenak	106
Arima badea izan?	111
...Filosofiak uste baino	115
Izpiritu eta materia: konzientzia, nortasun, heriotze, superbizitza	117
Nere sinestea	122
«Nil igitur mors est» eta iruzkina	125
Miranderen trajeria: bi munduak	130
Merry Christmas	142
Ihesi	147
Gazteen Lurra: zero esperantza desesperantzatu bat ...	153
Emakume salbatzailea	161
Bukatzen ez den bukaera bat	166

Hara, 1977 urtean eta Irungo Udaletxearen lankidetzan zazpigarrenez epaitu dira «IRUN HIRIA» deitu Literatur Sarriketak.

Sei sail berezi deitu ziren: Poesia, Saiakera eta Eleberria euskaraz, eta Poesia, Saiakera eta Eleberria erdaraz.

Idazlan honek du Euskal Saiakeran lehen saria atera, Koldo Mitxelena, Ibon Sarasola, Antonio Zabala, Karlos Goena eta Joan Mari Torrealdai epaimahaiko zirelarik.

Idazlanak, 200.000 pta. eta gaztelua ukan zituen saritzat, beti ere obra orijinala, argitara gabea eta bederen 100 horrialde (bi lerrotan) mekanografiaturiko hedadura izateko kondizioarekin.

HITZAURRE

Mirandek bere burua hil zuen. Euskadin ohituta gauden bezala, pertsonalitate literario guziz errespetatua ez balitz Jon Mirande, segituan, kasu moral bat, edo kasu psikologiko bat, egingo genuke harengandik. Zorionez, aldez aurretik burlatu zaigu Mirande jokaera hortaz (**Haur besoetakoa**). Ezagutzen zituen bere euskaldunak.

Mesede kaskarra egin zien kritikoei, halare, postura inkomodo hortan utziaz, bere joan-bide harekin, ezer esateko enbarazaturik.

Ez kasu moral bat eta ez kasu psikologiko bat, egingo dugu. Baina horrek ez du esan nahi, orain bildurrez eta lotsaz ibili behar dugunik, moral nahiz psikologia aldetik aritzeko, aritzea dagoenean. Nola bizi zen eta nola hil zen, batere ez digu inporta. Baina bai, bizitzeaz eta hiltzeaz nola pentsatzen zuen.

Bizitzak eta heriotzak epaitzen dituen beste bat da. Ez da literatur historian sartzen. **Ortzi** esaten zion Mirandek.

Nik uste dut, bildur edo lotsa piska bat egon dela, Mirande aipatzeko eta aztertzeko. Bestela mila aldiz gehiago aipatu eta aztertu behar izango genuen.

Alegia, pentsatzailea. Euskadik ez du hainbeste pentsatzaile interesgarri, bat nolanahi ahazteko. Baina Mirandegatik beti, literato haundi bat zela bakarrik, esaten dugu, baezpadare, eta bet-betan lekutzen gara beste zerbaitetara. Pentsatzaile gisa ere inkomodo bait da marxismoaren etsai, pagano sorginzale, pederastiaren abokatu eta «faxista» deabrua! Oraindik ere lotsatu egiten ote gaitu, ba? Bildurto, agian.

Jon Mirande mugimendu berriaren aitzindari eta eragile bortitzenetakoa izan da. Ondo begiratuta, ETA-ren beraren aitzindari, nahi baduzu, alde askotatik.

Liburu honen tituluak adierazten duen moduan, hau ez da aztergai ttipi-ttipi batetan hasitako azterketa ttipi bat besterik. Kristautasunak oso paper ttipia jokatzen du haren obran: Mirande pagano zen. Halare, interesgarri dateke, kristau ofizial zen gizarte batetan, Mirande nola altxatu zen, ulertzea. Belaulaldi oso bat eraman zuen tarraka ondotik.

MIRANDE ETA KRISTAUTASUNA

Mirande ez zen kristaurik, gurasoengandik horixe izana bagenuen ere. Orduko euskaldun batetaz ari gara, 50-gn urteetako batetaz, eta hori ez da esanahirik gabeko zerbait, soil dato gorria. Ez-kristaurik izateko, **kristautasunetik askatu** beharra zeukan. Mirandek, badirudi, krisi larriren baten buruan lortu zuela, gurasoengandiko fedetik askatatzea (ik. **Ohiko Jainkoari**). Bidezko litzateke krisi haren aztarren bila hastea nire azterketa. Baina, Miranderen obran dato guti genukeela aparte, nire irudian, krisi hura ez zen izan Mirandek bere pertsonalitatea desarroilatzeko presupostua, libertate irabaztea, besterik. Mirande —idazlea— ez zen kristau eta hori zuen bere askatasuna. Hori lehenengo.

Esan beharrik ez dago, hemen ez zaigula batere axola Miranderen pertsona, psikologia; haren obra baino. Eta Miranderen obra bere baitan konsistente da, krisi hartatik independiente. Ez-kristau baten obra da: ez, ordea, «kristau izandako baten» obra. (Beti ere, pertsona ez zaigula interesatzen, mugapen askorekin ulertu behar; pertsona baten obra guziz pertsonal batez eta alderdi are pertsonalagoz enplegatzen bait gara: erlijio gorabeheraz).

Alegia, «Mirande eta kristautasuna» gaia, bi eraten har daiteke:

- a) Miranderen obran dagoena ikusi gai horri buruz.
- b) Dagoena zergatik dagoen eta nondik nora dagoen ikusi. Izan ere, Mirande izan bait da, nire ustez, Elizaren eta kristautasunaren kontra **euskaraz lehenengo** idatzi duen idazlea. Momentu harrigarri batetan egin zuen hori, gainera: haren aberkide guziak «egiazko kristautasunaren» kanpeoi bezala agertzen enpeinatuenik zebiltzanean hain zuzen: frankistak baino katoliko zintzoagoak zirela, alegia. Alde horretatik, azterkai guziz tentagarria da, «Mirande eta kristautasuna» fenomeno, hain zuzen urte horietan eta hain zuzen Miranderen forma horrekintxe, zergatik izan den posible, argitzea. Horretarako, orduko kristautasuna (batez ere kristautasun politikoa) aztertu beharko genuke; baina, dudarik gabe, atentzio haundiz begiratu beharko genieke Miranderen dato pertsonalei ere: jatorri, ariurri, bizitza paristar, krisi pertsonal, abertzaletasun, eta abar.

Mirande **lehenengo** bat dugunez gero, eta, beraz, hastapenen problema bat daukagunez gero, alderdi hori ere gogoan izan nahi nuke. Lan honetan, halare, gehiago ibiliko naiz beste perspektiban. Hau da, Elizaren eta kristautasunaren kritika mogimendua **zergatik hasi den** baino gehiago, begiratu dut, **nola egin den**, kritikak **zer dioen**: hots, zer dagoen Miranderen obran, **zergatik dagoen** sakondu gabe. Ez bait goaz, Eliz eta kristautasun kritikaren hastapenak esplikatzer; hastapenaren arrazoiak. Miranderen pentsamentua ikusi nahi dugu kristautasunaren eretzean.

KRITIKO ARRAI BAT

Jeneralean, kristautasunaren kritikarik egin dugunean, serioostasun animale triste batekin ibili gara, samin eta erre ibili ez garenean. Mirandek, eskerrak, humorerik badu. «Unorea». Bertsolari da gure zuberotarra. Sakontasuna inoiz galdu gabe, halare:

Jendeek —esango du— «gaitza zer den ez dakite. Nola, ba, baldin beren liburu, eskola eta tenpluetan onaren berri ez badute ikasten, gero jotzen edo mintzen edo hiltzen dutenean, beti onaren onetan bait dute egiten?».

Euskaldun prestu eta bizkor batzuek IGELA aldizkari antikonformista sortu zuten Parisen, «orduko gure kultura puritanua, hipokrita, triumfalkerian igeri baitzen»-a (Peillen) astintzeko. Sortzaileetarik bat, Mirande. Gauza on denak bezala, bizitza laburrekoa. Aldizkaria, alegia. (Mirande ere bizitza laburrekoa). Polit eta ezti direnak oro, esan bait digu Mirandek, dira hilkor.

Errebista hortan publikatu zuen **Kofesio ona**, 1962-an. Dagoen dagoenean aldatzen dizut, ikus eta gusta dezazun:

Gizon batek bere emaztea hil zuen. Lendabizi oso pozik egon zen, bake ederrean bizi zelakotz orain. Gerorxeago ordea, nik ez dakit zergatik —edukazioa zela, ala ohitura, ala jendeen esamesak—, baina, aski ergelki, hasi zen duda-mudan gaizki egin ote zuenentz... eta azkenekotz izugarrizko damu bat jabetu zen haren konzientziaz hilketa horren gatik, nora ingura ez ze kiela aholku edo barkamen bila.

Gizon hori protestante fededuna zen, baina ez zen ausartzen Jainkoari berari mintzatzera, hain beltz izaki haren pekatua, orain zekusan bezala. Beraz, behin batean gogoan hartu zuen Pastore jaunari bere egintza aitortu behar ziola.

Tenpluan sartu zenean, pastoreak alaiki eta giza-bideki agurtu zuen, gizon hura oso gisakoa baitzen, moralitate onekoa, eskola onetan izana, eta Biblia irakurtzen zuena. Pastoreari agurra bihurtu ondoren, esan zion:

—Jaun pastorea, ea aholku bat emango didazun Jaungoikoarekin baketzekotz, bekatu egin dut eta: nere emaztea hil dut...

Baina pastorea oihuka hasi zitzaion:

—Alde hemendik, Jainkoak utzitako dohakabea! Alde egizu Jaunaren etxetik urrun, izaki gaitzetsia!

Eta hiltzale gizaxoak, gaixoak korrika ihesi egin zuen jauretetik, ifernuko deabru guztiak ondotik izan balitu bezala.

Pastoreak ez ziola kontsolamendurik eman nahi izan, luzaro gogoetan egon ondoren, hiltzaleak erabaki zuen apez katoliko baten gana kofesatzera joatea, zeren protestante izan arren ez zen fanatikoa, eta uste zuen katolikoak ere manera batez kristau direla.

Eliza batean sartu zen eta kofesategira urbildu. Apez aitor-entzuleak galdegin zionean «Zure bekatuak esaizkidatzu, ene haurra», boza ikara, ezpainak dar-dar, berehala esan zuen:

—Aita, nere emaztea hil dut!
Apezak orduan, eztiki:

—Zenbat aldiz, ene haurra?

Ohar bat: Badakigu IGELA-ri buruz uste zoroak zabaldu direla lurrean eta zeruan: besteen artean, antitklerikal omen direla aldizkari eder eta sakon horren idazle jaun batzu. Beharbada baten batek pentsatuko

du goiko ipuin horrek ere antiklerikalismuaren kutsua daukala. Baina ez da hala! Hain zuzen ere, kontrarioa da: ipuinak argi erakusten du apez katolikoaren nagusitasuna pastorearen aldera, azkenengo honek ez bezala lehenengoak **humorearen zentzua** gordetzen baitaki bekatu kontuetan ere. Bekatu arinak direnean behintzat, hala nola baita norberaren emazte zuzenezkoa hiltzea.

EZ-KRISTAUA

Mirandek berak honela aitortzen zion Etxaide adiskideari bere ez-kristautasuna (1).

Eta damu dut zuri esan beharrez, bañan ni ez naiz kristaua ez fedez ez moralaz. Ez uste izan nire burua besteengandik bereizteko kristau fede-gabea egin naitzenik... Naiago nuke askotan zuk bezala... fede kontsolagarri bat euki, ene itxaropen-gabearen orde (materialisten **fedea** baño askoz itxaropen-gabeagoa, ondikotz, ezen nik sinisten dut spirituan, ariman, ots, psykhismuan, bañan betiko zorotasun jostagaillu den zerbaitengan bezela...) eta askotan apaizekin gai orretaz mintzatu naiz, aspaldi ez dela ere... bañan ezin sinistu dezaket.

Eztasunaren aitortza bat da hori, adiskide sinestunari egin da. Are gogorrago ari da kristautasunari buruz **Euskaldungoaren etsaiak** artikuluan. Sinestu ezina baino gehiago salatzen da hor: kristautasunaren kaltegarritasuna.

(1) Andolin Eguzkitzari zor diot gutunon ezagupidea; aldizkarietan sakabanaturiko edo argitara gabeko Miranderen beste zenbait testurena orobat. Bihoakio nire esker ona bide honetatik.

Hegoialdeko Euskaldunak hain Espainitar iathorrak ez direla ohartzen hasiak badira ere, oraino burhau [birao] bat dirudi Zuberotar edo Benafartar edo Laphurtar batek Frantziaren etsaitzat aithortzen duenean bere burua; eta burhau bat are ikharagarriagoa non-nahiko Euskaldun bat katholizismuaren aurkha agertzen denean. Ni oroz lehen Euskaldun izaiki, heien etsai naizela aldarrikatuko dut ausarki, pseudo-euskaltzaleak oro eta % 50-eko abertzale guztiak nardarazi behar baditut ere.

Katolizismo frankistaren kritika ez zen Euskal Herrian ezer berria. Orixek berak ere egiten zuen. Denek egiten zuten. Baina hori jokabide baten kritika zen. Mirandek bere kritika sako-nago ulertzen du:

Alta politikaren alhorrean baino are kaltegarriago izan zaiku Elizaren eragina spirituaren alhorrean, geroko edozein berphizkundearen ithurri biziak urdindu zerauzkigulakotz. Euskaldun zaharren gogo basa, borhitz eta handia aphaldu, ahuldu, hobeki erran, irendu zuen haren doktrinak; otso ginelarik, bildots egin gaitu... Orienteko doktrina bat kristautasuna, hangotarrentzat egina; eta Europa hunetan erro hartzekotan, hemengotarren Weltanschauung bereiziari egokitu behar zaio, nahi ala nahi ez.

Eta berriz ere:

...Aititik, are lehen baino arrotzago genduen Eliza baten menpean makhurturik egon ginan, italianizant izateko orde, orai hispanizant, h. d., Afrikatar-kamita, bihurtu baitzan kontrarreforma zala bide.

Hemen, funtsean, antropologia bat agiri zaigu; irudi eta uste bat, gizona zer den, euskal gizona. Eta katolizismoak hondatu egin duela, esaten zaigu. Beraz, euskalduna ez da egiazkoa, katolizismoak hondatutakoa baino.

Antropologia horren arabera, gizon «gogo basa, borthitz eta handia» onerizten du Mirandek. Alderantziz, kristauari gizaseme «aphal, ahul eta irendu» gaitz-deritza.

Beraz, barren-barreanean, Miranderen kristau ezatasuna, kristautasunaren etsaigoa bihurtzen zaigu. Miranderen kristau ezizateak, barnagoan, kristautasunaren etsai izatea, esan nahi du, antropologia jakin bat inplikatzeko duelakotz. Mirandek nahi duena, gizona izan dadila, kristauaren kontrario bait da. Mirandek kristautasunaren etsai da, kristautasuna gizonak izan behar lukeenaren etsai delako, Miranderen ustez (2).

KRISTAUTASUNAREN ETSAI

Hona hemen Peillenek zer esan duen:

Gorrotu zituenak, ideologia ahulgarriak dira; hain zuzen, juduek besteentzat munduan sakabanatuak eta Israelen debekatuak direnak: bakezaletasuna, hain kristau den marxismo jatorra eta hain judu den kristautasuna.

Geroxeago berriro:

Kristautasunari buruz ez zuen hoztasuna bakarrik, bai eta aiherra ere.

Beste leku batetan oraindik:

(2) Kontraste moduan, Peter Tschaadaiev Autore errusiarra aipa liteke hemen. 1836-ko gutun filosofikuetatik batetan (frantzesez idazten zuen berak, bide nabar esateko), Autore honek errusiar historiaren eta kulturaren mengela, kaskaila, maketsa, txiroa salatzen zuen. Eta Eliza Ortodosuari botatzen zizkion kulpak: errusiar herria txepeldu omen bait du Eliza Ortodosuak. Eliza katoliku Erromatarrak, aldiz, Autore honek deritzanez, nortasun bortitzez beteriko herri sendoak, kreatibuak, kemen-tsuak, hazi eta hezi omen ditu... Kotsiderazio hauekin, Tschaadaievek, Iraultzara arte iraungo duen eztabaida luzea ireki zuen eslabufileen eta mendebalzaleen artean.

Indarraren problematika gauditua zela zion, bor-txa erabiltzen baitu fazistak «aitortuz», eta ezkerak «halabeharrez». Handitasuna aurkituz gero bide guziak on ziren... Eta euskaldunentzat ere egintza-bide guziak onartuak izan zitezela nahi zuen, kristau moralala bazter utzita.

Gerra ondoan jende askok esaten zuen: galdu egin dugu, baina zuzenean geunden; beti zintzoak izan gara; guk ez dugu elizarik erre eta presorik garbitu eta errugaberik asasinatu. Eta horrela kontsolatzen zuen bere burua. Baina inork ez zion kentzen gainetik bere egoera: galtzaile bera zela, halare.

Orduan, gazteagoak hasi ziren esaten: arrazoi izateak ez du ezer balio, irabazten ez bada. Zintzo izatea tontakeria hutsa da, gerra galdu egin bada. Inportantea irabaztea da, ez dio inporta nola. Gerra galdu zuenak, mundu honetan behin ere ez du izan arrazoirik eta zintzo izanak ez du inor salbatu.

Txillardegiren izkribuetan, esaten baterako, sarri aurkitzen dira horrelako gogoetak. Krutwigen **Vasconia-n** eta, sentiera horixe dabilkigu. Pentsaerarik baino gehiago, sentiera bat zen. ETA-ren prehistoria.

Orixek salatua zegoen hori: «Gure yendea on izatez asper-tzen ari din», abisatzen zuen. «Gure gazteria ezkerretara, gero ta geiago. Aski bultza egin zionate». Eta: «Bultza egin zionate Elizatik aldegitara», behin eta berriro.

Miranderen kristau ez izateak, oinarri-oinarrian, esperen-zia horixe dauka: on izateak, kristau zintzo izateak, ez duela ezertarako balio. Orduan, ez du merezi mundu honetan kristau izatea.

ALFERRIKAKO KRISTAUTASUNA

Miranderen obran hiru maila berezten ditut, kristautasuna-ren alferrikako izate horrentzat:

1. Alfer-alferrik da larrian eta premian Jainkoari dei egitea. «Urruti zegok hura, han, bere zeruan».

Josu bar-Joseph, deithu zaitut haizeen artetik hiltz beltz erdiko gauhil hartan zurtz eta zut, —Argizagia ezpain hertsu parez zegoen— zeure zerutik deus ez duzu ihardetsi.

Beste leku batetan honela azaldu digu poetaren trantzea:

Hain izitua da, non hasten zaion, gaztaroan bezala, bere oraiko sineskabea gatik, norbait-den Jainko bati oihuka, urgaitze-galde. Haren jopu izatera ere lizake, beldur izugarri hau ken lezaioken ber... Baina norbait den Jainkorik ez zaio agertzen; bakarrik da beti; deuserako ez du izan bere hel-eskatze eta erdi-sinestea...

Haur besoetakoa-ren gizona hiltzeko bildur da:

Otoi egin behar ote zuen? Zein jainkoari ordea?... Alferretan ez ahal ziren izanen balizkako jainkotasun bati zuzenduko zizkion otoitz erdi sinetsiak?... Hobe zuen Zoriaren meneko utz zezan bere burua.

2. Bigarren maila batetan ere kristautasuna alferrikakoa da, «Elizak ahalmena galtzen du [-elako] herri-arazotan nola giza-gogoetan». Mundu honetan bakoitza bere irabaziari begira dabil, ez kristautasunari begira. Erokeria da kristauki ibili nahi izatea eta, gero, galtzea. Jesusek apostoluei bezala,

Ni ere izan nauzu mintzo nire anaiei;
bainan anaiok erran dute hitz haur: «Ertzo».

Ertzo: Ero. Efikaziaren motiboa gerra osteko hazaldiaren ideia nagusietako bat izanen da, gerra egin zuenaren motibo nagusi bat «zintzo izatea» zen bezala. Ikuspide diferentzia hau gauza guzietara ailegatuko da: kulturaren, Orixek euskara hil-

tzea nahiago zuen, euskarazko biraorik egotea baino, etc.; politikan, besteak nahiago zuen jasan eta itxaron, zapalketaren kontra gogorkeria hasi baino... Batzuentzat oso inportante zen beti ere «euskaldun ohoragarriaren» arabera zuzen jokatzeari; besteentzat inportanteago zen efikazia. Zer da «zuzen jokatzea»? Hazaldi batetik bestera, baliogo sistema guzia eta zuzentasun erizpideak itzulipurdikatu dira. «Zuzen», batzuentzat zintzo da, hots, kristau; besteentzat efikaz da.

3. Kristautasunaren alferrikakotasuna batez ere hirugarren maila batetan agertzen da. Bai «zer izan behar du gizonak?» eta bai «zer izan behar du Euskal Herriak?», galderari, Mirandek erantzun bakarria ematen zien: libre, bere buruaren jabe. Kristautasunak, ordea, zapalketa eramaten irakasten du. Morroin apal egoten.

Honek berak alderdi bi du Miranderentzat:

- a) Pertsonala: mundua katez, ohituraz, moralinaz, konbentzioz, errespetu faltsoz, lege zoroz, tabuz josirik dago eta kristautasunak ez du irakasten guzi horren kontra errebelatzen. Esate baterako, gorputzezko maitasunak ezkontzan bakarrik duela leku (ohoragarri).
- b) Nazionala: Euskadi zapalduarik dago, hiltzear dago, eta askatu nahi badu eta bizi nahi badu, begirune moralak utzi eta «otso» izan beharra dauka. Kristautasunak, aldiz, bildots izaten irakasten du.

Mirande, ba —ohartu beharrezkoa bait da hori— ez da ibili zuzenean dogmak, edo Eliz irakaspen sozialak, etc. kritikatzeko. Funtsean, alferrikako «ideologia ahulgarri» horixe kritikatzeko du eta beste guzia handik deribatzen da.

Honek bere inportantzia badu, geroagoko Eliz eta kristautasun kritikaz alderatzen badugu behinik-behin. Geroagoko erlijio kritika gehiena marxista kutsukoa izanen da. Egia da, kritika gisa, Mirande «faxistaren» kritika puntuak hartu besterik ez duela gehienbat egingo; gehienetan Mirande baino kas-

karrago geldituaz, gainera. Baina kritika guzi hori, Miranderi hartzen badio ere, beste marku batzuetan planteatzen du. Marxistak askatasunaren eta gizarte gintzaren beste konzeptu bat du. Marxistek bilatzen duten askatasuna eta Mirandek esijitzen duen askatasuna, gizonaren bere buru jabetasuna, oso gauza diferenteak dira. Uste dut kanbio hau **Vasconia**-n abiatu zela.

Baina bietan —hori ere ohartu beharrezkoa— askatasunaren izenean kritikatzten da kristautasuna: askatasun politiko, moral, seksual...

Ikus dezagun orain xehekiago «ideologia ahulgarriaren» kritika eta haren lekuan Mirandek proposatzen duena.

KRISTAUTASUNA, EUSKALDUNTASUNAREN ETSAI

Oker ez banago, euskaraz eta abertzale artean Mirandek hasi zuen kritika hau —**Euskaldungoaren etsaiak**, 1953—; gora haundia ikusi du gerora Euskal Herrian. Eta, azkenean, ezesle eta baitesle fronte gogorrak erdibitu izan eta gero, alde guzietan nahiko arrazoi aitortzen zaiola, ematen du. Hondikoz, Mirande bera Barojari jarraitu zitzaion.

Jaun de Alzate ezagutzen duzu, «jatorraren» prototipoa: harrosko zindo, gudari, gogor, guren. Euskaldunon artean, Erdi Haroko zaldunaren idealek iraunkortasun miresgarria agertu dute, gure egunotaraxe arte! Alzateko Jauna euskal mundu jatorrean bizi da. Baina, kristautasuna sartu ala, euskal mundu jatorra badoa; eta, euskal mundu jatorraz, badoaz euskal izpiritu jatorrak ere, «kanpai, errezo, ur bedeinkatu eta isipuen ihesi... Gure atzetik zebilek latina bere sekula sekulorunekin». Eta badoa Thor ere, Urtzi Thor (Mirandek berrizkatuko duen Barojaren berdinkuntza), «lurraren seme, jainkoen artean bortitzena». Nora joan, eta —jakina!— Ifarralde lanbrotsura doa gure Urtzi Thor, Ifarralde mitifikatu hortara... Euskaldunek berari baino kasu gehiago egiten bait die profeta judeguei... Hori dena berraurkituko duzu Mirande baitan: euskaldun zangar ler-

denak, burua tente; Orzi Thor eta, nola ez, neska dantzariak, eta abar, eta abar. Jainkoaren lekuan patua. Kristautasunak egiazko euskal izpiritu jatorra, zaharra, uxatu du. Mirande ez zen herabe Barojazale aitortzeko bere burua.

Esan ere, horixe den-dena esan digu, ikusi duzunez: kristautasunak erromartu, italianizatu, hispanizatu, afrikartu... judutartu, egin gaitu beti. Deseuskaldundu.

PNV-eko abertzaleei berdintsu egotziko die:

Enda sendo eta azkar ororen antzora hauzo ahu-lagoren bizkarretik hedatzera eta aberastera ekharriak ginelarik. Egun, aldiz, erran-delako abertzale zenbait, Euskaldun zaharrak izan diren zaldun aidor, guduzaileen spiritu aristokratikoa erdeinatuz, haren lekuan bere gisako Euskaldun berri, bakhezale, hauzo on eta puska-onen spiritu demokratikoa **à la française** eredutzat jartzen deraukute. Nik ez dut erranen spiritu berri hori gure dekadentziaren kausa izan danik, baina bai dekadentziaren ondorio eta agerkhun dugula.

Bi Fraideak, Mirandek irlandaratik itzuli Séamus O Néillen ipuina, argigarri da. Badakigu, iadanik, zergatik hautatu zuen Mirandek euskarara bihurtzeko. O Riain Anaiak bihotzez maite du Irlanda eta Irlanda libre ikusi nahi luke. Baina bera Anaia da. Ahaleginak egiten ditu eskolan Irlandarekiko maitasuna bizten; irlandar kantan, kirolak, mintzaira, historia, umeen bihotzetan itsasteko. Bihotz barrenean Inglaterrari gorroto beltza dio... Baina bera Anaia da, eta kristau zintzo izaki, etsaia ere maitatu egin behar dela, irakatsi behar. Konfliktu horretan bizi da urratuta. Azkenean, erlijioa utzi eta Irlandar Harmada Errepublikanoan sartuko da, kapitain bezala hiltzeko, «gizandi baten antzera hil baita herenegun atzerritarren kontra gudukan».

Hauta beharra dago: kristau zintzo, ala gudari abertzale. Bietan bat.

KRISTAUTASUN KONFORMISTA

Miranderentzat kristautasuna izpiritu ziztrin bildurtien ideologia da.

Mirandek ikusten zuen kristautasuna, euskaldunena batez ere, ideologia konformista zen. Eta Mirande antikonformista zenuen: «Berriz ere, gure herritarren konformismuak nazkatu-rik naduka». Heriotzeraino nazkatzen eta samintzen zuten gure herriko «zintzo eta zuzenek»:

Niketz inguruan ditudan jendeen konformismuaz aserik nago eta gudu egin nahi diot. Orain artean, politikan nuen antikonformismuaren ikurrina erabiltzen... eta aitortu behar dut orain artean horrekin ez dudala deus onik irabazi.

Haur besoetakoa nobelan «jende zintzo eta ohoragarriak» dira, «zintzo eta zuzen zikintsuak», protagonistari bere maitasun zoriona puskatzen diotenak eta burua hiltzera bultzatzenak: «bertutearen zaldun, gizon behar-bezalako, ez-deus, gatz-il» eta «hipokrita», konbentzio guziak errespetatzen dituzten «burjes xiki estu zikinak», «gizartearen indarrak eta ankerkeriak harmaturik» gizon baten eta nexka ttipi baten maitasuna kondenatzen dutenak eta bion zoriona —fami- liaren izen ona salbatzearren, beste gabe— zarrastatzen dutenak. Hori ez bait dago «giza saldoan» ondo ikusita.

Miranderi higuin- garri zitzaizkion «zintzoak».

«Deusek ez zuen Jon euskaldunen artean asarretzenago, gure herritarren azakeriak baino», esan digu Peillenek. Ikus orobat **Euskaldun zintzoen balada** («Aldi berean Ortzi euskal jainkoari zuzendu galde othoitz bat dena, zintzo ez den batek eginik»).

KRISTAU BIRTUTEAK

Birtute kristau- ez Mirandek zer deritzan ikus dezakegu: karitateaz, itxaropenaz, errukiaz, etc.

Maitasunaren konzeptu nahiko izpirituala du. Kasi mistikoa. Baina ez birtute kristauaren arabera, hain zuzen. Miranderen obrarik ederrenetakoak, maitasun sensualak inspiratu ditu. Orrialde guziz delikatuak:

Raymonde, soin humoa, mahats hume!
Pigalleko mahastietan...

Hortan bere morala zizun:

Ez lotsa izan, ene hau, othoi,
bekhatu del'egiten dugun hoi.
Nurk daki bekhatia zer dene?
Ez zuk, ez nik!... Zerbait dakit hale
zirela eder badakit doi-doi.

Etsaia maitatzea, barkatzea, bakeak egitea, judaismo da.
«Eta tiro beltzari!».

Jeiki, jeiki Üskaldünak
ehaitera juaiteko
ehaitera juaiteko.
Aspaldian ginen bizi
arrotzen esküpeko
hen odolak gure lürra
orai dü gizentüko
orai dü gizentüko.

Jeiki, jeiki Üskaldünak
oro alkharren lagün
oro alkharren lagün
bihar nausi izaiteko
mithil bat gira egun
sort-herriaren etsaiak
denak eho ditzagün
denak eho ditzagün.

1950-ean argitara eman zen poesia hau.

Mirandek —Nietzsche maite zuen— **Harrizko jainko bati** otoitz egiten zion, «gizaldi huntako gizattoak» ahazturik bait dute haren Zuzentasuna: «heure mailuaz jo ezak etsai oro». Euskaldunek berriz aurkituko dute justizia hartara:

Ikhusak! Jauna: hartara, haiztodunik,
hor gaituk, lehen ginenak. Hire seme.
Basoihanean ginenaz orhoit gaituk;
hilgai berririk badukek aldarean,
esku aratzez hiretzat guk erhanik.

«El vasco no mata», esan zuen besteak. Ikasi du. 1953-an Mirandek eskatzen zituen odol-sakrifizioak, laster sortu dira basoihanotan.

Itxaropena madarikatzen du Mirandek: «gure begien eder» den lilia, «gure bihotzen gorotzak baitu/ongarriztatu et'ernarazi».

...Haren hatsak, ordea
zithala ba du, herio-hazi:
ilhuntzen ditu gogo argiak
ilhauntzen ditu argiak oro.

Hilherri-lili horren zithalak,
hazur zaharren hautsak hazirik,
erhanik ditu aiten leinuak
eta zainhiltzen gaitu semeok...

Lili haur ene landetan ere
aspaldi huntan ezin hila dut,
nahiz Ipharrak astintzen duen,
nahiz kiskailtzen duen Hegoiak...

Ai! goragotik ethorri-haizeek
ailezate jo ene landetan
et'eiharraraz «itxaropena»
izena duen zithal-lili haur!

Oker ez banago, itxaropen lilia astintzen duen Iphar hori eta kiskailtzen duen Hegoi hori, Frantzia eta Espainia dira. Eta, halare, itxaropen lilia bizirik: horrexek erhan zituen aiten leinuak... Euskal historiaren filosofia hau, ikus tematizaturik, Txillardegri, **Huntaz eta Hartaz**, «Oraindik ere karlismoa nagusi Euskal Herrian» deritzan saioan. Beti esperantza faltasuekin.

FAMILIA

Gizartearen oinarri, ohi deritza irakaspén sozial kristauak familiari. Eta familiak ezkontzan oin hartzen du.

Irakaspén sozial kristauak inportantzia haundiena eman dio beti familiari, sakratu konsideratzen bait du, ezkontzari sakramentu deritzan eran.

Mirandek oso guti begiratu dio familiari. Eta ezkontzari konbentzio aspergarri eta hipokrita deritza, guti gorabehera.

Alderantziz, seinalagarria bait da horixe,

Bere neurtizetan naski tabu gehienak aipatu zituen: **Neskutsak**, lesbos maitasunaz; **Eder bati**, masturbatzeaz; **Amsterdameko oroitzapen bat** eta **Larrazken gau batez**, pedofiliaz; **Merry Christmas**, nekrofiliaz; eta hitz lauz, **Jainkozalea**, pederastiaz **Hiru putattoak**, menturazko maitakerietaz, eta **Haur besoetakoa** ere pedofiliaz; eta galdu diren erotikazko olerki batzu, **Ohean ona**, e-a. (Peillen).

Kontraste haundia dago, Arestik nola kantatu dituen Meli eta hiru alabak, eta Mirandek nola desestimatzen duen familia bizitza. Aldez beste, Arestik «lapur eta erale eta nazi guztiekin» batera aipatu ditu pederastak (**Pater Noster**); Mirandek **Haur besoetakoa** nobela hunkigarria eskaini die.

Miranderentzat ezkontza ez da «mundu irudikor, azal-hutsezko eta aspergarri» honetako konbentzio bat besterik. Gehienetan ohitura alferrei eta lotsakorrei satisfazioa asegu-

ratzeko antolaketa. Munduari uko egiten eta buru egiten auzartzen ez direlako, gizonek onartzen duten katea. «Bidezko da neska bat edukitzea hogeni eta lau urteko mutil batentzat». «Bidezko da», gero, ezkontzea. Bidezko da, gero, beti elkarrekin bizitzea, asper-asperturik. Bidea betidanik horrelaxe eginda daukagu. Bidean ibili nahi duenak horrelaxe ibili behar. Bidezko da. «Noren erruz? Gurasoen erruz: «bide zuzena» joerazi zioten beti, bide hori ordea bizitzako gauza eder eta haundi guzietatik baztertua dago. Irakasleen erruz: horiek ere bide zuzena erakutsi zioten... ezdeuserako. Eta Marcellen erruz! Neska ergel arrunta. Muxu zenbaiten gatik, bere bizi guzian hari loturik izango zen. Izugarria».

Sensualitatea erraz sorgortzeko droga da ezkontza. Vodka bezalaxe. Beti eskumenean, ezer kosta gabe eta ohiturak zilegiturik.

Leialtasunean ez du sinesten: halakorik dagoenean ere, «zintzotasun» da, hots, kate eta lotura eta ahuleria. «Ez baita bereizi behar Jaunak alkartu duenik», ironiaz gogoratuko du. Helenak senar gaztea hilgo du eta «urtebete gabe ihes egin zuen herbestera bere herriko amorante gazte batekin». Eta «dohatsu bizi izan ziren, haurrik ez baitzuten izan» (ezkondu arteko gairik badu hanitz Mirandek, baina haurren zorionik ez du behin ere aipatu; Mirande, haurrak izateko bildur den bat, izan balitz bezala). Zaldun gaztea mendian hil da; inork ez daki hilaren berri, zakurrak eta andreak ezik; «eta andre ezti ederra/beste maitale batekin», etc.

«Leialtasunari» poesia llabur oso polita atera dio Mirandek:

Ekhia jalki zeneko
neskari muthil bizkorrak:
«nehoiz ez haut ahantziko».

Ondikotz! Haize gogorrek
orbelak eroaiten ditu,
bai eta zin ezilkorrak...

Ekhia zenean sarthu
bethi ere maithatzeko
bertzerekin zen hitz-hartu.

Zubero-paristarraren kontrapunta «Goizian goizik jeiki ninduzun» hari.

Miranderen ipuinetan, kasi farregurea ematen du, zenbait senar-emaztek elkar hiltzen duen regularitate ta konstantzia ederrenetan. Eta nola hil, gero!

BIZITZAREN BALIOA

Kristautasunarentzat Jaungoikoa bera da bizitzaren jauna eta bizitza baliogo sakratua da.

Heriotzak leku asko du Miranderen obran. Batzuetan serio, besteetan parlantzuau. Makabro, askotan: orduantxe elegantenik. Mirandek, heriotzarekin ere, jolas egiten du.

Zakur zahar bat izan liteke hildakoa. Zaharra baitzen, nagusiak ito zuen atzo, orain errekan behera dator. Nora doa, itsu?

Geldit'ezina —**nevermore**—
behar dukeka joan aitzina?

«Azken Eguna hurrun da», komentazen du Mirandek irri-barrez. Baina kezkatu: nora doa izpiritua hil eta gero? **Nevermore**, Miranderen hitz seinalagarria hori ere. **Haur besoetakoa** nobelan, gizonak eta Theresak buru hiltzea erabaki dute. «Lehenik, ordea, egiaztatu behar zion haur emeari osoro eta hura bakarrik nahi izan zuela, irudien ez-beharreko mundu honetarako ere». Baina gizona ikaratu egiten, eta, adore izateko, mozortu egiten da: «eta orain, **nevermore**. Dena hurrendu artean iraungo ahal zion mozkorrak!».

Zakur zaharra bezala, Kattalin ere hibaian ito da, aitamekin «etxe txiki txukun batetan bizi zen polita. Ahate baltzekin hibaira joan ohi bait zen. Hauxe da poesiaren errematea:

Illerrian bada lore,
euzki-lili krabelin,
zu zaituzte, badut uste,
ongarritzat Kattalin.

Bizitza ez da gorputzaren ibilaldi bat mundu honetan besterik. Dena iragakor da. «Oro hilkizun dituk: iragankorrik baik ez duk iraunkor». Horregatik, heriotzak preokupatzen du, baina ez du —Unamuno bezala— tormentatzen.

Beldurrik ez dio heriotzari. Bizi eta hiltzearen ikuskera etsia bait du, orientala, ia kristau antzekoa, fatalista:

Gizon gehienek ordea diote munduko biziari, beren mundutar nortasunari, ardura oro eman, eritasun bat baizik ez duten arren delako bizi hori, hil-beharra berarekin ekarki. Behin ere ez dire beren baitaratzen, ezagun ahal lezaten berak eta oro den Arima, hau da, Egia bakarra. Orduan balakikete iduritze bat direla mundua eta munduan izatea, eta hil-beldurra joan la-kieke, iduripen baten herioa bera ere iduripena bait da.

Beraz, hiltze kontuek maizenik «farre» eragiten diote Miranderi, ez negar. Baina sarkasmo farrea, ez farre lasaia. Ezaguna da haren humore beltza.

Heriotzaz diharduela, batzuetan meditatibo dihardu, baina gehienetan agresibitate zakar bat erakusten du Mirandek. **Idazlan Hautatueta**n heriotze eta hilketa ipuin asko dago. Gehienak holako zerbait dira. **Ametsa** eta **Maitarien ardoa**, ezkonpare «perfekto» aspergarriaren ipuinak dira: bietan senarrak emaztea hiltzen du, asperkunder bezala, mozkorraldi batetan; libertatea irabaztea bezala da, emaztea hiltzea. **Eresi kantari**-an emazteak hiltzen du senarra. Ik., orobat, **Zazpi gizeraileak**, **Gauaz parke batean** eta herbesteko Autore itzulpenak. Kontakizun literario biziki irakurgarriak, bestela.

Heriotzari bildurgarritasuna kentzen dioten ideia horiek izan arren, ideia bezala, eta heriotzaren inguruan Mirandek irri

eta mirri asko erabili ohi digun arren, ezagutzen du gizonaren hiltzeko bildurra (abereena ere bada). **Haur besoetakoa**-n bildurrez dago gizona, bere borondatez erabaki badu ere hiltzea. Ez du ikaritzen heriotzak berak. Hil eta gero zer datorren, kezkatzen da: hein hortan bildurtzen du heriotzak. Gogoetaok beste leku batetan ikusiko ditugu.

Gogorkeria

Heriotzak ez bazuen ikaritzen, hilketak are gutiago; bata besteren hilkarreak. Miranderi —idazleari, alegia— oso erraza iruditzen zitzaion inor hiltzea, nonbait.

Mirande, gozorik bada gozo, esteta finena bera, sensualitate mistiko baten apostolua, kristala bera baino poesia eta prosa delikatuagoak eman dizkiguna, izpiritual hutsa («gorputza ez-behar omen»), andre helduaren haragia zakarregi kausitzen zuena plazer izateko, atseginik den gozoena «haur baten gorpu mendre, bere ahultasunean hukigarria» ferekatzea aitor-tzen ziguna, barrenkor samur eta nostalgiko musika triste zale, —Mirande hori gogorkeriaren profeta da, Nietzscheren antzera.

Kristautasuna, ordea, «ideologia ahulgarri» da: apaltasuna, barkazioa, bakea, predikatzen ditu.

Mirandek bere inguruan zer gertatzen den, begiratzen du. Zer dabilen mundua. Bere inguruan, gerratik ihesi heldu diren abertzale euskaldunak, ikusten ditu; gerrak zanpatu dituen abertzale bretoinak. Mundu Gerra ikusi du: alemanak Parisen. Faxisten garaitzapena Espainian. Indarraren garaitzapena mundu guzian. Gero, alemanen hausiabartza. Resistentziaren bonbak, tiroak sasitik, aliatuen desenbarkoak. Indarraren garaitzapena berriz ere mundu guzian. Indarra da beti nagusi: ahal duenak ahal du eta ezin duenak ezin du. Horixe beste legerik ez dago. Mirandek hogeitun urte berde ditu. Indarrean «sinesten» du.

Irabazleak berriz ere «haundiak» bait dira. Zer irabazi dute euskaldunek? Ez ttipiak, bretoinak, flanderetarrak, euskaldunak,

okzitanoak, horiek ez dira irabaztun. Euskaldun abertzaleek, Hegoa Euskadin galdu eta Resistentzian ahaleginak egin dituztenek, promesa ederrik eta itxaropen ederragorik bazuten franko, baina berriz ere dena galdu dute. Ezer ez.

Mirandek Europa ikusten du: Estatu harroak eta herri ttipi zapalduak. Zergatik dira batzuek haundi eta besteak ttipi, haundiak nagusi eta ttipiak menpeko? Indarrarengatik. Haundiak zanpatu egiten du ttipia eta horrela haunditu da. Kultura frantzesak haundia da, euskalduna, bretoina, etc. zapaldu eta ito dituelako eta bera hedatu. Mirandek idazlan bat eskatu dio Per Denez adiskide bretoinari, euskaldunei bretoinaren (breizh) berri emateko:

Frantziak politika gauzetan Breizh indargabetu badu, kulturazko nortasunik ere ez dio utzi. Haren hizkerari oldartu zaio izugarritzko eran. Ikastetxe, gudaletxe, hauzitegi, hots, laterriak dauzkan etxe eta tegi guzietatik ohildua izan da. Breiztar herriari bere mintzairaz iseka egitea, lotsa izatea irakatsi diote. Nola nahizko behaztopak ipini eta ipintzen dituzte breizel-egunkari edo aldizkarien bidean. Breizeraz idazten dutenei bizipidea kendu egin zaie, herbestera jo behar izan dute, ezin dira laterrian mutil izan. Berdin 1939 eta 1944-ean, frantzitarrek ahalegin guztia egin dute breizal igikuna zeharo deuseratzeko: liburutegi osoak birrindu dituzte, breizerako idazki eta izparringiak debekatu, zuzendariak eta idazleak espetxeratu edo suizilotu; atzerrira ihes joan behar izan dute beste batzuek.

Europako historia guzian legea horixe da. Mirandek bretoina, irlandara, kornubiara, estudiatzen ditu. Beti gauza bera aurkitzen du: ttipi denak, aspaldian zapalduetako ttipiak dira. Euskararekin, okzitanoarekin, finlandararekin, beti gauza berbera gertatu da. Indarrak beti irabazi du. Irabazteko arrazoirik ez da inoiz egon, indarra besterik. Ttipiak ez dira ttipi, zango-pean egon direlako baino. Besteen zanpaketa da haunditzeko

bide bakarra. Mirandek indarrean «sinesten» du. Hau da, egia esateko, Europaren historian sinesten du.

Euskaldunek mendez-mende buru egin ahal izan diote bai frankoen eta bai bisigotoen erasoari. Etxean nagusi ziren orduan euskaldunak. Nola daude orain bion azpian, biok nahi duten bezala zapalduta? Nola erori dira eta ez dira burua jekitzeko gauza?

Kristautasunak hondatu duela Euskal Herria, uste zuen Mirandek. Lehenagoko euskaldunak herri gotor burrukaria izan omen bait ziren. Gogor egiten zutenak. Kristautuaz gero, haatik, izpiritu bakezale demokratiko ahula nagusitu da Euskal Herrian. Eta edozeinek zanpatzen gaitu. Nahi dutena egiten dute gurekin.

Gerra ondoan gertatu zen, galtzaileek, euskaldun zintzo, baketsu, leialaren ideologia desarroilatu zutela: gerra galdu zutela, baina eskuak ez zituztela zikindu, argudiatzen zizuten. Bilbo erori zenean ere, berak han gelditu zirela, azken-azkenera arte, «presoak zaintzen», herri asalatuak ez zitzaiz preso faxistak garbitu, eta abar. Oso zintzo ibili ziren gerran.

Mirandek ez du guzi horren alderdi positibua ikusi (alderdi positibu politikoa alegia, besteak beste). Farre egin dio guzi horri. Miranderentzat irabazteak kontatzen du eta kitto. Zintzo ibiltzeak ez du ezer balio, galtzen bada. Eta «zintzo» ibiliaz ez dago irabazterik. Aliatuek promesa ederrak egiten zizkien euskaldunei, aprobetxa zitzaketean artean. Gero laster ahaztu zituzten:

Nazione handien jokera hori dela ta, euskal aber-tzaleak haurnoak bezala intzirika dabilta, salhutu izan direla hotsez. Bainan zer! Jokera hori egoki baino ego-kiago da, ahanzkor izaitean baitatza demokrazien ver-thutea, demokrata batek zioenez.

Beraz, Mirandek odola eta gogorkeria predikatzen ditu:

Sort-herriaren etsaiak
denak eho ditzagün
denak eho ditzagün.

Berriz ere antzinako euskaldunak bezala bihurtu behar dugu, «gogo basa eta borthiz», libre izatekotan. Otso: otsoa bakarrik bait da libre, ez bildotsa. «Euskaldun gudu-zalduntza bat» sortu behar zela, bururatzen zuen.

Mirandek iratzartzen ikusi zuen gogorkeria Euskal Herrian —1953-an iadanik! Honela egiten zion **Harrizko Jainko bati** otoitz:

Hunat gaur berriz gathozen heureganat
basoihaneko Jaungoiko harrizkoa.
Heure loaldi luzetik atzarri haiz,
mailu-baheak daduzkak esku banan.

«Hor gaituk, lehen ginenak», esaten zion. «Basoihanean ginenaz orhoit gaituk».

Gerra osteko euskal ideologia defentsibotik geroagoko agresibora, Mirande dugu zubi eta lekuko argiena: eta bera dugu eragile eta aitzindari ere. Gerra ondoan, Jose Antonio Agirre-ren «zintzotasun ideologia» zegokion apika Euskal Herriari, gerra galdu arren bere buruaren uste ona behintzat ez galtzeko. Ideologia harek derrotaren erdian euskal konzientzia salbatzen zuen, galtzaileak irabazle moral bihurtuaz, garaile militarren gaineratik (zintzoago, gizatiarrago) eta resistentzia espresatzen zuen. Garailea, zapaltzailea, desprestijiatzen zuen; galtzailea eta zapaldua ohoratzen zituen. «Vencereis, pero no convence-reis» haren tankeran.

Mirandek ohartu zuen, Nietzscherekin, zintzotasun eta demokrazi ideologia hura zapalduen ideologia tipikoa zela (3). Inportante, halare, garaitzea zen Miranderentzat: zintzotasun eta demokratismo ideologiaren orde, indarra eta gogorkeria predikatuko dizkigu. Demokratekin eta ideia demokratikoekin, esango du, «ez gintazke urrunago joan gure nortasuna galdu gabe». Handik hara esplikatzan da Miranderen «faxismoa»;

(3) Lazkano Mendizabal, **Gizona abere hutsa da**, JAKIN 1975, 106-111.

hots, anarko-faxismoa, faxismo libertarioa, faxismo tankeraz jantzi den faxismoaren ukazioa. Baina, lehen-lehenik, demokrazia-
ren eta kristautasunaren ukazioa.

Teorian planteata liteke askatasun gerra edo gerrila abertzale baten problema; zilegi ote den, alegia, kristautasun aldetik. Miranderentzat, nolana ere, planteamendu hori kristautasunaren kontra bakarrik egin zitekeen. Askoz geroago ere, oso problematiko dela, ikusten dugu, kristau bezala «biolentziari oneriztea». Egia da, kristau gehienek ontzat edo hartu dutela. Baina errealitateak inposatu direlako; ez, problema soluzionatu dugulako. Berdin zaigu orain. Miranderentzat ez zegoen beste soluziorik: kristau izan ala gudari abertzale izan. Hautabeharrezko gertatzen zen. Ikusiak gara, makina bat ikusiak, hori ez zitzaiola Miranderi bakarrik gertatu.

Bi Fraideak, irlandaratik Mirandek itzuli ipuinak, parabola bat dirudi, Euskal Herrian hainbat jenderi gertatu zaigunaren. Zeini ez dio, esate baterako, **Txikia** gogoratzen.

MORALAREN ARLOA

«Ni ez naiz kristaua, ez fedez, ez moralaz», aitortzen zuen berak; eta izan zuen problemarik franko kristauekin: fedeagatik baino behiago moral kontuengatik.

Bere gustutxo zitala hartzen zuen euskaldun puritanuak eskandalizatuaz. Besteak beste, **Haur besoetakoa** zen Miranderen obra txokanteena. Bere garaian ezin argitara ahal izan zen. Zentsuragatik. Zentsurengatik, hobeki. Goitik ezeze, aldamentetik eta azpitik ere aski zentsura sortzen bait da mundu honetan. Gero publikatu da, eta isil-isilik pasa da, inor ez da eskandalizatu, asko saiatzen bait gara orain ezergatik ez eskandalizatzen; baina ez dirudi, konprenitu, lehenago baino hobeto konprenitu dugunik.

Moralaren arloa, Mirande baitan, moralaren ukazioarena da batez ere. Moralaren ordeztarra predikatzen duenean, adi-

bidez, abertzalegoan. Baina, arruntago, moraltasunaren (keriaren) eta pertsonalitatearen artean konfliktu askaezin bat ikusi du beti Mirandek: ito ala zirti-zart ebaki beharra dago korapiloa. Problematika hori dago **Haur besoetakoa**-ren muinean.

Inmoralista bat da Mirande orduan. Moralari bakoitzaren zoriona kontra jartzen zaio. Miranderen obran zoriona eta moralak beti etsai dira.

Izan ere, moralak ohizkoa egiteko eskatzen du. Sakrifika-
tzeko nor bere joerak eta gustuak. Denak bezalakoxea izateko.
Denak bezalaxe aritzeko. Ilaratik ez irtetzeko. «Gizarteko egin-
bideak» txintxo betetzeko eta beti «giza saldoan» ibiltzeko...
Moralak pertsonalitatearen heriotza da.

Beti giza saldoan ibiltzen bazara, gizon prestu, zintzo, zu-
zen, ohoragarria izango zara. Denek begirunez begiratuko di-
zute, errespetuz agur egingo dizute eta bostekoa emango di-
zute. Baina saldotik irten eta zeure gisako bazara, bekataria
beltz horri, burutik galdutako gaiso horri, ez errespetuz agur
egin eta ez bostekorik eman eta ez inork aurpegira begiratuko
dizute. Gisako izan behar bait da, gisako; baina ez bere gisako.
Bere gisakoegi izatea delako mundu honetan «barka ez dite-
keen bekatu bakarra». Gero nahi duzuna egin, ezkutuan; baina
sekula ez saldotik kanpora agertu.

Horregatik, maite zaituzten guziek, ttipi-ttipitatik hasita,
zure ona nahi bait dizute, gurasoek eta lagunak eta haur ira-
kasleek eta liburu ongileek eta Elizak eta Estatuak, beti sal-
doan ibiltzen irakasten dizute. Eta saldoan zabilta, eta ohora-
tzen zaituzte: hau da, zu ikusi eta beren buruak ohoratzen di-
tuzte, saldoa. Eta, horregatik, **Haur besoetakoa**-n, neskamea,
«haur-danik ezagutu eta zerbitzatu zuen ugazaba», poz-
pozik da, gizona, azkenekoz, ezkontzeko pronto delako; alegia, «beste
gizonak bezala egitera gertu zelako». Morala hori da. Gizalege
eta gizabide hori da: besteek bezala egitea. **Edukatzeak**, eti-
mologiaz, zikiri-atzea esan nahi du: Mirandek holaxe ulertzen
zizun edukazioa.

Baina, eman dezagun nire bihotzeko joerarik ez dela

ezkontzea, eta bai beste zerbait, pedofilia esate baterako, eta neure gogoia egiten dut. Orduan akabo eta kito. Bukatu dira nire prestu eta zintzo eta ohoragarritasun guziak. Maite-maite ninduenak ere, ez dit barkatuko. Gorrotoa eta iraina izango dira nire bihotzaren prezioa.

Nigan ezarri dituen itxaropenak betatzearren, onartuko du betiko zorigaitzean bizi nadin, eta ene zorionerako bidean sartzeko aski bihoztoi banintz, lehenengoa lizateke ene gaitzesteko, enekin egon den urte guziak-gatik, enetzat egin dituenak orogatik eta guztiz ere. Zer ergelkeria samina jendeekilakoa!

Morala hori da. Nahi baduzu, ibil asturugaitz eta zoritxarretan zeure bizi guzian, baina moralki.

Eta saldoan ibiltzeak ez bazaitu asetzen eta betetzen, ase zaitez eta bete zaitez polliki-polliki handik aparte nolabait. Baina saldoari ofentsarik egin gabe. Behin ere.

Moralaren oinari giza saldoa, moraltasunaren kriterio jendeen zer esana, dira. **Haur besoetakoa**-ren gizona Isabelekin hasarratzen denean, «Jendeek zer esanen lukete orain ezteiak hautsiko balira?», izango da emaztearen arrazoi sendoa.

«Bai, beti jendearen esana garrantzikoena Isabel bezalakoentzako», osteratuko du gizonak, harro-harro. Baina konfliktorearen sustraia hortxe dago. Miranderen gizonak ez dio begiratzten jendearen zer esanari; berak ondo derizkiona egingo du. Eta giza saldoan bizitzerik ez dago horrela. Ez giza saldoak hura eta ez harek giza saldoa eraman ahal izango dituzte. Elkar ezabatu beharrean daude. Eta bortitzena giza saldoa da.

Giza saldoan bizi nahi duena, giza saldoari makurtu behar zaio. Prestu eta ohoragari izan nahi duenak, «giza saldoan sartztea ontzat hartu» beharko du. Orduan «jendeekin jendekin, gizaratean gizabidetsuki zebilen gizona, erdeinu apur bat doi-doi erakutsiz», eskeptiko bada, izanen da, «eginbideari hain jarraikia zen gizarte hortan». Bere irrikiari amor emanaz, bere hondamendira lihoake zuzen-zuzen.

Eta, horregatik, saldoak ohi duenaz eta nahi duenaz besterik, nahi badeza inork, haren bihotzeko joera besterik delako, gaiso halakoak, bere buruari gogor egiten dio eta bihotzari uko egiten dio eta konbentzio guziak isil-isilik onartu egiten ditu, zintzo eta ohoragarri izateko. Joera «okerrak» menderatu eta azpiratu behar direla, esango da, gero, aitzakia dariola. Nortasuna zindotu eta gotortu behar dela. Adar bihurriak zuzendu edo moztu. Ariurria landu. Gustatzen ez zaion andreaz ezkondu behar izango badu ere. Gero, sekula guzian, maite ez duen emazteaz, bizi beharko badu ere, «zurrun bati loturik». Eta egin ere gehienek horixe egiten dute. Prestuak dira eta beren buruaren nagusi omen dira. Horiek direna, da, koldar hutsak. Horiek ez dira borondate bortitzeko eta beren buru nagusitasun haundiko gizonak: bide erraza horixe delako eta begiz-begi munduari uko egitea konplikazio asko delako, egin dute hori, Miranderen ustez.

Zuhurrak dira horiek, besterik ez. Zuhur jokatzekotan burua makurtzea hobe da. Miranderen gizonak, ordea, pikutara bidaltzen ditu zuhurtasun horiek:

Zuhurtasun horren zorakeriak, esan-delako gogoindar hori egiaz den koldarkeriak, hamorratzen eta nazka erazten zuen. Ez! gizartean bere toki txikia gordetzeagaik batek edo bestek zer-nahi eginik ere, hura ez zen giza-saldoaren aitzin-eritzietara makurtuko... Zoritzarrekoak, bere bihotzeko nahikari zindoa zapaldu badute, besteak bezalako ez ziren hautetsi haiek!

«Besteak ez bezalakoak» Miranderentzat **hautetsiak** dira. Zergatik hala derizkien, ez dakit. Beharbada horiek nahitaez norbait izan beharrean daudelako, beren esistentzia, saldoan, burua markurtzen badute eta ez badute, beti konfliktiboa izanen bait da. Nahita ere sekula ez dira saldokoak izango. (Esan beharrik ez dago, «besteak ez bezalako» horiek, testuinguru honetan, homosexualak, etc. direla; batez ere, pedofiloak, erazbeste joeratakoak sexoan. Sexo harremanen arloan planteatu

digu Mirandek espreski moral konfliktoaren arazoa, beste arlo batzuetako konfliktoak ere aipatu izan arren).

Gizon gehienak, bistan da, ezin izan litezke «besteak ez bezalakoak». Mirandek ez zien, halare, oso begi onez begiratzen. «Maite omen» dutenak bezala eta, aipatuko ditu. Saldo-saldo-koak dira, noski. Mirandek bihotzez mespretxatzen dituen zintzo hipokritak. Eta hipokritak ez badira ere, «zintzoak» dira, eta aski da. Baladako euskaldun zintzo haiek, esate baterako:

Aphezak eta auzaphezak
benedikatu ezkontzak
egiten dituzte bethi
—ohetik landa hobeti
dastatzekotan— aratzak
diren neskekin, ontsala.
(Ezkontzetik hek bezala
Ortzi Jaunak zaint nazala).

Uste dut, pedofiliaren kasuan behintzat —hori bait da nobelan planteatzen den kasua— Mirandek arrazoi bat baduela, gizonaren eta emaztearen elkarrekiko «normalari» pedofilia hoberizteko. Lehenengo hura, giza saldoan sarrarazten gaituela aparte, «sensualitate izendun or-eme higuin garriak» dakar: «maitari basati eta arronten atseginetarako baizik egoki ez litzatekeena». Mirandek sensualitatea beti oso negatibu aurkeztu du («Oi sensualitatearen ergela!»). Garraztasun guziarekin pintatu du. Krudelki, sadismoz. Testuinguruan sarri aipatzen ditu zakurrak eta zakurkeria zikinak. Sensualitatea zikina da, zentzukoi eta gorpuzkoi da, mozborgarri eta arima lausogarri. Gizonak ar eta andreak eme, besterik ez zaizkio iruditzen... Geroago ikusiko dugu, Miranderen filosofian, izpiritua zentzuen pean preso egotea dela, hain zuzen, gizonaren zorigaitzik gaitzena. Pedofilia, ordea, adineko gizonaren maitasuna hamaika urteko nexka ttipi bati, elkarrekiko izpirituala da, maitasun garbi-garbia, amodiozko miraria, izpirituaren zorion «betegina, akats gabekoa», gogo elkartasun oso eta idealezkoa,

«arima bien egiazko elkargoa», «zentzuez lekorekoa» —nobe-
lan behintzat.

Beraz, zaitez gizon, zaitez ausart eta bihoztoi, egin gogor saldoari buru, ez amor eman, ez bihotzeko nahikaria zindoak zapal beldurrez eta lotsaz, egin gogoak ematen dizuna. Eman dezagun, beraz, bihoztoi izan zarela. Aurreritziak kiskali eta giza saldoaren kontra erabaki duzu, ohitura hautsi duzu, beraz jendearen erosotasuna hautsi duzu, zeure joera «antinaturalari» jarraiki hartu duzu bidea, bihotzak eskatzen eta agintzen zizun moduan, eta giza saldoaren ordenua puskatu duzu: ez dizute bizitzen utziko.

Zergatik ez? Zer oker da hori? Kasu baterako, pedofilo zara eta hamaika urteko nexka ttipi batekin oheratzen bazara:

Zergatik ahalge izan, Theresaren gorputzarengana-
ko irrits bat ukan zuelakotz? Lotsatzen ahal dira edo-
zein laztantzez senar-emazte zintzo, zuzenak?... Bai,
beharbada, eta horrengatik idealismoz estaltzen dituz-
te beren irrits eta grina harakoiak, lotsak atsegina era-
gotz ez diezentzat... Theresak eta hark, ordea, ez
zuten estalgiren beharrik, gizonen idealismo ergela
baino mila aldiz idealezkoago izan baitzen, eta bai-
tzen oraindik, haien elkarrenganako erakarmen zora-
tua!... Eta hain aurki Theresaren haurtasuna oso ego-
naz egingo zuen sakrifikatzeak ere ez zion lotsarik
ematen: haur garbia garbiago baizik ez zen aterako
laztan bortitz hartatik eta bera ere irriki makur guz-
tietatik ikuzirik, biok orban-gabeturik betikotasunean
edo ezer-ezean sartzekotz.

Haren maitasuna garbia da. Eta «zer kalte egin zien hark
sekula?». Mirandek ezin konprenitu du saldoko gizon «gogo
arrantaren» gorrotoa pedofiloari. Konforme, besteak ez beza-
lakoa da. Saldoan integrakaitza. Ez da bakuna eta sotila; hots,
lerdoa. Baina bere bizitza egiten du, inori molestatu gabe. «Be-
rak ez zituen bakunak besteak baino gehiago ez gutxiago er-

deinatzen... Lehenago, maite ere izan zituen (...) eta herrikoi izatera siatu zen», alferrik. Eta hori ezin badu, orain ez da inori oker eginaz bizi. Bere jauregian egoten da, irakurriaz, musika entzunez, ametsetan, bere Theresarekin eta neskamearekin. Halare «jende zintzo eta ohoragarriek», «zintzo eta zuzenek», hots, «burgese xiki estu zikinek», bizimodua imposible egiten diote, «gizartearen indarraz eta ankerkeriaz harmaturik». «Ergelek eta zikinek» haren inmoralkeria salatzen dute garraizika. Bakunak eta koldarrak eskandalizatu egiten dira eta ez diote haren ausardia, hots, beren koldarkeria, inola barkatu nahi. Ahala egingo dute, «zorion hauskor hori edozein bidez eragozteko», ahalak eta bost ere, esamesen, hitz zurien ala mehatxu beltzen, legearen, presioen, burlaren, edozeren indarrez. Galdurik daude gure biak.

Gorrotoz eta izotzez beteriko mundu batean galdurik zeuden biak; oro etsai zituzten, inoren aldera ezin ingurua zitezkeen kontsolamendu bila, salbakuntzaren bila.

Zoriak abandonaturik daude, jainko zaharrek ahazturik, legegaren babesik ere gabe. Ahalmen gabe jende zuzenen indarkeriaren aurrean.

Besteek ez zioten zorion hauskor hori autsi gaberik utziko, edozein bidez eragoztiko zioten - ahal bazuten behintzat. Eta bera baino askoz indartsuago ziren besteok, askoz trebeago, askoz erruki-gabekoago bere nahia lortzekotz! Bai bera baino askoz ankerrago ziren, on eta zuzen horiek, lagun hurkoari min egiteko jakintzan, Ontasunaren eta Zuzentzaren izenean. Beren moralakeria buztinezko oinak dituena zutik gordetzearen, gudu ginen zieten noski Theresari eta berari.

Beste nonbait, gizonek, zuzen eta oker zer den, ez dakitela, esaten zuen Mirandek. «Nola, ba, baldin beren liburu, eskola eta tenpluetan onaren berri ez badute ikasten, gero

jotzen edo mintzen edo hiltzen dutenean, beti onaren onetan bait dute egiten?».

Persegítzaileok ere onaren eta zuzenaren izenean persegítuko dute gizona. Eta ohorearen izenean, beti ere. Familiaren ohore sakratuaren izenean —«gure etsearen izen ona galtzera ez zaitugu utziko». Ergelak eta zozoak dira, eta «gizelikoak oro irin bereko».

Mirandek bazekien, homosexualitate, pedofilia zein besteak, jokabide sexual ohi-ez halakoak, ez direla gaur materia moral bezala kontsideratzen, gorabehera psikologiko bezala baino. Mendearekin batera gu ere «aurrera» goaz —ohartu du Mirandek, aurrera hori kakox artean halare. Eta zer? Lehenago bekatu zena, orain gaitza da. Eta lehenago gaitzesten zena, orain kupidagarri. Eta lehenago kondenatu egiten zena, kondenatu egiten da orain. «Ekanduaren indarraz edo», gizagaisoa lehen bezain zekenki zartakatzen dute orain. Lehen moral, orain psikologiko, baina beti ere perbersitate bait dira nahikaria horiek. Eta perbersitatea, psikologikoa baldin bada ere, azkenean higuin moral batez sentitzen da... eta, esplikazio zientifikoen itxuratik bueltan, puritanismo moral hutsetan bukatzen dugu berriz ere. Ohi-ez halakoa ez da gizarterako duin.

—Zuretzat, zoritxarreko horrentzat, aholku hau baizik ez dikezut: hobe zenuke sendakin bat ikustera joan —botako dio **Haur besoetakoa**-ren gizonari maite duen zintzo batek aurpegira, gorroto sutan.

Apez aitor-entzule batengana ordez, sendagileagana joateko eskubide du orain. Lehen ez eta orain ere ez duena, bere modura bizitzeko eskubidea da. Gizon batek, «besteak bezalako gizona» izan behar bait du; neska batek, «besteak bezalako neskato bat izatera heldu» behar; «besteak bezalako etse batean, besteak bezalako jendeen artean».

Eta hori lortzen ez badu —aitor-entzulearen ala sendagilearen laguntzaz, berdín da— dohakabe da, familiaren lotsa da eta harena «etxe madarikatua» da.

Zer kalte egin zien hark sekula, hain gogorki eta hain ankerki jokatu nahi baitzuten haren kontra? Bere atsegin xikietarako askatasuna beti utzi zien hark jende zintzo eta ohoragarri horiei, zer ziren haren epaile izatera ausartzekotz? Gorrotoz gorrotatzen zituen, bai, zintzo eta zuzen zikintsuok! Eta aurrean zedukan bertutearen zalduna, gizon behar-bezalako, ez-deus, gatz-il hori, itzul-inguruka eta hitz-estalika mintzo zen hipokrita hori, ez ahal zekien egiazki nolakoa zen, ez ahal zuen haren gogo —eta bihotz— xikikiariaren berri? Lapurra, salerosketari bat zen aldetik, gezurtia, gizarteko gizon bat izaki; satsua, lehenago emaztearekin, gizartearen on-nahiaz eta legearen baimenaz hartu baitzituen ere. Eta gizelikoak oro irin bereko ziren —zer bekoki zuten, bai, haren irriki gurenari oldartzekotz ergelok?

Mirandek errealismo garbi eta dramatismo biziz planteatu digu konflikto moralaren korapiloa, bateko ohi-ez halakoaren eta besteko gizarte ohoragarri, eginbideari txintxo jarraikiaren artean. Ez dago etorpenik bion artean. Giza saldoak zangopean lehertuko du —funtsean ez, bekataria, ez gaisoa, baina bestek ez bezalakoa. Arrazoiak ez dira moralak. Aitzakiak dira moralak.

Zorrotz hauteman ditu Mirandek eta gogor salatu ditu gure moral publikuaren flakezia eta oinarri gabezia. Giza saldoaren moral itxurati, axial, koldar bezain anker, intolerantea (beldur delako, intolerante; oharkabea ongi ohartzan bait du bere ahulezia).

Hala eta baina ere. Nobela bat ez da moral tratadurik. Baina nobelak moral arazoa gizonaren eta gizartearen arteko arlo bezala planteatu du; eta harrigarri da, bildurgarri gehiago, Theresak zer ikusi guti duen planteamolde hortan. Funtsean planteamendutik kanpora dago. Gizonaren «eskubide» bat dirudi eta ez gehiago, nahiz eta, Isabelekin —bi emakumeak, konfliktua erabakitzen duten bi «objetuak»— izen propiorik duen

bakarra bera izan. Polliki-polliki gizonak arras bere gauzatxo bat, panpintxo bat, bihurtzen du hamaika urteko nexka; nahi den bezain maitekiro, nahi den haina gozotasunez eta begirunez, baina pedagogia kontua da hori azkenean, ez moral kontua: problema moralik bada, ordea, umearen «libertatea errespetatuaz» agian eta nahi den bezala, baina gizonak Theresarekin egiten duen bere nahimen, bere adimen propiorik gabeko «objetua». Giza saldoak «bera bezalakoak» egiten gaitu eta «bera bezalakoak» izatera behartzen gaitu, Mirandek saminki salatu duenez. Baina Miranderen nobelako gizonak horixe bera egin du. Gizarteak objetu bezala tratatuko gaitu, ez pertsona bezala. Baina nobelako gizonak horixe bera egiten du Isabelekin eta Theresarekin. Hemen, funtsean, ez daude bi moral elkarren kontra: moral bat eta bera bi objeturengatik konfliktoan baino. Alternatibarik ez da eskaini.

FAXISMOAREN ETA NAZISMOAREN KONTUA

Arrazakeria dela ta guk, abertzale gaisuok, dauzkagun konplexo larriak eta Miranderen konplexorik batere eza, dira kausa, nire ustez, orain jende asko lehen-lehendaniak errezeloz edo gelditzen bada Miranderi buruz eta, bestela Mirande asko gustatzen bazaio ere, distantziaturik jartzen bada haren «ideologia» delakotik, harekin identifikatzeko beldurrez edo lotsaz bezala. Orduan ez da gustora aipatzen haren pentsamentua. Inportantzia poetari eta estilistari emanaz komodoago gaude, agian zerbait pentsatzen ere bide zuena aldera utzirik.

Arrazista omen zen, esaten dizute ahape-ahapetik. Faxista omen zen... Holakorik! Isilaldi signifikatibo bat gero. Inpresionatuta gelditzen zara.

Baina, Miranderen irakurlearentzat, gero, haren arrazismoa eta faxismoa baino gauza xebleagorik ez dago.

Hauzia garbitzeko modurik hemen ez dugu, noski, hein haundienean behintzat, gure azterkaitik landako eremu bait litzateke. Gainera, Miranderen **Idazlan Hautatueta**n (GERO

1976) hain zuzen artikulu politikoak baztertu dira eta ez dakit material jakingarriren batzu ez ote ditugun falta. Halare, irakurleak eskumenean dituen liburuetatik atera daitezke ondorioren batzua eta horiek aurreratuko ditut behin-behinean eta hobe beharrez.

Miranderen faxismoaren eta arrazismoaren kontuak, behin ere aklaratzeko ez direlako balio duten ipuinetako ipuina dirudi.

Lehenengo, asuntoari ematen zaion inportantzia emateko, ez dago oinarririk haren pentsabideetan. Haren obra literarioan, alegia. Haren faxismoaz eta arrazismoaz dakigun gehien-gehiena eta zehatzena, lagunen testimonioetatik eta gutun partikularren batzuetatik dakigu.

Gero, bai lagunen testimonioak eta bai bere aitorrak, inguru horretan, ideologia baten koherentzia izatetik oso urrun daude. Kirten ateraldi faxistoide batzuk izaten zituela Mirandek, hori da agertzen diguten dena. Aitzitik, Mirandek faxista bazen, ikaragarri orijinalen bat zela, esan beharko dugu. Oso bestelakoak ezagutu ditugu bestela, faxistak.

Bere aitorrak dauzkagu:

—...Apeztiar ez banaiz ere, eskuintiar naiz ene maneran edo hobeki erraiteko «faxista», jende ximpleek dioten bezala.

—...Euskaldunekin ez bada egiteko asko izan dut azkenengo urte ontan Parisko eta Flandretako razistekin, beltz eta juduengaindikako peligroa uxatu bearez...Dena dela, Arraza Zuriaren aldeko guduari ez diogu uko egingo!

Aitortza bitxi horien aldean —eta haren faxismoaren edukinari buruz ez digute deus konkreturik esaten aitortza horiek— bestelakoak ere aintzat hartu behar: «...Perilean nago Euskal Herrian demokratek urde faxistatzat atxikiko nautela, latin herrietako faxistek urde demokratatzat atxikiko nautelarik... eta funtsean ez naiz bata ez bertzea, europar razista baizik».

Kuriosoa: europar arrazarik egon ez eta europar arrazismoa... Zer esan nahi ote du?

Eurorrazista izate horrek zehatz eta garbi zer kontentidu zuen, jende ximpleen ustetako faxista izate hura bezain bihurri eta korapilatsu gelditzen da. Baina korapilo hori aska genezake piska bat. Nietzschekin batean azaltzen da behin, europar kulturaren alde: «Nietzscheren izu deia guri zuzendua dago: izan gaitezen Europar on!» —«bereziki Beltzen eta Orien abertzaletasun borrokariak jotzen duenean» europar kultura hori. Beraz, Arraza Zuriak batez ere kultura jakin bat dirudi, ez arrazarik. Eta Arraza Zuriaren gudaria, mehatxaturik uste duen europar kulturaren gudari da batez ere.

Mirandek, benetan, europar kultura mehatxaturik zegoela, uste zuen, orain holako kezka batek harritzen samar bagaitu ere. Zeinek mehatxatzen zuen? Oriek eta beltzek, batik-bat.

Gauzaotan orain senti-eta minberaturik gauden moduan, kasi eskandalo bat zaigu, **Haur besoetakoa**-n ikusten badugu sorpreniturik, nola nexkatoari, printzesa bat izanen dela, agintzen dioen gizonak, eta «esklabo larru beltzek» harentzat harbitxizko altxorrek bilduko dituztela mehatzetan... Xok bat da hori, gure adimen argitu eta gure konzientzia txar ilunduentzat.

Beltzak nonbait ez zituela maite, G. Pennaoden anekdota batek erakusten du: «**To bi frantses**, zioetan, Bulevar St. Michelen behera jausten ziren bi beltz erakutsiz». Frantsesak ez zituen nonbait maiteago.

Orien abertzaletasun borrokariak ere kezkatzen edo zuen, eta —hitzez, halare, obraz baino gehiago agertu zuena— Sartaldeko kulturarik ez zuen Sartaldean nahi.

Sozialismorik ere ez zuen maite, antza («ezin dezaket beraz lanik egin... sozialismoaren onerako»). Horra, baina: Peillenek dioskunez, «arabeak miresten zituen, sozialismua materialismua gabe egin nahi baitzuten, hots, nazional-sozialista zirelako»... Spenglerena gogoratzen digu: sozialismoari marxismoa kendu eta garbitu beharra dagoela, esaten bait zuen harek. Markek sozialismoa judaizatu duela, esan nahi zuen apika.

Zer nahaspila demonio da, hortakoz, faxismo-arrazismo hau? Ez dirudi pentsamentu bat. Atxekitasun eta higuinik bai, errazago. Xenofobo bat ote genuen Parisera emigratu zuberotarren semea? Antza badu... Eta, halare, hori ez da esplikazioa.

Peillenek argitasun hau eman digu: «bere fazismoa sentitzeko manera bat zen, ez ideologia bat; etika bat zen, pagan kutsukoa, ez politika bat».

Gehiegi ez digu balio argitasunak: guk geuk ez bait ditugu oso berezten sentitzeko manierak eta pentsatzeko manierak, arras alienatuta dabilzanen batzuen kasuetan ezpada. Lagun diezai-guke pista bezala, halare.

Beste argitasun bat ere ematen digu, are jakingarriagoa:

Frantzes aberatsak juduzale baldin badira, pobreak, esteiariak antisemita dira... Ez zion sentipen horrek judu gizon edo beltz gizon berezi baten kontra gorrotorik sortzen; asko estimatzen baitzituen benetako beztasuna eta judutasuna begiratzen zutenok. Gorroto gehiago zuen Europaren deskulturazale diren jende horietaz, nagusi aberatsek sarrerazten baitituzte beltzak, esplotatzeko. Gorroto zituenak, ideologia ahulgarriak dira; hain zuzen, juduek besteentzat munduan sakabanatuak eta Israelen debekatuak direnak: bakezaletasuna, hain kristau den marxismu jatorra eta hain judu den kristautasuna.

Berriz ere europar kultura bedeinkatu horrekin egin dugu topo eta horixe da ongi mugatzen eta definitzen ez dakiguna!

Gauza inportante bat, behintzat, ikasi dugu: dirudienez Miranderi ederki iruditzen zitzaion beltzek beren beztasuna, judeguk beren judutasuna eta edozeinek bere tokikotasuna eta berezitasuna begiratzea. Begira beza bakoitzak berea, besterena hondatu gabe. Europar kulturarentzat arrisku iruditzen zitzaizkion neurrian gorrotatzen zituen, hortakoz, juduak, beltzak, oriak eta kolore guziak, zuri-zuriak ere.

Hori horrela bada, Miranderen arrazismoak eta faxismoak

zentzu kulturala dute, ez politikoa. Hots, ez arrazismorik eta ez faxismorik daukagu egiaz. Gehienez ere «harrokeria viktorianoa» genuke, axial-axaletik arrazista eta faxista koloreztaturik. «Jestoak» ditu taxistak, Mirandek.

Faxismo talantea hartzeko bada Miranderen beste arrazoi bat, politikoa hori, eta beltzen edo asiaticoen kontra ez, baino batez ere frantzesen kontrakoa, Jeltzaleen kontrakoa ere bai: abertzaletasuna. Argi eta garbi agertu du berak, Alemania nazia- ren aldeko aitortuaz, «Frantzia Euskaldungoaren etsaia eta Ale- mania, gurea ez, bainan gure etsaiaren etsaia izaiki». Hegoaldeko abertzaleak demokrata izatea ere oker haundia iruditzen zi- tzaion: burugabekeria da galdu beharra duenarekin joatea; fa- xistekin joan izan balira, irabazi egingo zuten (eta, total, ez zeukaten zergatik demokrazia defendatu, demokraziak berei ematen eta laguntzen zienagatik)... Mundu Gerrakoan mino- ritate herri askok aprobeztatu nahi izan zuen Alemania nazia- ren eraso, nazien laguntzaz ordura arteko zapalkuntzatik al- txatzeko. Mirandek ezin hobeagotzat zeukan jokabide hori. Ez dago Leon Jassonen poesia bat itzultzerakoan ezarri duen hitzaurretxoa ikusi besterik (frantses **résistance** igikundeak erail zuen, breiztar abertzale zelakotz). «Euskal herrizale zenez ge- ro —irakurtzen diogu Peilleni— frantses ezkerrean ez zuen inor, eta den gutienik, gogokorik aurkituko: izan daitezen ba- tak ala besteak federaltasunaren eta nazionalitate ttipien bere- gaintasun mota guzien kontrako baitira». Bere radikaltasun horretan, ikasi ere ikasi zuen zerbait nazien eskolan: politikan indarra beste moralik ez dagoela; «eta euskaldunentzat ere egintza-bide guziak onar zitezen nahi zuen, kristau morala baz- ter utzita» (Peillen). Propioki makiabelismo gehiago, faxismo baino.

Bestenaz, Mirande eskuindar zenik, ez du inork zalantzan jarri nahiko. Bere-bere moduan hori ere. Miranderen eskuin- keria gustatzen zaion eskuindarririk ez bait dakit. Eskuindar bitxi hau ezkertiarrei gustatu ohi zaie...

Mirandek ez zuen baliogo idaletan eta moralean sinesten politikan. Beraz, ez zuen demokrazian sinesten eta demokratak

ez zituen maite. Higuin zituen demokrazia eta demokrata horiek, zer ziren, Mirandek nahiko garbi esan izan du.

Ilhunean zeuden lehen
(euskaldunak)
Baina JEL argia goihen,
jautsi baita Euskadira,
argiturik bizi dira
ahalikan bizi dira
ahalikan eta zehen
demokrat onen gisala.
(Argitzetik hek bezala
Ortzi Jaunak zaint nazala).

Euskaldunongan ez zuen demokratismoa onartzen, ez zitzaiolako gauza iruditzen izpiritu hori, Euskal Herria salbatzeko. Indarra eta odola behar zirela eskrupulo gabe, esango zuen.

Demokrazia eta liberalismo frantzesetan, aldiz, ez zuen ikusten minoritate herrien hondamena besterik (ik. **Uztailaren hamalauko besta**, etc.). G. Pennaoden lekukotza daukagu. Behin esilioko katalanek eta Frantziar Errepublikako ordezkari jauntxo ofizialen batzuek festaren bat ospatzen omen zuten, txit ofizialki eta txit festatsuki, itxura duenez:

Frantseskeria eta katalantasun jai horren erdian, oihu egin genuen: «Gora Companys! Frantses erai-leak!», zeren katalanaren heriotzaz frantses gobernua izan baita hobendun. Baketu ginduzten. Azkenean katalan hymnua entzun zen, Errepublika Zaindarien musikak emana. Gero Marseillaise-a; orduan jarri egin ginen, eseri, zigarroak piztu eta goratik ohar batzuen egiten hasi. Delbos txakurtzua berotu eta zuzendu zitzaigun, eta musika «kuak» batean itotzen zelarik, bankuetan zutik, Mirande hasi zen esaten: «Zuen hiru koloretako ipurzapia Rennesen, Tolosan, Baionan, Perpiñanen ikusten deno, ez gara Marseillaise-a gatik zu-

tituko». Denak zutik ginen, borroka hasi zen; ukabilka ari ginela, ez ginduzten errez kanporatu, eta natura gaindiko elkarte hori frantses eta katalan herbestera-tuen artean, errepublikatasunaren aitzakian, apur bat lausotu, urdinu eta usteldu genuelako pozez.

Esilioko euskal abertzaleak ere, «demokrat onen gisala», anaiatasun ofizial ederrean bizi ziren frantzes gobernuarekin, demokrata guziz garbien eta martirien ospe eta ohore gozatuaz eta ospatuaz. Hona hemen halako festa batetan Mirandek zer egin zuen:

Aberri egunean ofizial atospen eginik, Jon eta biok konbidatuak izan ginen. Asko edan zen eta topatu —merezi zuten bezala— herri hartako gudariei; baina gero demokratkeria saltsazko hitzaldiak eman ziren, eta Jon Mirandek, frantses euskaldunen izenean mintzatzea galdetu ziotenean, honela erantzun zuen, isiltasun haundienean: «Su política me hace decir, España una, grande, libre! Arriba España, Viva Franco!». Handik aurrera ez zuten gehiago Jon Mirande beren batzar eta buru-batzarretarat deitu.

Banago, ondo bai ondo-ondotxo ulertuko dituela Miranderen sakeok, frantzes gobernu guziz demokrataren begiruneak eta errespetuak bere hezurretan ezagutu dituen ETA-ko esilatu batek baino gehiagok...

Eskemen tranpa bat daukagu. Mirandek ez JELtzaleen eta ez frantzes gobernuaren demokrazian sinesten zuen. Demokrataren alternatibak, orduan, edo komunista edo faxista zeritzan nahitaez. Komunistarik ez zen. Faxista izan behar orduan: Beharbada, ordea, Miranderen faxismoa eskemak egiten du. Ez Mirandek.

Miranderen «faxismoa» eta «arrazismoa» ez dira kontestatari baten alarde hutsa (baina bai hori ere); ez dira tenperamental hutsak (baina hori ere bai); eta ez dira ezerekin koherentzia gabekoak —baina bai beste Miranderen alderdi asko-

rekin koherentzia gabekoak. Mirandek «izpiritu aske bat» zeritzan bere buruari; «irakurle izpiritu zabal gehiago» eskatzen zuen; Buddhazale zen, Kafkazale zen...

Inkoherentziok ez dute soluziorik, Miranderen faxismo delakoa pentsamentu politiko gisa hartzen bada. Badute, garbi askoa, teoria kultur-kritiko ezagun batetan hartuaz: nietzscheanoan.

Beraz, orain artean dauzkagun datuengatik, Miranderen faxismoak inportantzia politikorik ez duela batere, esango genuke, harena ez delako zentzu politikoa. Faxismo politikorik ez dela, beraz. Eta faxismorik ez dela, hobe. Ez dugu hori, ezer legitimatzeko, esaten; baina zerbait ulertarazteko.

Inportantzia, Miranderen faxismoarena, beste nonbait ikus daiteke: kristautasunari buruzkoan, hain zuzen.

Mirandek Europa zaharraren izpirituan sinesten du —izpiritu aske, burgoi, indibidualista, aristokratiko, zaldun aidor, zuzentzazalea omen bait zen hura.

Eta orain konprenitzen da: europar izpiritu hartan sinesten bada, erraz-erraza da, azkenean behar-beharrezkoa, izpiritu horren mila etsaitan ere sinestea gero. Holako izpiriturik inoiz egon bada Europan —hots, idealkuntza soil ez bada— orain behintzat asko ez bait dago. Eta, orduan, orain dagoen dena da, guti-gorabehera, ez dagoenaren etsai: demokrazia, sozialismoa, kristautasuna, judutasuna, zientzia, progresoa, materialismoa, beltzak, oriak eta berdeak. Edozer gauza. Ideal idealen maitasunak beti obligatzen du etsai pila bat asmatzera.

Horregatik, irlandar monjeak eta kronistak txalotzen ditu, «paganoen gizalegeak handiesten eta Judu-Kristauenak gaitzes-ten dituzten bertuteak laudatzen dituztelakotz gizandietan: nagusi-izan-nahia, berekoitasuna eta atsegalea». Eta, horregatixe, faxista aitortuko du bere burua («bien que basque») «et détestant le christianisme, ou de moins la démocratie dite chrétienne, en fait judaïque».

Mirandek, faxistak baino gehiago, teoria kultur-kritiko (gehienez ere prefaxista) ezagun batzu gogarazten ditu, O. Spen-

gler bereziki. Bi Mundu Gerra beltzen bitartean, literatura kultur-kritiko beltz ugari sortu zen Europan. Demokrazia kupida gabe kritikutzen zen; ideal klasiko kristauak, giza eskubi-deen teoriak... Dena. Arrazoiez esan izan da, europar kulturaren sustrai-sustraietarainoko krisia zela, ez krisi ekonomiko edo politikoren bat soil. Gaineratu behar da, kritika radikal hortan oso koinziditzen zutela marxistek eta —nolabait esan beharko dugu— prefaxistek. Denek batera nahiko lan egin zuten demokrazian eta askatasunean eta ordenamendu klasikuan fedea ahultzeko. Gero, Gramsci batek adibidez, marxismoarentzat europar tradizio demokratiko liberalak atzera erreklamatzeko bazituen, zerbaitegatik izan zen. Zeruak eta lurrak astintzea eta kritikatzeko erraza bait da, radikalismoak eta anarkismoak oso politak, faxismoan edo stalinismoan bukatzen ez direnean.

Baina mogimendu kultur-kritiko hau oraindik ez zen politikoki garbi definitua (Breton kuasi-faxista egin zen, Aragon stalinista: komunista eta faxista artean mugak oso erraz pasatzen ziren garai honetan). Spenglerrek «sozialismo eta prusianismo» elkartasuna proposatzen zuen soluzio bezala; hots, sozialismo eta nazionalismo batasuna. Baina, gero, nazional-sozialismoa sortu zenean, Spenglerrek muzin egin zion, espreski gaitzeritziak. Halare nazismoaren aitzindari kontsideratuta dago. Mirande baitan garbi dago Spengleren eragina.

Garai hartan, alegia, mende hasieretako eta Gerra arteko krisialdi hartan, gauza batek zirudien guzientzat argi eta garbi: Europak topea jo zuela, ordurainokoa behin eta betiko akabatu zela, segimena ez zegoela, europar kultura izana bukatu zela eta arras berri-berri hasi beharra zegoela. Filosofiaren heriotza eta artearen heriotza proklamatzeko ziren (denbora honetan proklama eta manifestu asko aurkitzen dugu!); poesiaren heriotza eta teatro klasikoaren heriotza; Jainkoaren heriotza eta gizonaren heriotza (Jainkoa gizonak hilda; gizona makinak hilda); metafisikaren heriotza... Oraindik ere sarri entzuten ditugun heriotz kontuak. Esistentzialismoa eta, surrealismoa eta, dadaismoa eta, sortu ziren. Musikan, pinturan, filosofian, artean, gauza guzien heriotzak eta hastapen zeharo berriak en-

tseiatzen ziren nonahi eta edozertan. Denak hil behar zuen eta berriro hasi. Hori zen giroa.

Marxistek eta anarkistek gizarte zaharra hil eta zeharo berri-berria eraiki espero zuten. Besteek ere gizarte zeharo berri-berria bai, baina egiazko eta «jatorrizko» europar izpirituaren arabera: horregatik, «iraultzaile kontserbazaleak» ere esaten zitzaien (horietakoa genuke Mirande). Iraultzaile eta arras berririzale denak ziren, beren asmoetan behintzat. Nondibait esaten zuten orduan, orain «iraultza» hitzak dardarka uzten dituen gizarte sailetan bertan, naturaltasun —eta fede— guziarekin esan ere, «la revolución del 18 de julio, la única revolución verdadera...» Iraultza, orduan, dogma bat eta topiko bat zen. Denek hori nahi zuten, denak sinestuta zeudelako, bukaera nahitaez zetorrela eta hasiera berri-berria nahitaez abiatu beharra zegoela.

Krisia ebidente zenez, krisia aztertzea zen kontua. Krisi azterketa sonatu bat O. Spenglerena izan zen (Nietzscheren jarraikile zenuen berau): 1918-an argitara emaniko **Mendebalearen hondamendia** (edo «Sartaldearen erortzea», nahiago baduzu). Han aurkitu zuen Mirandek sartaldeko gizartean nabari dugun kaos ikaragarriaren esplikazioa.

...Spengleren **Sartaldearen erortzea** liburuak asko hukitu zuen. Ahulezia horren (alegia, Sartaldearen egungo ahuleziaren) iturria izadiz kontrako mito batzuetarik dator; alegia, judu-marxismoak eta judu-giristinitotasunak zabaldutako bakezaletasun, berdintasun, anaitasun utopiek Europa kordokarazi dute (Peillen).

Spengler, esan dugunez, ez zen faxista. 1933-an ageriki eta zindo, faxisten kontra ere azaldu zen. Halare horrexek eman diezaiguke, beharbada, sinplekeria batez («jende ximpleek dioten bezala...») Miranderen «faxismo» deitu dugunaren esplikazioa.

Spengler matematiko zen. Kultur-filosofo gisa ari zen bere obra aipatu hortan. Historiaren filosofo haundien kontrast

—Hegel, Marx— historia **batik** ez dagoela, irakasten zuen. Historia asko dago eta historiok diferenteak dira: ez dago filosofoek pretenitu duten Historia Unibertsalik. Dagoena, kulturak, historiak, da. Kulturak beren artean ezberdinak dira, bakoitza bere baitan osoak, bakoitza bere baitan bizi direnak; jaio, hazi eta hil egiten direnak, beste kultura batetan itxuraldatu eta jarraitu gabe; kulturak ez dira batetatik bestera progresatzen dutenak eta elkarren jarraipenak. Ez dira elkarren gainean erakitzen, bata bestea baino gorago, batak bestea perfektionatuaz eta gaindiatuaz, elkarren aldamenean eta bakoitza bere lekuan baino. Kulturak ez dira bata bestaren progreso mailak. Progreso, hortakoz, kultura bakoitzaren barruan gertatzen da, dekadentzia eta gero hondamendia bezalaxe. Kultura bakoitzak bere itzulingurua betetzen du: sorrera, goraldi, heldutasun, beheraldi edo dekadentzia eta hondamendi.

Historia bakar unibertsalik ez badago ere, historia ugari baino, historion guzian morfologia bat egin liteke, «aldi bakoitzeko esliloak» aztertuaz eta alderatuaz. Ikusten duguna, da, kultura bakoitzak modu diferentetan desarroitzen duela bere «bizitza estiloa»; baina beti organismo bizi baten antzera, urte-haroen edo bizi-haroen gisara, haurtzaro, gaztezaro, etc. hiltzeraino. Bakoitzak bere ezaugarri propioa du, bere aiurri berezia, bere «jatorrizko Lehen-Forma edo bizitza printzipioa». Bere jatorrizko Lehen-Forma horren arabera ezagaraz eta berez ditzakegu kulturak, kultura txino, egiptotar, greko, eta abartan. Eta horregatixe, bakoitzak bere Lehen-Forma duelako, bere izpiritu propioa, kulturaok ezin kontsidera daitezke bata bestaren jarraipen edo gaindiapen modura, bakoitza bere baitan oso bezala baino, bakoitzak bere zikloa (sorrera, goraldi, dekadentzia, erortza) bere baitan betetzen duela. Kulturaok ez dira bat bestea baino goragokoak, aurreratuagoak, bakoitza bere gisako eta erako baino.

Kulturen historiak (sorrera, ibilbide eta hondamendi) ez diote xederen bati edo jomugaren bati obeditzen; hots, ez dira printzipio etiko edo humanistaren baten arabera desarroitzen; ezpada, edozein organismo biologiko bezalaxe, bizia bezalaxe,

itsu eta halabeharrez sortzen dira, borrokaz eta indarrez hazitzen dira, indarra galtzean hil egiten dira. Sorrera eta sorrerako talantea baldintzapetuak dira, noski; baldinkizun geografikoei erabakia gehienbat, Spengleren ustez.

Mendebaleko kultura, ttipi-ttipi hasi, nekez hazi eta bortizki indartu eta zabaldu ondoren, ahuldurik dago gaur, zahar-turik, dekadentzian. Ez du surik eta garrik filosofia eta arte obra haundirik sorrarazteko, benetako erlijiositate sutsurik, entusiasmorik bizteko, ez jatorrizko moraltasun sotil garbirik zaintzeko; ez du kemenik eta adorerik ezertarako. Hipokrisia, klerikalismoa, erudizio akademiko alferra, periodismo berri-sua, konforta, masa gizartea, erantzukizun pertsonal falta, errukia eta karitatea, politika soziala, demokratismoa, berdinkeria, ahulek eta ergelek kementsuek haina balio dutelako dotrina anti-naturalak, teknizismoa... dira nagusi. Hemen indarririk ez dago jadanik ezer haundirik egiteko.

Historia, ordea, ez da printzipio moralen batzuen edo egia-
ren edo sentimentu onen garaitzapean kuestiorik. Historia bizi-
tza kontua da, beste ezer ez. Kontua ez da santuago ala gaiz-
toago izatea; bizirik segitzea da. Inor ez da galdu, bere indar-
rari eta derrigor irabazteari begiratzen ziolako; baina asko
galdu dira, kontenplazioetan ibili direlako, egia-ri edo nolabai-
teko printzipio nobleren batzuei gehiago begiratzen zuelako ga-
raitzapean baina; eta inor ez du salbatu, besteak baina egia-
ren zerbitzari leialago edo zintzoago izateak, edo beste herriek
baino lege sozialago edo moral errukiorragorik izateak. His-
toria tribunale kupida gabe bat da: hauzitegi honetan balio
duen arrazoi bakarra indarra, nagusi-izan-nahia, berekoike-
ria da.

Ideiaok —asko behintzat Nietzscheri heredatuak— Miran-
dek sartu zituen gure artean eta haren «faxismo» delakoaren
oinarri-oinartian daude. Harrerarik txarrena ez dute euskal ez-
ker berrian izan, ez horixe! Behintzat, ezker-ezker puntakoak
ikusitakoak izan ditugu jeneralean, harrez gero, PNV-ren eskrupulo
moralaz eta burlatzen, adibidez, gerrakoan izan omen ziren zin-
tzoagatik, etab., eta haren bakezaletasunagatik... «Faxismo»

hori oso marxista ere bada. Miranderen sinpatiak harentzat baziren ere, indar historikoen garaitia itsuaren ideologia hori ez dago faxismo alemanera eskusiboki mugatzerik.

Spenglerrek uste zuenez —eta harekin Mirandek— europar zaharrak, haren goraldi bikaina ekarri duten dohain bortitz haiek, oparo zituen: bihoztoi eta nagusi-nahia omen zen, aristokratiko, zaldun, gotor, etc. Horiek bait dira naturalezari dagozkion dohainak, naturaleza gordin eta hezeari, bizi eta bizkorriari. Orain, oster, zer ikusten dugu? Bakezaletasuna, guzien berdintasuna eta anaitasuna, elkarren begirunea, inor ez zapaltzeko eta burrukarik ez egiteko, masaileko bat ematen badizute bestea eskaintzeko, predikatzen da; Estatu soziala eraiki nahi da, bere burua zaintzeko gauza ez direnak zaintzeko, indartsu eta kementsuenen indarra eta kemena lotzeko eta kontrolatzeko. Hitz batetan: burrukaz nekatu den zaharraren kualetateak dira gizarte ahul honenak, ez burrukari dohainak. Ahularen filosofia, dekadentzi filosofia. Antzinateko gizona zen benetan gizon; oraingoa ergel txepel hutsa da. Bildots, artaldeko bildots. Eta inguratzen zaion lehenengo otsoak eramango du...

Europa guziko moduan gertatu da hori Euskal Herrian, Miranderen ustez. Euskal Herria —berriro aipatuko dugu— «enda sentho azkar» bat izan zen behiala; nagusikoi, burrukari zangar, «hauzo ahulagoren bizkarretik hedatzera eta aberastera ekarriak ginelarik».

Egun, aldiz, erran-delako abertzale zenbaitek, Euskaldun zaharrak izan diren zaldun aidor, guduzaleen spiritu aristokratikoa erdeinatuz, haren lekuan beren gisako Euskaldun berri. bakhezale, hauzo on eta puskaonen spiritu demokratikoa «a la française» eredutuz iartzen deraukute. Nik ez dut erranen spiritu berri hori gure dekadentzaren kausa izan danik —bainan bai dekadentzaren ondorio eta agerkhun dugula. Frantziarren ariora demokraziaren amets urdinekin lokhartzen den herriak zahartzen eta akhitzen ari dela emaiten du ikhusterat.

«Nondik ethorri zaiku dekadentza?», galdetzen du Mirandek. Eliza duzu batez ere gaitzaren kausante:

Alta politikaren alhorrean baino are kaltegarriago izan zaiku Elizaren eragina spirituaren alhorrean, gero roko edozein berphizkunderen ithurri bíziak urdindu zerauzkigulakotz. Euskaldun zaharren gogo basa, bor-thitz eta handia aphaldu, ahuldu, hobeki erran irendu zuen haren doktrinak; otso ginelarik, bildots egin gaitu...

Europa guziaren problema da hori, ez Euskal Herriarena bakarrik, dakusagunez. Horregatik aipatzen du Mirandek, **Euskaldungoaren etsaiak** salatzen dituen berean, «Europatarrok hain nezessari dugun paganismuaren guna».

Orain konprenitzen da, nola Mirandek europar kultura mehatxaturik senti zezakeen eta zergatik demokrazia, kristautasuna, Estatu soziala, kristau birtuteak, edo humanismo eta humanitate sentiera guziak, zapuzten zituen. Gurea ez bait da, funtsean, problema politikoren bat, alternatibarik uzten duena, hola edo hala, europar izpiritu eta kultur bizitzaren problema baino. Hil ala bizi.

Eta orain konprenitzen da, nola Miranderentzat egiazko moraltasunak «zuzenen eta zintzoen» kontra bakarrik, jende oldeen kontra, distira dezakeen. Jende oldeok dekadenteak dira. Gizon egiazki moralak, hots, gizon egiazki gizonak, naturalezari darraikionak, masa horien kontra joan behar, hondamendiaren eta heriotzaren kontra bezalaxe («modaren jarraitzaileetarik ez bainaiz», esaten zuen berak). Gizarte eginbideak eta arauak onartzea koldarkeria hutsa da. Dekadentzia onartzea da eta. Errebelatua da gizon. Burua inoiz makurtzen ez duena.

Azkenean kultur problema da. Politika hau eta hori ez, baino kultur egoera guzia bait da blokean gaitzesten, europar kultura ohi deritzan eta Miranderen ustez europar kultura dekadente degeneratua besterik ez dena. Judaismoak eta kristautasunak degeneratua, horiek bait dira etsaiaren maitasuna, apal-

tasuna, errukia eta beste birtute antinaturalak predikatu eta irakatsi dituztenak. Kristau kutsuko politika guziak dira kon-
denagarri.

Planteamolde honetan Alderdiak eta alternatiba politikoeak inportantzia dena galtzen dute. Faxista izan, errepublikano izan, munta guti du berez: inportantea garaitzea da, ez dio inporta nola. Haunditasuna irabaziaz gero bide guziak on. Faxista izate-
a komeni bada, irabazteko, gaitezen lasai-lasai faxista; erre-
publikano izatea hobe bada, errepublikano finenak geu izan-
go gara.

Alderdi eta alternatiba politikoei ezezik, azkenean politi-
kari berari ematen zaio inportantzia guti. Burruka forma eta
eremu bat besterik ez da. Garrantzizko, haatik, benetan garran-
tzizko bakarra, kultura da, izpiritua, «euskaldun nazioaren gogo
bizitza»... Ez xenofobo eta ez faxista zen Mirande, abertzale
(abizpirituzale, beharbada) radikala baino.

...Bere nortasuna, bere etnia jatortasuna begiratu-
ko dituen Euskal Herri batentzat borrokatu nahi du-
gu; beraz izpiritu zuri eta lotsorrei beldur emateko
lain den ekintza bat gogoan hartu behar dugu, eta
nahiz politika itxura beharrezko duen, gure xedea ez
da abertzaletasun ohil eta kanpotarren etsaikerian sar-
tuko dena... Baina jarraitzen dugun xedea kulturaz-
koa da.

.....

Zer da beraz euskal kultura? Egiaz ez da zuzen,
nere ustez, euskaldun kulturaz mintzatzea, kultura hi-
tzari bere adierazpen osoa emaiten baldin bazaio bede-
ren. Europar kultura bat badago, gurean, beste he-
rrietan bezala tokiko ikurra eta usaina duena, edo,
nahi bada, europar «kultura ziklo» bat badago [Speng-
lerena da mintzamolde hau] eta herri bezala haren
barnean gaude, ez jende, ez frantses edo espainol he-
rritar legean. Euskaldun kulturaren alde lan egitea

helburu denean, europar kultura hortaz jabetzea on da, bereziki Beltzen eta Orien abertzaletasun borrokariak jotzen duenean —Nietzscheren izu deia guri zuzendua dago: izan gaitezen Europar on! Guretzat euskaldun bezala hortaz jabetzea eta ekitea beharrezko da, eta euskararen bidez halabeharrez.

Uste dut ikuspideok ez dutela kritika beharrik. Arrazoi asko du Mirandek. Falta zaiona ez da gutiago. Komeria da, logika honetan arrazoi izateak edo ez izateak inportanziarik ez duela... Historiak aski erakutsi duelakoan nago, halare, neurkiko, politikaren desprezio (teoriko) hori, izpiritu eta kultur metafisika aristokratiko hori, politika guziz narratsez eta plebeioz mendekatzen dela. Miranderen harako hura (4) gertatzen da: aingeruarena egin nahi eta animaliaarena egin (animaliek inoiz ez dituztela gizonaren animalkeriak egin, aparte).

Azkenean, faxistek ere bai, baduten gauza bat, daukagu, baina funtsean kontserbakoi guziena: antzinatearen eredutza. Abertzale sabindiarrek antzinatea hartzen zuten eredu. Mirandek horixe bera egin du: baina antzinatea antzinagora eramanez. Alegia, sabindiarren antzinate jatorra bera ukatzen zuen antzinate antzinagoko eta jatorrago batetara itzuli da.

Eta horrelaxe agertarazi du antzinatora jotzearen absurdua. Berak eraman du kontserbakoikeria absurdura. Eskuindarrei, ba, Mirande ez zaie batere gustatzen eta ezkertiarrei piska bat bai, edo asko ere. Egiatzko ezkertiarrei. Mirandek ez bait dio kontserbazalekeriari fitsik lagundu; eta bai ezker berriaren sorrerari. Kontserbazaleetan kontserbazaleena bera delakoxe, asuntuari buelta eman dio: Miranderen ondoren ez dago aurrerago jotzerik, hots, atzerago. Buelta hartu beharra dago.

(4) Hartu, hemen Miranderi hartzen diogun esaldi hau («aingerua egin nahi duenak animalia egin dezake», ik. **Nere Sinestea**), berez Pascalen ateraldi sonatua da: «Qui veut faire l'ange, fait la bête».

NIETZSCHE

Miranderen faxismo eta nazismo arazoa kultur filosofia baitetan galtzen da. Ikuspide eta teoria haiek Miranderen ideologia politikorik ezagutzeko apenas balio badute ere —eman nahi izan zaien balio moduan behintzat: adibidez, askatasunzale porrokatua genuen Mirande, hierarkia eta ordenu oren gorrotatzaile amorratu genuen, etc., faxistak izaterik ez daukan gauzak bait dira— balio haundia dute Mirande eta kristautasunaren inguruan.

Spengler Nietzscheren jarraikile zen. Mirande Nietzschezale duguna, berehalaxe ohartzen du irakurleak. Peillenek esaten duenez, **Giza gaindikoa Nietzscheren arauera** izeneko saio luze bat ere bazuen idatzia, tamalez galdu egin bait da.

Llabur-llabur bederen orrialdeotan Nietzsche aipatzea komeniko da, galdu saioaren hutsunea nolabait betetzeko eta Miranderen obran beti suposatu behar den pentsaera —kukur puntta nonahi erakusten du— zehazkiago ezagutzeko.

Besteak beste, Mirande eta kristautasuna gaiaren barruan geldituko gara orain. Eta, mugatukiago, goian aipaturiko puntuok borobildu nahi genituzke: kristautasuna euskaldungoaren etsai dela, kristau birtuteak antinaturalak eta kaltekorrak direla (bakezaletasun, lagun hurkoaren maitasun, etab.), gogorke-ria dela zinezko gizalege; zintzoen eta zuzenen gaitzerizkoak duen senditu sakona, agertuko zaigu, halaber.

Badut irudipena, Miranderen obran bi filosofia diferente dabiltzala, beti elkarrekin ongi etortzen ez direnak, iturri ezberdinetakoak, sarri elkarren kontrarioak (behabada Miranderen bi periodo ezberdinetakoak dira). Bat, izpirituzale, tranzendentzizale, kasi mistikua, bere irakurraldi eta zaletasun parapsikologistek hornitua eta indartua: liburu honen azken partean azalduko da. Bestea, ikusten ari garena, lurtarrago eta lurzaleago, kultur-filosofa alemani zor diela, ematen du, Spengler eta Nietzscheri bereberki.

«Alegia, itxura egiten da gaur, itxura, badakigula, zer den on eta zer txar, baina, errealitatean, saldo-gizonaren instintoa

besterik ez da hori, beste instintoen gainetik nagusitzera iri-
txita», errezatzen du 202-gn aforismoak. Saldo-gizona, masa-
gizona, da gaur nagusiarri nagusitu. Esklabua jaunari. Taldeke-
rriari eta saldokeriari onuragarri zaizkion eta komeni zaizkion
birtuteak ohoratzen dira, hortakoz: apaltasuna, zentzu ona,
neurria, zuhertasuna, errukia, tolerantzia, eroapena, egonarria,
ardura, akuzia. Etxekoandre birtuteak, zaldun birtuteen orde-
z. Artalde morala.

Taldekeriarik bazen lehenago ere; saldo-gizona beti izan da.
Masa-gizarteak ez dira orain asmatu. Diferentzia zera da: lehe-
nago nagusia libre zela nagusi agertzeko, nahi zuen moduan
agintzeko, morroinak ez zuela obeditu beste zereginik. Orain,
morroina nagusitu bait da, egiaz jaunik, nagusirik, ez dago,
agintariak eta gobernariak egon arren. Artaldea besterik ez
dago, eta artalde-artaldekoenak agintari.

Nagusia oraino nagusi zenean libre eta benetan nagusi zen,
moral kezkarik eta eragozpenik ez bait zuen. Ez zuen behar
ere. Zeren eta, Nietzschek behin eta berriro markatu eta azpi-
markatu duenez, gizona oso-osorik izadi bait da, natura, natur-
kume: naturak, aldiz, on eta txarrik ez daki; dagiena dagi,
beste problemarik ez du. On ala txar eta beste buruhauste
moralak, naturari axola ez zaizkion metafisikak dira.

Beraz, natura baldin bada gizona, naturaren arabera joka-
tzea dagokio hari ere: ondorioa berez dator... Natura berdin
da otso, guti-gorabehera.

«Ezetzta irakasten dut nik, ahulgarri orori, akitzen duen
orori. Baietza irakasten dut nik, indargarri orori, indar ematen
duenari, indar sentimentua zuzenesten duenari», biltzen
zuen Nietzschek berak bere filosofiaren muina labor-labor.
«Supergizona (gizagaindikoa) irakasten dizuet».

Bizitza den bezalaxe eta ilusio alferrik gabe hartu behar
dela, irakatsiko du Nietzschek. Bizitza naturala.

Lehenengo ilusioa eta begitasuna, berak dioskunez, Egiaren
ilusioa da; handik hara «egiazko munduaren» ilusioa sortzen
da, metafisika, gauzkan munduari gutietsiaz eta beste bat

—«egiazkoa»— haren gainetik asmatuaz: Tranzendentzia, **Hinterwelt** (Feuerbachen arabera esana; «Die Hinterweltler» di-relakoak, Mirandek **Nere Sinestean** aipatu ditu: hilargitarrak edo, esango bagenu bezala; beharbada hobeto trogloditak, **Hinterwäldler** hitzarekin joko egiten bait du). Horrela, «egiazkotzat» beste mundua emanaz, gure hau deskalifikatzen da, bizitza kaskartzen eta gorotz-esten da, desestimatzen da, «itxurazkoa» omen dela eta. «Egiazko» errealitateak asmatzen dira —Jainkoa eta zerua— eta gure bizitzako errealitateek ez dute «irudipenek» eta «itxurek» baino gehiago balio.

«Metafisikaren desegintzan» eta, zehatzago, zeruaren kritikan, Nietzschek eman digun gehiena Feuerbachen segimen eta desarroilo da (hein hortan Marxen eta Freuden pare dago). Ez dugu hemen azalduko. Niretzat harrigarri hauxe da: Mirandek, zuzen badakust, ez dioela Nietzscheri jarraitu hortan. Behin gorputza mespretxatzen duten zerutiarrak aipatzen ditu («Hinterweltler»); beste behin, Jainkoaz ari dela, «klaneko giza handien arimen oihartzuna» ere aipatzen du, kutsu feuerbachiano apur bat ager dezakeena; baina hori da dena. Aitzitik, Mirande Tranzendentziaren apologista kartsu izango da.

Harrigarri, ba, horixe izango da: «egiazko mundua» Tranzendentzian ezarri arren eta gure munduari eta bizitzari «irupiden» eta «itxura» eritzi arren, Mirandek ez duela nonbait eragozpenik batere aurkitu Nietzscheren moral kritika deblauki bereganatzeko. Aitortzen dut, ez dudala ongi konprenitzen, ez diodala ikusten logikarik, kontradiktorio bere baitan iruditzen zaidala ere. Baina Mirandek horixe egiten du: mundu honen «errealitatea» ukatu, bai, baina gero, errealitate bakarra mundu hauxe dela eta Nietzschek atera dituen jokabide arauak osozorik onartu... Horregatik nire susmoa, Miranderen pentsamentuko bi aldi ezberdin ote diren. Bestela ez dakit kontraesan honen soluziorik.

Errealitate bakarra mundu honetakoa omen denez gero, «bizitzaren sentimentu dionisiakoa» jartzen du Nietzschek moral eta erlijio sentimentuen lekuan: grinak dira, instintoak, gure eragile, ez printzipio moralak eta ez Egiaren ezagutza. Mora-

lak, hain zuzen, horietzek hilduratu eta ito nahi izaten ditu. Hortarako arrazoirik ez dago, ordea, naturak horiekin hornitu bagaitu, eta zerurik ez badago. Zerurik ez badago, natura besterik ez dago. Eta moral «natural» bakarra naturak egin gaituen bezalakoxeak izatea da; naturak itsatsi diguna, aldiz, aginpide grina da, nagusi-izan-nahia. Hau da gizakume sendo, bortitz, osasuntsu, heroiko, guzien moral bakarra. Gizandien morala. «Gizon izan hadi!», agindu moralak, bildurrik eta ikararik ez izateko, esan nahi du. Kontenplazio gabe ibiltzeko. Jo eta hausteko. Zindo jokatzeko. **Virtus**, balore da; balorea, kemena, hori da birtute. Gizarte antolaketa naturala aristokratikoa da, orduan (baina zinez aristokratikoa, ez odol aristokraziazkorik). Nagusi eta jaun izatea da birtutetsu izate naturala.

Ni dieu, ni maître, horixe erabiltzen zuen Nietzschek gizalege jatorraren arau eta printzipio bezala (ezagunki, esaldi hori ez da faxista hain zuzen!).

Egiatzko morala, natur morala, hankaz gora jarri digutenak, judaismoa eta kristianismoa dira. Ikusi dugu zergatik (Nietzscheri hartu dio Mirandek hori). Harrez gero hipokrisia dabil munduan nagusi. Okerrena da jaunetaz ere jabetu egin dela hipokrisia: beren jauntasuna zilegiztatu nahirik, gezur asma eta aitzakia bila ibiltzen dira, nagusitasunaz lotsaturik bezala; «gizartearen zerbitzariak» direla, esan ohi dute, inork ez dien arren sinetsi nahi (agian ezta berek ere).

Moral arloaren kapituluan ikusi dugu, gizonaren zorigaitza horixe dela; bere barneko deiari uko egin eta gizarte eginbidetara makurtzea. «Zoritxarrekoak bere bihotzeko nahikari sendoa zapaldu badute besteak bezalako ez ziren hautetsi haiek!». **Haur besoetakoa**-n hori da protagonistaren trajeria:

Orduan arte, beti eta orotan amore eman zuen, andregaiak, etsekoek, lagunek zerbait harengandik eskatzen zutenean, eta orain beranduegi zen noski gogor egiteko: giza saldoan sartzea ontzat hartu zuen, areago ez zedukan berezko olde ez oldarrik izateko zuzenik eta haren otoitz piadosa izan beharko zen handik au-

rrera: «Besteen nahia egin bedi, zeruan bezala lurrean ere!».

Nietzschekek badu oraindik irtenbide bat: «humanismo» berria, supergizonarena. Metafisikak hautsi eta saldo gizartearen morala birrinduaz, gizandi berri bat eraiki espero zuen, bere buruaren jaun eta jabe.

Baina Spenglerrek beste konzeptu bat sartu du Nietzsche-ren azterketa kritikoa: nahitaezko dekadentziarena, itxaropen oro errausten duena. Aldera ezinekoa bait da dekadentzia, heriotza, azkena, bidea ibili dabilenarentzat.

Sartaldearen dekadentzia ez da, Spengleren ustez, gaisoaldiren bat, berehalaxe pasako dena, gero berriro indartsu eta sasoian jartzeko. Ez, mendebaleko kultur zikloak bere itzuligurua bete du, adina bete du eta harenak ia egin du, erremisio gabe. Hori lege da. Jaio eta hazi denak, zahartu eta hil ere egin behar du. Hura baino lehenago izan diren eta suntsitu diren beste kultura guzien patua darama. Ez dago zer eginik. Mendebaleko kultura —Spenglerrek bere azterketa morfologikoen bidez ikusi uste duenez— zibilizazio fasean dabil, hots, dekadentzia hasita, behialako kultura grekoa Alesander Haundiaren ondoren eta erromatarra Zesaren ondorenean zebiltzan bezalaxe. Ezaugarriak eta sintomak nabar-nabarmenak dira. Gizarte hau zaharturik dago, ez alditxarturik. Hezur gogorturik eta gogo lehorturik. Dekadentzian. Ez du ezerk biziberrituko.

Aldi honetan sortuak gaituzu eta guretzat erabakirik dagoen bidea etsi-etsi azkeneraino oldartsu joan besterik ez daukagu. Beste biderik ez dago. Gure postu galduan tinko eutsi, resistitu, itxaropen gabe, salbaidide gabe, hori da gure eginbidea. Eutsi, resistitu, Ponpeiako portale baten aurrean hezurak arkitu diren erromatar soldaduak bezala. Hantxe hil zen, Vesuvioak leher egin zuenean ahaztu egin zutelako hari goardiatik hots egitea. Akabera zindo hau da, gizonari ken ez dakioken gauza bakarra (Spengler).

Spenglerrek itxaropenik ez du uzten. Historia kultura berri eta zaharren etengabeko joan-etorria da. Historiak dena kondenatzen du heriotzera. Orain sartaldeko kulturari tokatzen zaio bere txanda. Agonia sintomak hor daude: axalkeria, klerikalismoa, izpiritu kreatzaile fisik ez. Hor dago gizarte dekadentearen estilo nabarmena moral guzian ere: saldokeria, koldarkeria. Etsipen etsitua eta heriotze hotz heroiko bat: horra gelditzen zaigun gizanditasun bakarra.

Etsipena da Miranderen **Haur besoetako**-an protagonistaren ezaugarri konstante bat: «bihotza etsipenez izozturik zuen».

Saldo gizartearen aurka jeiki behar dela, esango du Mirandek, Nietzschek bezala. Gizarteko eginbideak oinpean zanpatu eta barneko deiari jarraitu. Horixe egingo du Miranderen protagonistak, egin ere. Baina garaitzeko esperantzarik ez dago jadanik. Dekadentzian gaude. Saldoari ez zaio amor eman behar: «izan hadi gizon!»; baina «bere irrikiari amore eman ez [saldo gizarteari buru eginez, hortakoz], ba zekien bere hondamendirira lihoakela, bere erruz...» Beraz, **Haur besoetako** gizona errebelatu egingo da, saldo gizarteari oldartsu buru eginen dio; baina heriotze heroiko batetan amildu beste azkenik ezin izan dezake.

Denboraotan ez dago beste biderik. Ponpeiako soldadua.

Iraultza sozialak edo ere ez du ematen itxaropen biderik. Judaismoaren eta kristianismoaren kumeak dira sozialismoa eta anarkismoa, esango du Nietzschek: «errukiaren erlijio» dira eta beren fedea da «komunitatea dela salbatzaile». Birtute negatibua arau-balio bihurtu izanaren produktu dira biak. Eta judaismoak eta kristianismoak egin zuten hori. Kristautasunak deusgizatu ditu «jaun herriak». Kristautasunak gizagabetu gaitu, zinezko gizonaren gizalegea, gizontasuna, gizon birtuteak, difamatuaz; ergelaren birtute negatibua eredu proklamatuaz. Jainko herri aitzakiaz salda-malda epel bat bihurtu gaitu. «Saldo-gizarte», birtute negatibuen heroi eta santu kakalardo. Ez dago zer egin.

GURUTZIFIKA ZINDEZAKET

Bada Miranderen poesia bat, jendeari gustatzen ez zaiona. Gogorregia da. Gogorra, edo, hobe, inpresionagarria. Niri gustatzen zait, Miranderen drama eta gure historia berriaren drama da.

Ari zaio Jesusi:

Josu bar-Joseph, deithu zaitut haizeen artetik
hilbeltz erdiko gauhil hartan zurtz eta zut,
—Argizagia ezpain hertsu parez zegoen—
zeure zerutik deus ez duzu ihardetsi.

Josu bar-Joseph, gaztaroan maite zindudan.
Maitakeri hark noradino nau iroan...

Gaur, Judu- seme, gutartera itzul bazinde,
gurutzifika zindezaket nik oster!

Kristauk Ama Birjinaren seme ohi deritzate Jesusi, Izpi ritu Santuaren graziaz gizon egina; eta Mirandek apropos deritza, behin eta berriro, bar-Joseph: Joseperena. Gizon bat da Jesus: aitaren (eta amaren) seme, judegu baten seme, profeta judegu.

Poetak, nahi ezta ere, bere periodo historikoa espresatzen duela, esan ohi da. Hori da poetaren ditxa eta desditxa: «bere denborak hartua» da, beste pertsona batzuek «deabruak hartuak» izaten omen diren bezalatsu. Bere aldiak deabrutu bat da, eta haren ahotik bere aldia mintzo da garraisika: deabrua.

Nire ustez, gure erlijio krisia honela ibili da joan den hogeitun urte honetan: lehenengo, erlijioa sakonago eta biziago biziaz konponduko zirela problemak, uste zen. Problemak aberri eta sozial arazoak genituen; askatasuna, justizia. Kristautasun txit sozial bat sortu zen orduan (JOC, Herri Gaztedi, eta abar), «egiazko kristautasuna» bizitzeko asmoz: egiazko kristautasunik ez omen bait zen igandeoro Jaun hartzea, luistar izatea, eta beste dena. Egiazko kristauak munduaren erdian ibili behar du, konprometatua izan behar du. Eta gurea kristautasun guziz

konprometatua bihurtu zen. Hain konprometatua ere, hasieran inportanteena «egiazko kristautasuna» bizitzea baldin bazen, azkenerako inportanteago bait zirudien mundua aldarazteak, kristautasunak baino. Edonola mundua aldarazteak. Eta honela hasi zen bigarren aldia. Kriariaren bigarren aldia desengainuak ekarri digu; hots, itxaropen faltsuek: kristautasunak ez bait du mundua aldarazteko **metodo positiborik** irakasten. Gogo eman dezake mundua aldarazteko, gogo: baina ez metodurik, kristautasuna Teoriarik ez da eta (zientzia soziologiko, historiko edo politikorik ez da eta). Orduan, mundua nola aldatu jakiteko, «egiazko kristautasunak» ere ez duela balio, agertu zen. Eta balio zutenak bilatu ziren, marxismoa, eta abar.

Samindurik zaputz egin zitzaion kristautasunari.

Mirande ere, dirudienez, Kristoren atzetik noizpait ibili ondoren, liluratuta, kristautasunak arras desengainatu zuen eta desengainatu bezain garrantz irauli da gero haren kontra (bestalde, Jesus hori **Josu** da!).

«Gaztaroan maite zindudan», baina «ez duzu ihardetsi» eta «zergatik utzi nauzu?», esaten dio Jesukristori.

Gogoangarria hori. Belaunaldi honek Jainkoaren esperentzia bere-bererik bat egin badu, Jainkoaren urruntasunarena da, Jainkoaren isiltasunarena. Sekula ez da Jainkoa gure artean hain agirian ibili. Irudietan batik-bat. Itxuretan. Bizitza publiko guziaz Jainkoaren izenean egiten zen. Halare, Jaungoikoak ihes egin du gazteontzat. Ez dago, Orixek zuen bezain gertu, horien aurreko belaunaldian poeta bat aipatzeko bakarrik. Ez du erantzuten. Hutsa dago. Izan ere, zein situaziotan bizi da gazte hau? Herria txikiturik. Ezin asma nora jo. Herioan dabil gazteria hau. Baina, are bistanago eta urrutiago Jaungoikoa. Ezkutatatu egin da, isildu egin da. Utzi egin gaitu. Aldi hartako literaturan, Jainkoaren urruntasunaren zantzu asko gelditu da. Jainkoaren bila joan dira poetak ilunetan. Ez dute aurkitzen. Sentidu gabeko mundu honetan sentidu bila dabilta Leturia eta Peru Leartzakoa. Jaungoikoa —zernahi denik ere, izan— galdu den zerbait da orain. Hutsunea eta Eza. Urruti Dagoena; Isilik Dagoena. Esistenzialismoak sentipen orokar bati es-

presabide atera dio. Budismoak autokonprentsiarako tresneria eskaintzen du, egoera desolatu honen erdian, barneko hutsune guziaz nolabait espresatzeko.

Begira, urte berekoak dira poesia zati biok, 1952; Miranderen **Nil igitur mors est** eta Krutwigen **Bulharraren labirintua**-tik hartzen ditut.

Mirandek:

Gizendak eri zirelarik
Bizi min deitu minbiziaz,
mintzo zan, ixil, ez-jainkoa:
«Deus ez da» zion «herioa:
EZ dena EZin daiteke hil».

Et-EZak oro zituen io:
hiria, haurrak, maitaleak...

Krutwigek:

Gauzen izaitea Ezerezean
dago; Nibbana da beren zentzua.

Lanho da oro, mundua elhea.
Ezer eztago, eztago Gogorik.
Spiritua ezta khimaira baizik.

Ordukoxea du Mirandek, baita ere, **Ortziren ttunttuna:**

Ortziren ttunttuna dabil soinutan
Ezereza gainti rhythmua heda.
Huna ttunttunaren dantza-hotsetan
Ezereza uhin bilhakatu da.

Jaungoikoan sinestu beharrik ez dago, hemen zer gertatu den, hautemateko: gizartea hautsi egin da. Oinarria galdu da. Gizamordo bat besterik ez da gelditzen. Gizamortua. Elkar-goia bildurik izateko gizarte orok behar dituen erreferentzia

irmeak —historikoak, politikoak, moralak, metafisikoak— porrokatu dira. Eta, orduan, hutsa, ezereza, gelditzen da. Norbanakoa bere buruarekin bakar-bakarrik gelditzen da, zulo batetan.

Mirandek saminki errezatzen dio **Ohiko Jainkoari**; eta be-launaldi guzi batek segituko zion:

Josu bar-Joseph, ebili naiz zure elizetan
ezkoen suan bihotz sor haur sutu nahiz.
Nuen orduan, Rabbi, zure baithan sinhesten
(Eta ondikotz! aingeruen baithan ere...)

Josu bar-Joseph, ikasleak zurekin ziren
zuk ereitean, nola gari, goi-elheak;
ni ere izan nauzu mintzo nire anaiei;
bainan anaiok erran dute hitz haur: «Ertzo».

Josu bar-Joseph, ba dut othoi egin gauerdiz,
argizagia begi makur so zan etoi-
eta zuk aldiz utzi nauzu... Zergatik arren?
Zergatik arren, on hotsezko Jainko Josu?

Josu bar-Joseph, ba dut burhau 'in zuri aitzi:
bihotzean osk baintuen zazpi ziraun,
zeure munduon soilik nago edozein zakhur
zoriontsurik bizi da ni bainoago.

Kristautasuna benetan gorrotatzen ote zuen Mirandek? Hala esan digute. Gorrotoak ezkutatzen duen anbiguotasuna, aintzat hartuaz gero, baietz esango nuke nik ere. (Mirande maitasun/gorroto dialektika batetan mugitzen da beti). Ikus Eguerritan zer **Merry Christmas** bururatu duen, garratza.

Baina, batez ere, ikus, lehenengo, goiko poesiari darion desolazio guzia. Elizetan ibili da, bihotza sutu nahiez, eta alfer-alferrik. Anaiei mintzatu da eta alfer-alferrik. Gaberdiz otoi-tzean egon da eta alfer-alferrik. Eta bakar-bakarrik dago mun-

duon orain. Edozein zakur zoriontsu da hura bainoago. Eta birao baino negarrago den «gurutzifika zindezaket!» hori ateratzen zaio bihotz barrendik. «Eli, Eli, lamma sabahthani?».

Hori dena —esan bait dut— Miranderen asunto pertsonal bezala har daiteke. Edo baita gizarte baten, edo belaunaldi baten, drama bezala ere. Baina esan dugu, hau ez dela hortarako lekua, hemen ez bait ditugu Miranderen problema pertsonalak aztertu nahi, haien nondik norakoak eta zergatikoak, ezta urteotako erlijio krisiaren hastapenak ikertu ere. Ondo erraza litzateke, halare, Miranderen krisia eta kristautasunarekiko gorrotoa situazio jakin batek probokatuak bezala azaltzea. Mirande, beharbada, kristautasunaren etsai baino gehiago kristautasunaren biktima izan bait da. Ebanjeliotik beharbada Mirande baino oso guti gertuago dabilen kristautasun baten biktima.

Poesia hori aparte, Miranderen obran arrunt naturalagoa da kristautasunaren ukoa. Axanparik eta gorrotorik gabe egina. Franko naturala. Ironia fresko batetan bildua sarri. Ez da somatzen, desengainu pertsonal horren obra denik. Soil-soil, honez gero Miranderen munduan ez dagoela kristautasunarentzat lekurik. Eta Miranderen mundua bere baitan osoa da. Konpletoa. Handik, ordea, ez dago kristautasuna positibuki juzkatzerik. Mundu hori, nolabait, erlijiosoa bait da, erlijio tanke-rako mundu ikuskera orokorra, eta bere izatez berez kristautasunaren uko garbia.

Krisi horrek «askatu» egin zuen Mirande, bere hutsetik bere mundura iristeko.

Miranderen mundu hori mugatzea hitz bitan ez da erraza. Baina bi alderdi nagusi badituela, esango nuke: 1. indarraren baitespen nietzscheanoa, eta 2. estetizismo libertarioa. Bata zein bestea, oso gaizki datoz. etorri, izpiritu kristauarekin. Miranderen munduan gurutzeak iadanik ez bait du inon lekurik, leku ttipi-ttipirik ere. Beraz, esan liteke, Miranderen obran kristautasuna ez dela baztertu; ezpada sartuerarik ez duela aurkitu: Mirande pagano bat zen. Hori. Mirande kristaurik ez zela edo kristautasunaren etsai zela baino hobeto, pagano zela, esan behar da.

Kristau sentitzen direnentzat, nolana ere, hor gelditzen da galdera: historia guzian behin eta beti zanpatuei eta ttipiei tokatzen zaien gurutze hori, Mirandek arbuia zuena, hori ahal da Jesukristoren gurutzea, zinez?

MIRANDEREN PAGANISMOA

Mirande pagano zela, beharbada horixe da gaur Miranderen gauzarik ezagunena.

Gauza ezagunegiak eta ebidentzia komun bezala ohituak errazegi sinplifikatzen dira, tamalez. Miranderen paganismoa sinplifikatzerik ez dago. Egiten badugu, benetan hartzen ez dugulako, da, askotan.

Mirande artista hutsa zen, hori denek dakite. Denek dakite, halaber, moral libretxokoa genuela, artista edo «zoro» aire bat zuela, eta abar. Gainera, zuberotarra zen, eta zuberotarrek, Euskal Herrian, halako berezitasun berezi batetarako permiso berezia dute, besteei ez dagozkien libertate batzuetarako alegia. Eta Mirande paristarra zen, gainera. Eta abar. Estereotipo mordo bat. Azkenean bidezko edo, ematen bait du, Mirande pagano izatea. Gainera, gauza bitxia bezain polita iruditzen zaio hori gaurko gustuari. Poeta pagano bat: oso gauza polita.

Badago hori dena. Baina gehiago ere badago. Ez dezagun Miranderen paganismoa «artistakeria» huts bihur. Miranderen paganismoa ez da batere jolasik, jolastia bazen ere.

Lehenengo, Miranderen sentiera artistikoa, bizitza eta giza portaera eta gizarteko harremanak ulertzeko ikuspide estetikoa, zure edo nire erlijioa bezain sakontasun errespetagarriko eta seriotan hartzeko gauza da. Axalkeriarik ez du batere. Beste edozeinena bezain begiragarri den, Miranderen era sakona da, nork bere burua ulertzeko.

Gero, Miranderen artista izateak ez digu ahantzerari behar, abertzale absolutua zela eta Miranderen paganismoak baduela zerikusirik haren abertzaletasun absolutuaz: bere burua nola

ulertu, bizitzaren sentidoa nola determinatu, abertzaletasunak erabakitzen ziola hein haundi batetan. Miranderen paganismoa ulertzeko, haren abertzaletasuna kontsideratu beharra dago, estetizismoa baino ez gutiago.

Mirande pagano da, paganismora heldu delako, nor-bere buru bila, sustrai bila, bai esteta bezala eta bai abertzale gisa. Bere nortasun guziaren espresio du paganismoa.

Horregatixe da zail samar, esatea, zer den Miranderen paganismoa.

«Ortziren izenean agur eta bake», hasten du Mirandek behin gutuna. Gero halako gehiago aurkitzen duzu (adibidez, **Euskaldun zintzoen baladan**-n, Ortzi euskal jainkoari zuzendu galde othoitz bat). **Ortziren ttunttuna** duzu poesia baten titulua.

Gutun batetan agurrak nola ematen diren, ez da gauza haundirik. Beste batetan igoal hasten zaizu: «**Sieg heil!**» eta «Buddhak zuhurtzia eman dizaizula!» bukatzen (ah, zer faxista ederra, gure Mirande!). Berdin, sarri aipatuko ditu «jainkoak eta ez-jainkoak», «Euskalerriko jainkoak eta ez-jainkoak», «balizkako jainkotasun-ak» eta «balizkako jainkoa»... Letra ttipiz. Jainkorik aipatzeko Miranderen era beti holatsu da. Bestela, jainkoak eta jainkosak baditu gehiago («Badaki urak... jainko-emea bait da», «Oi, behiak, jainkosa geldiok», etc.). Utz ditza-gun espresabide poetiko libreak. Hori bai, ez da axal-axal besterik.

Berriz ere Peilleni emango diogu hitza, inor ez bait da hobeiki Mirandez mintzatu:

Haren sinesmena euskalduna zen, ez israeldarra. Herri sinestetan bereizten zituen arketypen ziren sineskeriak eta Izadizko sinesteak; gizonaren eta Izadiaren arteko harramanak (eguzkia, ilargia, Urtzi, Mari). Euskal pagantasun berri bat eraiki nahi zuen, eta pagan otoiitz eta olerki asko idatzi ditu.

Guzi hortan eta, nik uste, batez ere Miranderen irudi mun-

du sugestiboan, agertzen da haren paganismoa. Paganismo estetiko: undinaz, itsas-neskaz eta beti ere neskez, behi jainkosaz, sensualitatez, egindako paganismoa. Ez aski hegoaldeko eta ez aski ifarraldeko den paraje honetan sarri egin dugunez, Ifarralde ideal pagano baten, Mediterrania baino batere paganoago ez den, baina paganoago imajinatzen den Ifarralde baten irudia —irudipena— maite du Mirandek: «ametsaren iratzartzaile den Ifarraldea», nexka hile-gorri eta begi-urdir aurpegi xuriak, mitologia germanikoa; Amsterdam bera —eta Amsterdamek badu Miranderentzat esanahi berezi bat— «portu Ifarrekoa» dizu.

Zail da txosten hautatu eta pasartez adieraztea, zer den Miranderen paganismoa. Betiko kristautasunetik urruntasuna da batik-bat. Miranderen mundu bere-berea. Ez bila, ba, puntu honetan edo hartan: zenbait aldiz aipatzen dituen jainkoak eta jainkosak, etc. Guziaren oinarrian dago.

Harentzat paganismua izpirituaren egoera bat zen, bizi-antze bat, gotortasuna, humore ona, mahain eta edari ona, eta setsu askatasuna kantatu behar zituena; eta endaren sinestea, arrazaren sinestea izan behar zuen hizkuntza bezain berebizikoa.

Miranderen paganismoa libertate espresio da lehenengo. Gizarte hola-esan kristau baten tabu eta estekadurak hautsi dituen azalpen eta demostrazio. Kristau delako gizarte hipokritari kontrastatu nahi liokeen antigizarte libre.

Bestetik, ordea, badu Mirandek «paganismo abertzalea» esan genezaiokeen beste bat ere: bere nortasunaren oinarri sozial eta historiko bila sortua. Hain zuzen, loturak hautsi nahi dituen horrexek lotura bila sortua; sustrai bila.

Mirande, bere gaitzean, situazio pribilejiatuan aurkitzen zen, gaitz moderno arrunt bati igartzeko: gizona bere sustraietatik etenda dagoela; aterata dagoela bere lurretik. Zuberotar euskalduna zen eta sentitzen zen bera, baina Parisen sortua eta lotua. Beti kontradizioan bizi zen. Paris ezin jasan zuen eta Euskal Herrira itzultzen zituen barne begiak; baina, gero, ezin

jasan zuen Euskal Herri herstua eta bere Paris unibertsean anparatu behar zuen. Ez hango, ez hemengo. «Herrimez bizi nintzen hemendik urrun, eta ikus!, herri hau dela ta dut orain min...». Alabaina, «galduta egotea» gizarte modernoan edozeinen gaitza da; inon ez etxeko izatea, inon ez norbera eta ingurua harmonian egokitzea. Kapitalismoan —edozein industri gizarretan, ausaz— gizarreteko harremanak ez bait dira pertsonalak, fetitxe bitartezkoak baino. Ume-umetatik hasita, zu ez zara zeu, eginkizun eta roll batzuetarako prestatu zaituztena baizik; situazio jakin batzuetan —maisuari, nagusiari, hauzoari buruz— mekanismo jakin batzu erabiltzen irakatsi dizutena. «Hezi» dutena, abereak lanerako nahiz zirkorako hezitzen diren moduan. Nortasuna kendu eta roll bat egin zaituzte.

Parisen hertsaturik, Euskal Herrian bilatzen zituen Mirandek bere arimaren esistentziaren sustraiak: seksuan eta etniaren konzientzian finkatzen bait dira horiek, uste zuenez (**Nere sinestea**). Baina hemen Mirande aurkitzen zen, bere nortasuna zurrupatze hori, ez zaiola gizabanakoari bakarrik egin, ezpada baita herri batzuei ere: Euskal Herriari, adibidez. Haundia goek menpean harturik eta erdibiturik, roll bat jokatzera moztu eta murriztu dute. Egungo Euskal Herria Euskal Herririk ez da, Paristik eta Madrildik ematen dioten rolla jokatzeko, ari dena soil baino. Mirande, bere nortasuna euskal nortasunean finkatu nahi zuela, euskal nortasuna bera xehaturik zegoela, mozturik eta loturik zegoela, kausitzen zen, oinen azpian lur irmo gabe. Mirande bera bezain zintzilikario dago Euskal Herria; hemen ez dago lur irmorik oin azpian. Horregatik, «euskaldun izatea zer den», behin eta berriro eztabaidak sortzen dituen puntua, da.

Mirandek, bere situazio berberean, sustrai gabezia berdinean eta alienazio ber-batetan, aurkitzen zuen Euskal Herria. Eta Euskal Herria eta Mirande bera berdin aurkitze honetatik, bere nahiz Euskal Herriaren arima sustraiak bilatzen zituen.

Orixek, Euskal Herri jatorra, baserri garbi guziz kristauan aurkitu du. Euskalduntasun jatorraren sustrai bila zebilkigun hura ere. Mirandek atzerago jo digu: kristautasuna baino lehe-

nagoko Euskal Herrira. Kristautasunak Euskal Herria norgabetu eta roll bat jokatzera bihurtu digula, esango bait du.

...Euskaldungoaren etsai handienak nabari zaizkidu: Europako Sarthaldeko bi statu latin-berriok [Frantzia eta Espainia] eta Romako Eliza. Horiek, elkharrekin lankhideturik, gure endaren bereizgarri guztien erauzteari thaigabe egin zeraukoten, nahiz alhor politikoan nahiz sinhespenen alhorrean.

Ai beren aitzinako paganizmuaren begiratzera herabe izan ziran Euskaldunok, behintzat protestant bihurtu izan balira, Euskhalerria salvatuko zan ezpairik gabe, herri bat denetik... Albreteko Ioanna eta Leizarra hotsemaile genituela, berphizkunde bati buruz ginhoazen bai herriketan, bai inteligentzan: gure gogoherstura dela kausa, hala ez da izan...

Elizak hondatu duela egiazko euskal izpiritu jatorra, esango du. Baina gero, paganismoaren alde dihardunean, Elizak ere ez duela guziz hondatu, ematen du: «Gu paganu ginan oraino—hots egiten bait du Mirandek— gure hauzo guztiek aspaldian onharturik zutelarik Goizerritar batzuek ekharri 'Berri Ona'; eta gero ere, paganu egon gara bethi gure izaki-zolan, egiazko Europatarrak oro diren bezala. Orienteko doktrina bat baita Khristautarazuna, hangotarrentzat egina». Beraz, kristautasunaren kaltea axal-axalekoa bakarrik izan dela, esan nahi ote digu Mirandek? Baina kalte haundi egin digula egozten dio Elizari.

Dena dela, Mirandek itxaropena badu, berriz ere geurera eta zuzeneratuko garela: «eta Zazpi eskualdetako seme-alhabak, latinkeriak arbuiaturik eta euskal endaren genioari itzulirik, harzara herri azkar, sentho eta handi nahi bat formatuko baitute, geroaldi zabal bati buruz ioaile».

Mirande, euskal izpiritu jator bila, mitologiaz biziki interesatu da: Ortzi, lamiak, Basajauna, Mari eta besteak, kristau-

tasunaren itsaspean ere iraun duten herri sinesteak. Tamalez galdua dugun jatortasun eta edertasun mundu bat bezala gogoratzen du Mirandek hori dena:

Lehen hain ugari izanik, gaur egun ia inork ez badu laminik topatzen, hori ez ahal da Ohiturazaleek (Tradiziozaleek) aipu duten 'munduaren gotortzeak', munduaren aurreratzeak, ekarritako ondore bat? Egia da Demokrazia eta Atomoaren Fisika ere ekarri dizkigula... Oro ezin euki dezakegu.

Akelarre berbizeak eta euskal paganismo liturgiak ikusi ditugu geroago, ikusi, asko ez duela, berriz ere artisten batzuen inguruan, euskaltasunaren sustrai jator bila bezala muntaturik: hilargi bete gabetan sagardo libazioak, eta abar. Ilusio estetikoa, ezen ez errekupeziarik batere. Joana joan zen. Aitzindari, haatik, berriz ere Mirande ageri zaigu, beste hamaika gauzatan bezala.

Mirandek nahi luke, sorgin ipuinak «ikert eta begira ditzagun artoski, gure mitologiaren zati zabal bat moldatzen dutelakotz, eta gure mitologian datzalakotz gure egiazko Ohitura, ez sasi-folkloreko 'gure tradizio zahar' ospetsuetan (berri xamarak, eta kanpotik etorriak gehientsuak). Euskaldun bakoitzak, bere uste filosofiko zernahi izanik ere, ohitura horietarik, mito horietarik, aberats ditzake bere burua, bere gogoa eta bere ikusmena; bai eta euskaldun idazle eta antzelariek ere bertan aurki dezakete beren langintzaren iturburu nasai bat: Finlandian, erraiterako, Kalevala-ko mitoetan Sibelius batek soinugintzarako, Kehonen batek irudigintzarako bere gaiak ediren dituen bezala».

Euskal mitoak «ez dira, oro har, beste zein nahi sartaldear herritakoak baino gutxiago edo gutxiesgarriago».

Dagoeneko, problemaren batzu azaldu beharrean gaude Miranderen pentsabideotan.

Kristautasunak antzinako euskal izpiritu jatorra **hondatu** duela, molde askotan har daitekeen kontua da. Barandiaran,

batik-bat, uste horren kontra azaldu zaigu (eta ongitxo zekien, inork jakitekotan, antzinako sinesteetan kristautasunak sortu dituen transformazioak eta eragin dituen suntsipenak neurtzen), ik. zein sentidotan, M. de Ugalde, **Hablando con los vascos**, 1974, 28-32.

Aita Santuen diplomaziak aspal-aspaldidanik Euskal Herriari ez diola onik ekarri, uka ezinezkoa dugu, halare.

Beste problema bat, larriagoa: Mirande pagano ahal zen?, galde beharrean gaude berriro, orain artean ebidentzia bezala hartu dugun arren, pagano zela. Izan ere, kristau garbi izatea ez da erraza —nik uste dut, pagano puska on bat denok darماغula barruan—, baina pagano garbi izatea, agian ez da errazago. Nik neuk, behintzat, ez bait dut ongi ulertzen, zer den edo zer izan litekeen, pagano izatea orain, San Jose arratsaldeko hiru t'erdietan. Hori ere, esanahi ezberdin gehiegi har ditzakeen kontua, iruditzen zait.

Ezagutu zutenek eta adiskideek, eta haien ondotik guztiok, Mirande pagano zela, esan eta berresan ohi dugun arren, honez gero bidezko da zalantza, egiaz pagano ote zen. Izan ere, euskal mitologia zaharren berbiztea predikatu du, baina paganismoa ere erlijiorik baldin bada behintzat, oso zaila egiten da, Mirandek hori dena erlijio antzera uler zezakeenik. Errazago uler daiteke, erlijioaren ukazio antzera. Ordea, Ortzi adora daiteke egun ere, eta sagardo libazioak egin litezke hilargi betetan eta larru-bixikeriak eta akelarreak ospa litezke dotoreak, baina hori dena eginaz, behinolako euskaldunek holakorik egin zutela, egia izango balitz ere, ezin pentsa genezake, horregatik, haien gauza bera egiten dugunik, haien sinesmenez egiten ez badugu. Haien forma ritual batzuek ez dute haien izpiriturik transmititzen. Eta gaurko «sinesmen» estetikoa edo politikoa ez dira inolaz ere haien sinesmena. Ritoak errekuiperatzea —ilusio hori izatea— ez da mitoak errekuiperatzea. Axalkeria da. Komeria hutsa da —konforme, komeria batzuk politikak izaten dira— mitoan sinestu gabe ritoan sinestea.

Oso engainatzen ez banaiz, Miranderi, antzinako europarren jainkoez eta aldareez eta sinesmenaz mintzo den arren,

«gure endaren bereizgarri» eta «euskal endaren genio» gisa interesatzen zitzaizkion horiek, eta ez berez diren sinesmen eta aldare eta jainko gisa.

Rito zahar paganoak ere gustatzen omen zitzaizkion, ordea. Bai, beste askori bezala. Baina ez, pagano zelako, ez zelakoxe baino. Anti-sinesmen bategatik.

Goulveen Pennaod bretoinak historio ezin interesgarriago hauk aipatu dizkigu:

Hogei urte genituen garaian, txintik ere gabe, bizia eder zitzaigun. Ikasteen bezala, neskaketa lagun izan ginen. Bekatuaren zentzurik gabe genbiltzen. Jurdaneko profeta eta haren paulotar ikasleak antzara ferratzera bidaliak genituen aspaldian. Saint Germain des Prés eta Bretainako nere neska lagunak ezagutarazi nizkion; harek neri euskalduntsak, eta, gehienik, Alemantsak eta Netherlandeko neskak...

«Les Sociétés Savantes» hotel zikin zaharra lurrera botatzen ari dira... Denbora batean «Druiden Eliza paganoak» hor izan zuen bere hegoitza; lehen burua Morvan Marchal zen, ni Bard-handi laguntzaile eta Jon Mirande Gutuatra zintzoa zen... Ostirale guziaz han biltzen ginen keltiku egiak sakonki sarrerazteko. Gure biltokia Pio V-garrenaren mezaren ihakina zen, asma-tutako keltiku zahar, kymreg (gales), brezoneg (bretoin) hizkuntza zatiekin. Rober Mercier «Brennos» kazetaria zen gure ovata; harekin beti adiskidantza galernatsua izan dugu. Ez zitzaion druida soinekoa jaunztea gogoko; gure elizkizunen gibelean sakrilegiu bat bezala sentitzen zuen, eta ez zebilen guziz erraturik, Marchal, Jon eta nik asmatu azken benedikzio-neak keltiku zahar makarronikuan honela erraten baitzuen: «Forti estos etic forton suou matron, meion ueketen more». Gure iniziatu adiskideei aitortzen genien esan nahia: «aluak zarete eta zuen amaren alua itsasoa baino sakonagoa da».

Klerikal enpresa guzietan bezala ohi den diru-bilketaz kanpo, bigarren bilketa «hauzoko txiroentzat» egiten genuen, eta Marchal «Artonouios»-ek: «Anaiok, txindiari hots atera iozue» ziola, denak druidesa pollit bati beren kadirak ordaintzera behartuak ziren. 1901-eko legearen arauera, zuzenki deklaratu taldea ginen eta talde joria, zeren Brennos-ek 450 liberatan Saint Ouen-eko merkatuan erosi ezti-ardo pittarra bat, liturgia saildian sagaratu hidromel bezala 900 liberatan saltzen genien gure sinesleei. Hala, burutzen genuen esanaz: «Zoazte, Lugus-en irakastera erresuma guziei»; gero druida artzain guziak ikusten ziren hauzoko ostatuan asetzen, sineskorren osasunean. Ez ote Voltaire horren idazlea: «Lehen artzaina, lehen zozoak lehen maltzurra topatu duenean sortu da». Halere, sinesle asko genuen, beti eskatzen gehiago.

Mirandek bazituen apika susmo eta desio ilun batzu, behinolakako paganismoa berriztuko zela Euskal Herrian. Ikus **San-guis Martyrum**, «europar sinhesmenagatik bizia eman duten Euskaldun sorgin, azti eta belhagileen orhoitzapenetan». Desioak. Herri honetan, ordea, sarri nahastu izan dira desioak eta errealitateak:

Zinez alpherrik hil zaretea?
Galdu zarete orozbat?
Ezin da... ezen zuen odola
date pagano-hazi bat.

.....

Belhaunik belhaun zueri esker
da begiratu azkarra
geure leinuak asmaturiko
theologia zaharra.

Zuen arima Gazte-Lurrean
kontsolaturik daudenei,
arartekotzat harturik eta,
egiten diet egun dei.

Zuen bitartez hunki ailitza
zorioneko egoitzak
Ortzi-Thor edo Akher Beltzari
nik dagiodan othoitzak:

Zu, eta bertze jainkoak ere
hor zinetenak aspaldi,
gure arrazak adoratuak
gizaldirikan gizaldi,

Mari Munduko, basajaun-jainko
okher jakitun osoa,
jainkosa zaintzen zenituztenak
ibaia eta basoa,

hil ez zaituzte gizon beltz hauiek,
lotan zaudete bakarrik;
gure bihotzak adi'tzazue,
jaiki zaitezte, atzarrik!

Baal arrotza ukhatzen dugu,
zuentzat berriz sagara
eginen dugu aldareetan
zathozte, arren! zain gara.

Etorri da paganismoa Euskal Herrira, bai. Baina sorgin eta
azti eta belagile gabe etorri da. Guziz prosaiko. Irudimenik
gabe sobera.

SORTALDE ETA SARTALDE

Ene herri on bakezalea,
eliza zuriz bethea,
Goizerritiko Jaungoikoaren
herri hautetsi maitea...
(**Sanguis martyrurum**)

Intentzio guziaz deritza Mirandek «Judu seme» Jesukristori. Kristautasunaz honela mintzo da:

Orienteko doktrina bat baita Khristautartzuna, hangotarrentzat egina; eta Europa hunetan erro hartzekotan, hemengotarren **Weltanschauung** bereiziari egokitu behar zaio, nahi ala ez. Europatarrek zuzentza nahi du, bai eta nuantzak; ezin har dezake... evangelielhetzat Goiz-erritarren enthelegu sorgorak kilikatzen dituzten dogma zehatz eta lazarriak.

Orienteko doktrina horren kontrast, «Europatarrok hain nezessari dugun paganismuaren guna» esijituko du.

Gorago Peillenek adierazi digun eran, Miranderen sinesmena euskalduna zen, ez judutarra. Europarra zela, esan genezake, ez Goizerritarra. Mirandek berak horrelaxe egin ohi bait du kontrastapena.

Mirandek hori bota dio kristautasunari: Orienteko doktrina dela, hangotarrentzat egina; eta antzinako euskaldunen gogo basa ahuldu, hobeki esan, irendu duela; «otso ginelarik, bildots egin gaitu».

Sortaldea (Goizerria) eta sartaldea kontrastatzeko era franko arbitrarioa. Europar garaitasunaren konzientzia viktoriano puska on bat nabari zaio Miranderi hor (sarritan halako keru arrazista ozpina ere hartzen zaio): sartaldea guren eta nagusi da, beste dena hutsa. Esan nahi da: biba gu eta gutarrak eta kuku beste denak. Mirandek, nolana ere, kontrastapen hau erabili giten du, tematizatu ez du egin. Beharbada uste zuen, Spen-

glerek bezala, kultura bakoitza izpiritu bere baitan hertsia eta isolatua zela. Hortan oso oker zebilen Spengler.

Ez du merezi kritikan hastea, baina komenigarri izan litezke ohar batzuk.

Oharkizun lehenengoa, nahasketa. Sartaldeko izpiritua basa eta sendo omen da eta sortaldekoa ahul. Halare sortaldekoak menderatu egin bide du sartaldekoa... Mirandek izpiritu basa, gogorra, maite bazuen (harrizko jainko baten izpiritua), ez zeukan, sorginak eta heretikoak —hots, etsaiak— erre eta kiskali dituen izpiritua maitatzea, besterik: izpiritu basagorik nekez aurkituko du. Baina orientala omen da... Mirandek ez dakit nola ulertuko zuen europar gogoaren basakeria eta nolatan hartuko zituen sorginak izpiritu horren espresiotzat; berak pintatu dizkigun xorgin lirain politek, nolana ere («Sorginen leizean/, lizun, bilhuts-gorri/, bilhoak haizean/, neska bat dantzari...»), literatura oriental guziz ezagun batetatik ez dirudite urrutiegi...

Oharkizun bigarrena, datuak edonola banatzea da, sortalde nahiz sartalde aldera. Sorgin eta heretiko erreketak zergatik oriental izan behar duten, ez da konprenitzen. Dogmak sartalde baino sortaldetarrago direnik ere ez. Dogmak eta dogmake-riak ezer orientalik badira, Erromatar Inperioa mesopotamio edo izanen dugu, seguru asko. Erliijoaren konzeptu juridiko eta erromatar tipiko batek sortarazi bait ditu, kristautasunaren kasuan behintzat; eta handik hara etorri dira heretikoen eta sorginen kiskalketak ere. Oso erraza da mundua konpontzea, gus-
tutzen ez zaiguna Oriente aldera bidaliz eta gustatzen zaiguna etxerako hartuaz. Tamalez, gaitz guziak ez dira Orientetik etorri, argi guziak handik etorri ez badira ere.

Mirandek egin duen sortalde/sartalde berezkuntzak, ez erlijio historian eta ez kultur historian dizu atarramenik. Ebakidura erraz eta haundi bat dugu, ezer ebakitzen ez duena, ura ebakiaz bezala deus berezten ez duelako. Izan ere. Miranderen berezkuntza, arrazoizkorik eta datuetan oinarriturik baino gehiago, polemiko da. Kristautasuna euskal izpirituari arrotz zaiola, kaltegarri zaiola, erakutsi nahi du. Guregatik, hori erakutsi

nahi badu, oso libre du erakustea. Baina, lehenengo, sortaldea —hots, ukazioa eskaini behar duena— aldez aurretik era txar batetan konprometatzen da, eta, gero, horrela ez da ezer erakusten, europar harrokeria besterik. Kristautasunari gaitzerizteko, sortaldea kondenatu beharrik ez dago. Kristautasuna ez gauza onik eta ez gauza txarrik da, oriental izateagatik, aldez aurretik oriental oro txar edo on deklaratu ez badugu.

Mirande, bere «etsaiak» konbatitzen dituenean, edozein posizio estremotatik aritzen da (abertzale demokratekin berdin egiten zuen). Hemen Sortaldeari arras uko egiten dionaren posiziotik konbatitzen du kristautasuna. Halare, harritzeko kritikak dira, Goizerriko kristautasuna baino, hein horretan, hagitx Goizerrikoagorik maite zuenaren kritika izateko: inork ez bait ditu gure artean Buda eta besteak hobeto ezagutu, maitatu eta zabaldu. Benetan harrigarria da, Mirandek, zer eta, oriental izatea, kritikatzeari kristautasunari.

Goizerriko izpiritu ahularen kontrast, berak esaten zuen moduan, europar izpiritu burrukaria, haundi nahia, nagusikoia, benetan maite bazuen, ondo erraza zuen, teknika, progresoa eta zibilizazioa, europar izpiritu garaiaeren produktutzat hartzea. Nagusitasuna indar ekonomikoz erakusten da gaur. Haundi nahia progresoak erakusten du. Baina Mirandek estimazio oso guti egiten zion «esan-delako aurrerapenari». Goizerrikoegi genuen ausaz hortarako (5).

Mirandek «parapsikologiak ikertzen dituen gertakarien alorrean barna» ikusten du batez ere sorginkeria. Hots, ez gertakaria sozial edo politiko gisa. Eta ohartarazi digu: «balio luke ikertzea zerengatik sorgin omen zirelako metagnomos horiek

(5) Goizerriko edo Sortaldeko erlijioen kontu honek arrakasta handia izango du bolara batez Euskal Herrian. Krutwig aipatu behar, Mirandekin batera, haren poesiak behinik-behin: «Karma hemen bethetzen dugalarik / Kosmosko abysmu huntan gabiltza / lilurazko kate batez zintzilik», esaten zuen Krutwigek **Nibbana** poesian. Orobat Txillardegik 1960-gnean Luis Mitxelena egin zion kritika joera honi —edo ilusio honi— ikus daiteke haren **Idazlan Hautatuetan**, ETOR/GERO 1972, 337-340.

herrialde zenbaitetan besteetan baino ugariago agitu edo agitzen diren mendeetan zehar: Euskalerrian... eta, batez ere, Goi-Asiako eremuetan, Tibet eta Mongoliako buddistasunari bere kutsu berezia ematen diotenak hango **xaman** eta **beki** deritzaien mago famatuak baitira». Horra, Miranderen eskuetan, Euskal Herria eta Goizerrria elkarren bila... Bildur naiz, Miranderi kristautasuna gutiegi oriental zitzaiola, ez gehiegi: horixe izango bait da, kristautasunari Txillardegik berehala egingo dion kritika, ik. **Kristautasuna eta mundutar garaitzapena**, in «Huntaz eta Hartaz».

Beharbada ez dakigu oraindik, zein problematiko den giza birtuteak kontinenteka banatzea, sortaldera eta sartaldera. Eroapena, bihotz beratasuna eta biguntasuna, bakezaletasuna, eta besteak, sortaldekoak izango dira: sortaldean aurkitzen direnean; odol-gaiztoa, indarkeria, krudelkeria, satrapia eta «despotismo asiaticoa» ere sortaldekoak bait dira. Asisko San Franzisko, berriz, sartaldekoa genuen; Borgiatarrak bezalaxe.

Badut susmoa, kristautasunari Mirandek oriental deritzaionean, egiaz beste zerbait esan nahi liokeela: judegu, alegia.

GIZAGAINDIKO ETA GIZAPETIKO IZATEAK: TRANZENDENTZIA

Badago fenomeno bat aldi honetan, aurreko hazaldiarekin eten eta hastapen berri bat abiatu aldi honetan, ez dakit justu nola izendatu, «misterioaren defentsa bigarren planoan» esan-go nioke.

Arazo honetan, Mirande ezezik, Mirande osteko Autore asko biltzen dugu: Txillardegi, San Martin, Aresti, etc., lehenengo «uhin berri» gehiena, iruditzen zaidanez. Beraz, inguruminguru luzatzea komeniko da, beharbada.

Hasteko, dato simple bat daukagu: aurreko idazle guziak kristauak ziren; orain idazle belaunaldi ez-kristau bat hasten da, kasi kolpe batetik. Mirande lehenengo. Lehenengo ohar-

tzekoa, bat-bateko talde agertaldia da, hortakoz. Fenomeno berri bat daukagu; eta talde guzi bat ageri zaigu hasieran bertan.

Orixe bat naturaltasun guziz konformatzen da misterioaz. Gizonaren bizitzan, arnasa hartzea edo loa bezain naturala da misterioa. Bere leku jakina du. Misterioa, egon dagoen gauza bat, da; gizonaren esistentzian, objetibo da; horrek ez du bueltarik, horrekin bizi beharra dago. «Gure buru argiz utsez garbitu ez ditzakegun auziak aski dira, misterioz kanpoan ere. Bizi gaitezen pakean al degun artean». Orixen misterioarekin bizitzera jarrita dago.

Baina hori ez da misteriorik badagoela aitortzea bakarrik. Orixek —esan nahi dut, haren hazaldiak— misterioan indar eta atsegin hartzen du. Misterioa positibuki mami jakin batez hornitu du. Misterioak badu eginkizun jakin bat gizonaren bizitzan.

«Badira auziak —esan zuen Orixek— asieratik ezin garbituzkoak ezagutzen ditugunak. Zertako asi oiekin buru-ausketan». Eta ez zen ohartzen, berak onartzen zuena, ez dela, misterioa badagoela, ezpada bai, buru-hausketan makina bat ibili ondoren emandako misterioaren esplikara jakin bat. Esplikaera hori, gaur eta hemen, tradizio indarrez eta, onar liteke buru-hausketarik gabe; baina esplikara bera ez da, berez, buru-hausketa gabekoa.

Misterioaz hitz egiten dugunean, ia beti, soluzioren bat onartuaz egiten dugu. Misterioa, zer den misterio, esaten den unetik, hitzetan formulatu den puntutik, nolarebait misterio esplikatua bait da. Misterioaren soluzio guziak, ordea, hipotetikoak dira; eta beraz, misterioaren formulaerak berak ere hala-koxeak dira.

Katoliko huts (?) diren herriotan, alternatiba itsusi bat jartzeko joera bizia dugu kristauok: edo **nire** misterioa onartzen duzu, edo misteriorik ez duzu batere onartzen. Eta hori ez da egia.

Esplika nadin (ilunago): misterioa onartu, «toleratu», nik uste, gizonaren mugapenak aitortzen eta haintzakotzat hartzen

dituen edozeinek, onartuko luke, onartu beharko luke, negative. Agnostikoak onartzen dizu misterioa. Esplikazioa ez dizu onartzen. Mugak onartzearen ondorio soil da. Mugak onartze honek, ordea, oraindik ez du signifikazio berezirik, ez du konsekuentzia batzuetara obligatzen. Misterioa positibuki inola formulatu den unean, misterioa ez da toleratu eta aitortu bakarrik egiten, ezpada, segun eta nola formulatzen den, misterioak sentidu bat hartzen du esistentzian. Ez du Orixek onartu bakarrik egiten misterioa (negatibuki, ondorio jakinetara obligatu gabe oraindik), baizik eta misterioa era jakin batetan ulertuta onartzen du. Era kristauan ulertutako misterioa, denok dakigunez. Baina budistek ere aipatzen dute eta onartzen dute misterioa.

Miranderen ez-kristautasuna ez bait da **ez** hutsa, besteak diren zerbait ez-izate hutsa. Aitzitik, Miranderen **ezak** esanahi guziz positibua du.

Esplikazio hau beharrezkoa da Mirande ongi situatzeko. Mirande bezala beste Autore asko.

Aldi honetan hau daukagu, iru sail modu euskal gizartean:

1. Gehienak, Orixek bezala, misterioa onartzen dutenak, misterioa era jakin batetan, modu kristauan, konprenitzen dutenak, eta, beraz, misterioa nolabait esplicitatuta daukatenak funtsean: **sentidu jakin bat aitortzen diotenak.**

2. Beste muturrean, geroz eta jende gehiago, misteriorik ukatuko ez dizutenak, baina misterioari **sentidurik aitortu nahi ez diotenak**, eta, gainera, **misterioaren esistentziari kasurik egingo ez diotenak.** Inmanentzia hutsetan gelditu dira, beren ustez behinik-behin. Praktikan halaxe jokatu nahi izaten dute.

3. Hirugarren sailtxo batetan, ez dakit zenbait jende ibiliko zen, idazle sailtxo bat behintzat hemen aurkitzen dugu, uhin berri hartako idazle inportanteenak hain zuzen: beste bien arte zailean dago talde hau eta bien kontra. Ez dute onartzen misterioaren

ulertzeko era kristau jakina: hein horretan gutienez agnostiko dira; batzuetan —adibidez, Mirande— kristautasunaren etsai ere bai; edo kristautasun tormentatu bat bizi dute. Baina ezta ere, ez dute onartzen, gizonak misterioaren problema abandonatzea. Badakite, misterioari erantzun jakinik eta zihurrik ez dagoela (arrazoimenaren arabera zihurrik). Beraz, misterioari berari sentidu beharrezko eta jakinik aitortzen ez badiote ere, **sentidurik aitortzen diote misterioaren problemari**; kezkatzeari, bila ibiltzeari, bizitzaren sentido baten alde erabakitzeari.

Beraz, bihurri samar, baina guti-gorabehera hiru sailok honela defini genitzake: 1. sinestunak, zer sinesten duten, dakitela; 2. deus ez sinestunak, ezer ez dutela sinesten, dakitela; 3. sinesgabeak, sines-PEN edo sineskizun jakinik ez dutelako, baina sinets-zaleak halare, sines-TEAN, sinesmenean, gizonaren gizatasuna positibuki agertzen dela, bait deritzate.

Lehenengo biak sinets-objetoari buruz, sines-KIZUNARI buruz definitzen dira: onartzen da ala ez da objeto hura («jainkoera» hura). Hirugarrenak, objektoa alde batera utzirik, sines-TUNARI buruz definitzen du bere burua: gizonak, zer sinesten zuen aparte, sinetsi egin du historian zehar; eta **sineste** horretan gizatasun alderdi positibu bat agertu da, gizatasunaren desarroilo positibu bat ikusten da.

Hazaldi literario honi ebidente samar iruditu zaio, apika, kristau sinesmenak sentidu askorik ez zuela. Orduan, posibilitate bat, sinestea uztea da, batere ez sinestea. Hazaldi literario honek ez dizu hortik joko. Aitzitik, **sinesteak**, halare, zein inportantzia duen eta balio duen, kristauek berek ez bezalakoxe apologetika egingo digute.

Beraz, sinestunen nahiz ez-sinestunen aldean, Autoreokin trasposizio bat daukagu. Haiek, **zer** sinesten den, preokupatzen dira, baitesteko ala ezesteko: batzuek, sinestea naturalizat emanik, zer sinesten den, preokupatuko dira; besteek, ezer sinesten bada, sinesten dena, beti tontakeria dela, eritzirik, sinestea

bera zozokeriatzat emango dute. Besteok, aldiz, sinestuna, sinestera datorrenean, zergatik eta zertan ari den, begiratzeko dute: pertsonak axolatzeko ditu eta ez harek aurkitu uste duen Jainkoak ala ez-jainkoak. Tontakeria bat sinestera heldu bada ere, sinestera heldu dena, eginbehar positibua batetan aritu da. Problema batzuei erantzun beharrean. Beraz, inportantea, pertsonaren problema da; inportantea, pertsonak, bere buruarekin dituen arazoak, seriooki tratatzea da.

«Jainko gabeko izpirituzale» bat zela Mirande, esaten digu Peillenek. Honela konprenitzen da hori.

Autoreok, ba, alde batetik kristautasunaren kritiko badira (hortan diferentziarik badago Autore batetik bestetara), beste aldetik «deus ez sinestun» are kritikoago dira. Sinestea gizonaren aberasgarri dela, uste bait dute.

Nola kontsidera liteke sinestea, zer sinesten den bazterreratik, gizonaren aberasgarri?

«Gizonaren problema» Txillardegik esaten duen horrek, biziki kezkatzen ditu Autoreok; «bizierak sentidurik duentz», esplikatu dizu behin. Beharbada erantsi behar dut, heriotzaren sentidua ere problematika hortan sartzen dela. Hori da gizonaren problema. Eta erantzunik ez du sinesteren batekin izan ezik. Problema hori, ordea, planteatu beharra dauka gizonak.

Huntaz eta Hartaz-en «bi munduez» mintzo zaigu Txillardegik. Bata, **lehen mundua**, «danok ikusten eta ezagutzen dugu, eta estadistiketan eta mundutar kondairan agertzen da». Bestea, **bigarren mundua**, «beste planeta bat, beste izate-maila bat: Olerkiarena, Artearena, Trazendentziarena; bestea bezain egiazkoa, bestea bezain **errealista**. Eta bigarren mundu hunen zantzurik ere batzuk (gehiegik) senditu ez badute ere, mundu hori badago».

Mirandek «zentsupereror ditekenean» mundua, esango dio lehenari; bigarrena, izadigaindikoa, «Jakintza gorago» batez bakarrik hauteman liteke, eta bihotzaren bidez bakarrik uler liteke, Kondle Gorriak ulertzen duen gisa (ik. **Gizalekoreko izateak euskaldunen eta kelten folkloretan**).

«Sagaratuaren sena erauzi nahi da!», protestatzen zuen Txillardegik. Eta oraingo gizonok lehenagokoekin alderatuaz:

Lehengo gizonak, zibilizatorik ez zuelako, Naturalezarekin buruz-buru zituen hartu-emanak. Bere kezak eta atsekabeak Naturalezarekin edo Izadiaren aitzinean senditzen zituen, eta horregatik, jakinduria txikia eta teleskopiorik ez izanagatik ere, bazuen Jainkoaren ikutua (edo Mugagabearen, edo Ezerezaren sena).

Gaurko gizonak, aldiz, zibilizazioak, eta gizadiaren kopuruaren emendatzeak beraz, Izaditik alderagiten diolako, jakinduria haundia eta radio-teleskopioak izanagatik ere, ez du Absolutuaren ez sena eta ez egarria. Eta haunditasun-seinale dauka hau... (6).

Beraz, lehenagoko gizonak bazuen «sen» berezi bat galtzen ari gara; errealitate galtzen ari gara, izpiritua lehortzen eta agortzen edo ari zaigulako. Orain ez da Basajaunik eta lamia-rik agertzen: barne begiak itsutu zaizkigulako, esango du Mirandek.

Aldi honetako kezka larri bat haxe izango da. «Gaurko gazteriarik gehienak zirkin egin dio problema honi, baina bizitzaren arrazoi nagusia hor gelditzen zaigu erabagitzeke. Inork ez daki egiaren berri. Lehen erlijioak bazirudien segurantzia osoa zuela; orain berriz ez da zalantza bagerik», idazten zuen San Martinek.

Bai Txillardegi, bai San Martin (eta ni neu halaber) Unamunozaleak ziren hein horretan.

Idazleok deitoratzen dutenez, errealitateek zanpaturik edo mozkorturik, galtzen ari zaigu bigarren mundua, gizonaren problema: «bizierak sentidurik duenentz», «bizitzaren arrazoi nagusia». Eguneroko preokupazioetan murgildurik, ezin arnasarik hartu dugu; inguru guzietan sakabanatuta gabilta, axalik axal,

(6) Txillardegi, **Huntaz eta Hartaz**, or. 86-87 eta 105-106.

astirik ez dugula geure barnera jeisteko, bizitzaren sentiduaren problemarekin konfrontatzeko. «Errealismoak» murrizten eta begi lausotzen eta barne kaskartzen gaitu. Ahaztu egin gara misterioaz.

Baina —horregatixe esan dut misterioaren defentsa edo hau «bigarren planoan» egiten dela eta hori berriro azpimarkatu nahi nuke —hori dena ez da esaten, misterioa bera edo sinesmenen bat defendatzeagatik; eta ezta, beharbada Unamunok egiten zuen moduan, norbere arazo gisa planteatzen ere, gizartea defendatzearren eta guziekiko problema bezala baino. Gizartearen gaitz eta alienazio bezala planteatzen da. Gizartearen izenean defendatzen da bigarren mundu delakoa. Beraz, ez da, Txillardegik, edo San Martinek, edo —gure kasuan— Mirandek, besteek sentitzen ez duten min bat sentitzen dutela eta alarmatzen direla, kolektibitatean «aparte» kausitzen direlako. Holakorik ere egoteak ez dio orain inporta. Ezpada, kolektibitatea izpiritu pobretzen eta axalkortzen eta kaskarintzen ari delako alarmatzen dira. Izpirituak sakontasuna galtzen duelako gizarte bizitzan.

Problema ez da, beraz, kolektibitateak ez duela ikusten berek badakusten zerbaít; problema da, kolektibitateak orain, iadanik, ez duela, lehen kolektibitate berak —gizonak— ikusten zuena, ikusten. Itsutzen ari dela. Barne galtzen.

Lehen hain ugari izanik, gaur egun ia inork ez badu laminik topatzen, hori ez ahal da Ohiturazaleek (Tradiziozaleek) aipu duten «munduaren gotortzeak», munduaren aurreratzeak, ekarritako ondore bat?

Aldi honetan, ezertan ez bezala insistitzen da, gizona bere gizontasunean, herria bere herritasunean, sakonki finka dadila. Zindotasuna, autentikotasuna, zinez norbera izatea, garai honetako moral kodesean punta-puntan agertuko da.

Bene-benetan ohargarri dugu hauxe: harrigarri ere bada, euskal literaturan agertzen den lehenengo idazle belaunaldi ez-kristauak, sinesgabeak, hain zuzen, sinesgabeziaren defentsarik

ez, baino Tranzendentziaren defentsa apasionatua egitea... Ez ote zuten ikusten Tranzendentzia aski kristautasunean? Zer da gure kristautasuna? Beharbada, kristautasunak ez zion erantzuten, esan dugun sentidu bilaketari eta autentikotasun premiari. Handik hara sortu bait da Autoreon Tranzendentzi defentsa (7).

Hau dena ez du Mirandek, aldi honetako beste Autore batzuek haina, tematizatu. Baina azpi-azpian beti hori presuposatu behar da Mirandek irakurtzerakoan. Beraz, Mirandek ipuin zaharrak maite baditu, euskal mitologia, lekura dezagun hori bere lekuan; aldiko problematika orokar honetan. Literatur eta pentsamentu aldi haren ezaugarri arrunt bat hori bait da (8).

Ez da artistakeria, gutiago folklorekeria, eta ezta ere —esango digu Rikardo Arregik— «esentzialismoa», geroxeago hitz «terrorista» sonatu bat izango bait da hori, Mirandek herri mitologia maite badu: «gure herriaren arima ezagut dezagun», asmoa berak aitortuko digu; eta bakoitzak geure arima ezagut

(7) Arrabotsik atera zuen franko, kristautasun moderno baten kontra Txillardegik egin zuen Tranzendentziaren defentsak, ik. **Zalantzatan dagoen apaiz horri**, in «Erilijioa hauzipean», JAKIN 1971, 209-215.

(8) Problematika hau puntu gehiagotara zabaldu beharko genuke, belaunaldiaren oinarritzko problema dela, agertarazteko. Era berean, gure hizkuntza elbarri, txiro, hustu, alienatua, ezaguturik, hizkuntzaren «sustrai bila» joko bait da; euskaldun bezala, orobat, alienaturik eta barne husturik sentitu gara, eta euskalduntasuna zertan datzan, sustrai bila, ibiliko gara. «Hautasuna galdu nahi ez badugu —idazten zuen Rikardo Arregik—, eta besteretzea hautasunaren galtzea litzake, gure jatorrira itzuli behar dugu, oroimen kolektibua hautsi gabe jardun behar dugu. Aspalditxo batean, Oteizaren **Quosque tandem!** liburua irakurri ondoren, 'esentzialismo' hitza aipatuaz itxiko nuen, eta kito. Egun, berriz, hori egin aurretik aztertzen saiatuko nintzake... Izan ere, egun, Herrien hautasuna, identidade printzipioa, arazorik nausienetako bihurtu da. Hortik dator sustraietara itzultzea». Gero Pio Baroja eta «jentilismoaren tentazioa» aipatuko ditu, «jentilismoa, euskaltasunaren manifestazio jatorra bezala —kristautasunera baino areago— birbaliatu nahi duena. Joera hau, batez ere, indartsu da artisten artean», ik. **Kalekumeon ordua eta jentilismoaren tentazioa**, in «Rikardo Arregi», JAKIN 1971, 164-165. Gogoan izan bedi, Oteizaren aip. lib. 1963-an agertu zela; hemen darabilgun Miranderen artikulua 1952-an. Bide batez, Orixeren **Euskaldunak** 1950-ean argitara zela, gogoratuko dizut.

dezagun, erants zezakeen. Sustrai bila. Eta edozeinek konpreni dezake, zergatik hazaldi harek nahitaez ibili behar zuen sustrai bila.

Lehenik, abertzale folkloristen aurka bihurtu da Mirande: «elezahar horietan bait dago Euskal Endaren egiazko folklorea eta ez bakarrik Pernando Amezketarraren ipuinetan, edo pilota, fandango, mus eta beste baskokerietan».

Nik ez dakit, Mirande zuzen ote zebilen, euskal arima, euskal jatortasuna, hizkuntzan edo baino gehiago, ipuin zahar horietan plasmatu dela, uste zuenean. Nolanahi ere, oso oker behintzat ez zebilela, adierazten duten, hitzok esan dizkio Barandiaranek, hogeitau urte geroago, Martin Ugalderei:

El vasco ha guardado a través de los tiempos y de las influencias su propio y original sistema de valores... Este sistema de valores, basado en la mencionada concepción del mundo y del hombre, es el elemento más importante de una etnia, porque es el más característicamente humano.

Gero, ordea, errealitate moderno itogarrien aurka ere bihurtu da Mirande: «bigarren mundua» gabeko moderno «errealista» alienatuaren kontra:

Jenderik gehienak, ordea, begirik ez du gizagaindikoak ikusteko, gizakumeen lur honi eutsiegi izaki.

Antzinako gizonak bazuen «bigarren munduaren» sena eta, oraingoak somatzen ez dituen, gizagaindiko eta gizapetiko errealitate sakonak nabaritzen zituen. Lamiak ikusiaz, adibidez. Aralarko Maitagarria, Basajauna.

Galduz doa hori dena. «Behar bada ere, gure nausi tenporal eta izpiritualek indarrez erautsi bide zituzten Euskaldunen gogo-bihotzetatik paganu-usain gehiegi zeukaten herri sinespenak...»

Bestalde, mundu tekniko batetan bizi gara, Atomo Fisikaren garaian, «gizakumeen lur honi eutsiegi izaki», izadigaindi hartan sinesteko.

Zientziak ere badu parte «bigarren munduaren» galera honetan, ez bait du lehenengo mundua baizik aztertzen. Ez aztertuz, ez ukituaz, ezta ikusi ere eginaz, bigarren mundu harek errealiterik ez duela, pentsarazten digu:

Oraingo jakintzaren aita dugun Descartes, eskolastikuen metafisikari aitzi oldartzen ikusten dugu eta, haren ondotik, 'argi mendeko' frantses jakinzaleak. Adimen jauresle haiek, zentzupera eror ditekeena bakarrik dute egiazat hartu nahi. Izadigaindikoa ukatzen dute zeharo...

Osteak, urrundik bada ere, gizon haundiari jarraitu ohi zaizkio. Beraz, ezkutapenetan sinestea itzaltzen da gizarte maila oroetan.

Sorginak bezala itzaltzen dira giza-irudimenetik Europar folklore guzietan aurkitzen ditugun gizagaindi edo petiko izakiak... eta edozein izadigaindikoarenak egin iduri du...

Mirandek beste Autore batzuek baino gutiago insistitu du, sines-TEAK duen inportantzia; alderantziz, Txillardegik eta baino askoz gehiago, zer sinestearen inportantzia. Sinesmenak, bakoitza bere lekurako dira: Sortaldeko sinesmenak Sortalderako, Sartaldekoak Sartalderako. Euskal Herrirako, bertakoak. Kristautasuna ez da bertakoa.

Baina zein zen antzinako euskaldunen sinesmena? Zer sinesten zuten? Mirandek ez du nahi euskal mitologia gutiets dadin: gure mitoak «ez dira, oro har, beste zein nahi sartalderar herritakoak baino gutxiago edo gutiesgarriago». Inportantzia haundia eman nahi lieke: «ikertzaile zenbaiten ustez Harriaroraino garamatzatenaz gero». Baina egia horixe da: barnean Euskal Herriko berezi-berezi den mitorik, apenas ezagutzen dugula. Tankera indogermaniko arruntza hartzen diegula.

Horregatik edo, euskal sinesmenaz baino gehiago, «europar sinesmenaz» mintzo ohi da Mirande, europar sinesmena

oro bat eginaz. Ez dio molestutzen, haritza kelten arbola sakratua izatea; oso posible iruditzen zaio, euskaldunek giza-sakrifizioen ohitura batzu keltei ikasi izatea (**Berterretxen kantuz oharpen bat**); ederki, euskaldunek eta keltak lamia sineste berdintsuak izatea... Baina, kontu! Sartaldeko sinesteak direla, esatea ez du ahaztuko: «laminek ez dute izenaz beste ezer ikustekorik Phrygeiako Erreginarekin: Sarkalde-Europako kultur-oboan jaio eta haziak ditugu dudarik batere gabe». Hori inportante da...

Euskaldunon sinesmen jatorra europarra da. Zerbait gehiago? Europa barruan berezitasunik ba ote duen gure fedea —beraz, gure arimak, guti-gorabehera —ez dut ikusi, Mirandek inon argitu duenik. Beharbada, geu eta keltak eta beste gutiren batzu gelditzen garelako soil europar jatorrik...

Eta zer ziren, izan, antzinakoek ikusten omen zituzten, zinez sinesten behintzat zituzten gizalekoreko izate horiek —gizagaindikoak eta gizapetikoak, alegia? Mirande materialistez eta antropologoz burlatzen da, kausa natural sinpleetara bihurtzen bait dituzte sinesteok. Miranderentzat «egiazko munduaren», bigarren munduaren (egiaz lehenengo eta egiazko mundu bakarra dena) agerkunak dira. Gure errainu mundu honen «bestaldea» ikusten zuten, nolarebait, gure aurrekoek, lamiak eta ikusiaz.

Munduaren «bestaldea» justu zer den, ezin esan dezaiguke Mirandek, hori bidezko da. Mundu honetan gabiltzaino, ez da aurpegiko bi begiokin ikustekoa. Gogoaren begiek bakarrik ikus dezakete bestalderaino, gorputzaren edo materiaren mugak iraganik.

Hemen Mirandek bi gauza ematen ditu zihurtzat. Lehenengo, munduaren bestalde hori badagoela; zernahi ere den, izan. Eta, bigarren, giza gogoak, zenbait baldinkizunez behintzat, ahalmunik baduela bestalde hura nolabait atzemateko. Ez, noski, arrazoimen bidez eta logikaz eta neurketaz; baina:

Beste jakintza gorago batez baliatuz, izadi eta gizagaindiko zerak «ikus» ditzake, barne-begiz; ezen,

ene irakasle ohi batek nonbait idazten duen bezala hainbat erizten diogun Mundu ikuskor eta ukikor hau ez da egiazki bizi den Munduaren errainua, errainu ahuldu bat baizik».

Euskal mitologian agertzen diren balioez eta baliogo sistimaz, oso guti mintzatu da Mirande. Beharbada Miranderi ez bait zitzaion interesatzen mitologia bera, den bezalako mitologia gisa, geurea mitologia horixe dela baino.

Euskal mitologia defendatzen duenean, «gure herriaren ari-ma» defendatzen du lehen-lehenik, «euskal endaren genioa». Deribazioz mitologia. Hori bait da:

geure leinuak asmatu-
theologia zaharra.

TRANZENDENTZIAREN ESPERENTZIAK: SORGINKERIA

Mirandek euskal «theologia zaharrik» aipatu badu, ez da metaforatan ari. Egi-egiaz euskal sinesmen jatorra, paganoa, euskal teologia gisa ulertu nahi du. Euskaldunen tranzendentzi esperentzia berezi gisa.

Zeinek egin du teologia hori?

Miranderentzat sorginak euskal «aphez-eme ahalak» eta euskal fede zaharraren martiriak dira (**Sanguis Martyrum**). Oraingo edozein apez edo sinestun bezalaxe, lurtar huts, noski. Gero, herriak edo, gizagaindiko izaki bihurtu ditu, mitologian integratuaz:

Julio Caro Barojak... zuzenez ohar-erazten du Euskalerriko sorginak ere, Gaztelakoez eta El-Andalus-ekoez bestela, ez zirela soilki azti ala mirarigile, baina oroz lehen mitologia baten begiratzailer, jainko eta jainkosa zaharren apez edo ema-apezak izan balira be-

zala; eta azkenekotz, ulergaitz ez den birraldakuntza baten ondorioz, berak gizagaindiko izate batzu izatera heldu direla, gure Zuberoa herrian ni ere konturatu naizenez...

Arrazoi edo itxura bat behintzat badago, Mirandek uste duenez, herriak sorginok gizagaindiko izaki bihurtzeko: alegia, dohain bereziz dotatuak izan ohi zirela. Mitologiara altxatze horrekin, herriak sorgin haien dohain boteretsuak zinezkoak zirela, dokumentatu du.

Zendu zirelarik eta «bestaldean» bizi edo direlarik, sorginok badira oraindik zerbait: martiriak direlako edo, Mirandek arartekotzat hartzen ditu, guziz tradizio kristauaren arabera, Orzi-Thor edo Aker Beltzari otoitz egiteko. Adierazpide poetiko soila izan liteke. Baina aldera, Mirandek, **Haur Besoeta-koa-n**, adibidez, hil eta gerozko bizitzaz agertzen dituen bururakizunez.

Hemen, gauza harri bat... Badira kristau martiriak. Kristauak persegitzea Jaungoikoa persegitzea dela, esan ohi dute kristauak. Baina San Esteban martiri hil bada, esate baterako, ez da esan ohi, Jainkoa hil zaigunik. Beti ere poesian, baina Mirandek esaten du, sorginak plazetan errauts egin bazituzten eta orain haien sineslerik ez badago gehiago, hil egin direla Orzi, Mari Munduko, Basajaun-jainko eta ibaia eta basoa zaintzen zituzten jainkosak. Hobeki, hil ez dira egin: lotan daude bakarrik. Baina hil, sorginak ere ez dira hil: Gazte Lurrean kontsolaturik daude haien arimak. Ikusiko dugu heriotzaz Mirandek zer pentsatzen duen. Gogoangarri zera da: adoratzaileek eta adoratuak patu berdina eramaten dutela. Adoratzaileak bizi direnean, adoratuak bizi dira. Adoratzaileak lo daudenean (hots, hilda), lo daude halaber adoratuak. Harria da hori. Miranderen jainkoen «objetibotasunaz» edo zertsu izan litekeen Miranderen «jainkoa», geroxeago ihardungo gara. Bakarrik, beti ere inportante da, Mirandek hain sarri sorginak eta euskal jainkoak eta euskal teologia zaharra aipatu badizkigu, bere testuinguru sakona duela guzi horrek, ez ahaztea. Ikus dezagun, **aurrenik**,

Miranderen sorgin apez-emeok zer diren, jainkotasunaz hain erlazonaturik agiri zaizkigunez gero.

Sorginek inportantzia haundia dute Miranderen erlijio us-teetan. Zuk, jakina, irakurle horrek, modernoa eta libururik irakurria zara, eta ez duzu sorginetan sinesten, beharbada zure aitak eta amak oraindik eta zihur amonak sinetsi bazuten ere. Agian maite dituzu, baina, sinetsi, ez dituzu sinesten «ipuin» horiek... Egoera txarrean gaude Miranderi ulertzeko.

Hasteko, gauzatxo bat: nahi badugu eta ez badugu, euskal historian, eta erlijio historian bereberki, sorginen arazoa puntu larrietakoa dugu. Mirandek, besterik ez bada, fenomeno horri benetan zor diogun atentzioa eman dio eta ez da guti.

Miranderen sorginak ez dira atsozahar itsusi, okotz morkots, sudur makorik. Lirain politikak dira:

Sorginen leizean,
lizun, bilhuts-gorri,
bilhoak haizean,
neska bat dantzari...

Oi zu neska lerdin
oin-beso arinak, etc.

Badirudi, Zuberoako berak esan duen ohiturari jarraiki, Mirandek sorginak eta lamia «pollit, adats horailak» parekatzen dituela, antzaren aldetik. Intentzioa bistan dago. (Badakigu, bestalde, Inkisizioaren aktetan sorginen baten edertasun paregabea konstatatu izan dela noizpait).

Akelarreak, orobat, jaialdi estetikoak dira, suaren inguruan, ez akerraren ospaketa zikin lazgarririk, ik. 1950-eko **Akelarre** poesia.

Poesiak aparte, **Sorginen Jainkoak** saio bat utzi digu Mirandek, sorginkeriararen apologetikatxo bat. Sorginak dira «girstinotasuna etor aintzin zeuden sineste eta erlijio zaharren begiratzailleak». Sorginok «ez zuten girstinoen eta juduen gaizkina edo deabrua jauresten, baina bai girstinotasuna aintzineko betakortasunaren jainko paganoa, aker baten irudian...; baina,

emeki-emeki, giristinoak hasi ziren Satanas gizon-aker baten itxuran ikusten». Gero akerraren egiazko sentidoa esplikatzen digu. «Uste izateko da, bestalde, gure sorginak, ez bakarrik Ortzi-Thor, baizik Jentilen pantheioneko beste jainko eta daimonak ere akelarrean jauresten jarraiki zirela... nahiz inguruko giristinatu berriak —aintzina jainko izate horien baitan sines-ten zutenak— Semiten Jainko bakarra jaurestera heldu. (Hala ere, askok badu sinespen zahar haien hondarrik, sinespen zahar horiek sekula ez baitira osoki galtzen)». Gero, haatik kiskalirik sorginak eta ahazturik antzinako jainkoak, «Goizerritiko Jaungoikoaren / herri hautetsi maitea» bilakatu da Euskal Herria.

Beraz, sorginak ez dira malefizio jende bildurgarri deaburik izan, zu eta ni bezalakoxe jende fina baizik. Bakarrik, sineste paganoetan irauten zutela. Beraz, Miranderen interpretazio arabera, sinesmen paganoko azken hondarrak genituzke, beste-rik ez.

Horrenbesterekin, zenbait aurreiritzi gaizto eta irudipen faltsu deseginik legoke sorginen gainean: alegia, sorginak atsozahas har itsusiak lirakekeela, gaiztaginak. Akerraren kulto zikina ospatzen zutela, etc. Pagano prestuak ziren eta kito (9).

Halare, azken finean, sorginak jende korriente eta normala izan zirela, erakustearekin, ez dugu gauza haundirik irabazi.

(9) 1282.an Alice Kyteler eskoziar emakumea «sorgingatik» hauzitan zebilen Tribunaletan, eta sorgintasun edo keria hura zertan zetzan, esplikatzen zaiou. Jesukristo ez beste Jaungoiko bat adoratzen omen zuela. «Sorginkerian» paganismoaren hondarrik hazegoela (uste edo ustekeria, kulto eta ospaketa —libazio, bazkari edo afari— ritual, etab.) M. Murra-vek aspalditxo material bilketa galantaz erakutsita utzi zuen: M. Murray, **The Witch-cult in Western Europe**, 1921. Erdi Aroan, duda gabe, kulto pagano asko zebilen Europan oraindik bizi-bizi. Kulto horietan «Jainko adardun» bat ere adoratzen zela, dokumentatuenetariko gauza da sorgin-kerian. «Jainko adardun» edo Aker hori, aldiz, Erdiko Europa guztian, Cernunnus izen keltikoaz ala beste zenbait izen diferentez, oso ezagun izandako dibinitatea zen (Pariseko Notre Dame-ko oinarrietan Cernunnus- en kultotarako aldare bat aurkitu zen; Numantziako keramika pintatu- en ere ageri da) eta kristauen deabruarekin ez zeukan batere zer ikusi-rik. «Jainko adardunaren» kultoa, Jentil Arotik Erdi Aroraino bizirik ailegatzea eta Erdi Aroan berriro zabalkunde dexente hartzea lortu zuen kulto hau, ekstasian egindako akto seksualak korotzen zuen, dirudienez: sorginkeria eta seksualitatea beti elkarturik ikusiko dira, eta ez Inkisizio

Horixe ere interesgarri izan arren. Mirandek beste zerbaitetan ikusten du sorginkeri fenomenuaren balioa: sorginak ez dira gaurko edozein teologo edo kristau fededun baino «euskaldun jatorrago», denboraz lehenagoko fedea praktikatzen zutelako soil; bai, ordea, Miranderen ustez, euskaldunaren erlijio sentiera berezko eta naturalari hobeto dagokiolako haien fedea, kristaua baino (orientala, semita).

Zergatik? Zer ziren sorginok?

Kapitulu bihurri batetan sartzen gara, batez ere orain sorginetan sinesten ez dugunez gero... Baina ideia oinarrikoak ikusiko ditugu, Miranderen ustekizunen batzu erlijioari buruz beren sakonean konprenitzeko. Haien testuinguru sakona eta oinarria bilatuko dugu.

Mirandek agian ez zuen lamietan edo Basajaunetan zuk baino gehiago «sinesten»; baina guziz benetan hartzen zituen lamia eta Basajaun ipuinak. Honez gero gehienok ez dugun errealismoz eta benaz. Eta «jakintza gorago batez» mundu honen tranzenditzeari eta izadigaindiko bestaldea «ikusteari» buruz, ustekizunen batzu bazituen batere ez ohizkoak. Arimak badituela tranzendentziaren esperentzia bakanak, iruditzen zitzaion. Esperentzia guziz errealistak.

Sorginkeri fenomenua konplikatua da. Batzuentzat «Erdi Aroko gizarte hierarkizatuari oldartzen zitzaizkion nekazari eta bertze proletari behartsu batzu ziren sorginak edo gogoa eri zituzten jende dohakabe batzu baizik ez ziren: histeriko, neurotiko, eta abar».

aktetan bakarrik. «Jainko adardun» hori, dirudienez. Ontasun/Gaiztake-ria berezkuntza dualista baino lehenagokoa da [Jainko-deabru, zeru-infernu, etab.]. h. d., on eta gaizto batera, edo bera Jainko eta deabru, eta, interesgarriki, bi aurpegidun, atzean eta aurrean, Janus Jainko erromatarren antzean (eta Pan Jainko grekoa batzuetan zuri eta bestean beltz den eran). Gogoan izan beharrezkoa da hori, Akerrari «atzean» mun egite espantagarri hura zuzen ulertzeko. De Lancrek albiste eman digunez, «Bertrand de Handuch... aagee de dix ans, confessa... que le cul du grand maistre auoit **un visage derriere** et que c'estoit **le visage de derriere qu'on baisoit**, et non le cul. Miguel de Sahourpse en disoit tout autant (...). Le Diable estoit en forme de bouc, ayant vne queue et au dessous **vn uisage d'homme noir**, ou elle fut contrains le baiser».

Interesgarriago da —jarraitzen du Mirandek— sorginek egiten zituzten «mirariak» —orduko hauzi-agiriei sinetsi behar bazaie— ukatzen ez dituzten beste zenbait jakintsuren pentsaera. Ez dute naski uste delako mirariak Debru txarraren edo gizagaindiko beste izaki batzuen laguntzaz egiten zirenik; baina, jakintsu horientzat, gogozko edo izpirituzko ahalmen berezi batzu zeduzkaten jendeak ziren sorginak, eta sorgintza, beraz, parapsikologiak ikertzen dituen gertakarien alorrean barna sartzen da: sorginek, beren nahi hutsez, edo erabiltzen zituzten droga eta gantzugailuen bidez, beren burua **trance** bezalatsuko izaera batean ezartzen zuten, eta orduan metagnomia, psikokinesia eta horrelako beste fenomenuek agertzen zituzten.

Ez da dudarik, herriaren ustetan sorginek ahalmen harri-garri haundiak bazituztela; «mirariak» egiten zituztela:

Betidanik eta herrialde guzietan izan dira gizaki batzu, jakite ezkutu baten jabe zirela-edo, izadi araeetatik kanpoko gertariak ekar omen zitzaketenak. Mirarigile, azti edo sorgin zeritzaien (**Jakintza berri bat: Psikologi gaindikoa**).

Horrelakoak ugariago izan ohi dira basatien artean eta Europan ugariago ziren antzina orain baino. Gutitze honen kausa izan liteke, alde batetik, dohain bereziaz dotaturiko leinuak Inkisizioak galdu egin zituela, jatorriz datozenak baldin badira dohainok behintzat. Bestetik, dohainok erabili ahal izateko baldinkizunak txartu direlako gizarte modernoan. Alabaina, oraindik badira holako mirarigileak, alegia, **mediuak**: «Horregatik omen dira ugari medium onak gaurko Polskan [Polonian]. Beste herrialdeetan mediuzez jende asko hil bide zuten Erdi Aroan, sorginak zirelakoan, eta haien enda hiltzer da; baina Polskan ez zen Inkisiziorik izan gizonak aitzaki horrekin erretzeko».

Ikusten ari gara, ba, sorginak pagano edo jentil zirela; bigarren, mirarigile zirela; eta, hirugarren, parapsikologiak aipatzen dituen mediuiak zirela, hots, ahalmen parapsikologiko bereziz dotatuak.

Ziur da azti eta sorginek benetan ekarri dituztela herrien «sineskeriak» aipatzen dituen zenbait mirari: izena sortu baino lehen medium izan dira soilki.

Mediuion ahalmenez ihardun aurretik, aipa dezagun apur bat, zein baldinkizun artean aritu ohi den arrunt medium bat. Sorginak medium direlako horri jarraituko gatzaizkio.

Sorgintza efektiborako baldinkizun gisa, bi xehetasun ohargarri daukagu sorgin ipuinetan: 1. sorginek edari edo janari bereziren batzu hartzen zituztela «sorgintzeko»; 2. ilunetan edo ilunabarretan ibiltzen zirela sorginak sorginkerian; edo ta, agertzen zirela Basajaunak, lamiak eta bestelako izaki gisak.

Bidezko da. Mediuiak egoera berezi batetan egon behar du, **trantzean** hain zuzen, medium gisa aritzeko, medium dohainak erabiltzeko; bestela gorputzak bere mugetan lotuta dauka izpiritua. Dohainek berek darabiltela mediuia, esan bait liteke; ez, mediuiak bere dohainak. Dohainok, ordea, ez dira gorputzaren azpitik askatzen eta eragikor azaltzen, gorputza nolabait sor ez badago. Horregatik, gorputz txarraldietan, eritasunetan, sortzen da sarri mediumtasuna: orduan izaten dira «esperentzia tranzendentalak»; horrela egiten dira «mirariak». Gutxi asko hipnosian egon behar duela mediuiak, esan genezake. Hortarakoxe ziren sorginen ritoak eta belar urak eta beste zerimoniak: «Haien sorgin-egintzak artez edo moldez mediumtasuna eratoritzeko dira; beharrezko den transa-egoeran sorgina jartzeko, edari mozkgarri bereziak irentsiz eta irudimena astintzen duten ohikunak ospatuz».

Izpirituak askatasuna behar du, gorputzaren eragozpen gabe, bere dohain bereziak libre ateratzeko; gorputza sor edo ahul dagoenean sortzen zaio askatasuna.

Basajaun mitoa ikertuaz, Labandibar jaunak, ez bait da sineskor, irritxo batez ohartu du, zein baldinkizunetan izan ohi diren Basajaunaren agerpenak. Mirandek ostera:

Labandibar jaunak dio: «...Por aquí se ve que el ir en ayunas al monte es exponerse a la aparición del Basajaun o de la Basa-andere...». Inakaz mintzo dela aiher naiz, alta egia da: barurak ere, soina eta soina-rekiko berjakintza sorgortzen dituelarik, gizona **transa** [trantze] antzeko egoeran jar dezake, zenbait aldiz. Orduan, beste Jakintza gorago batez baliatuz, izadi eta gigazaindiko zerak «ikus» ditzake, barne-begiz.

Edonola ere, izpirituak, egoera mistiko berezi horretan, hau da, berari dagokionez diharduenean, gorputzak lotu gabe, esperentzia tranzendental batzu izaten ditu.

Mediuma transan dagoela, bere gorputz, bere berjakintzaz ezaxolatzen da. Orduan bere berjakintzalekoreko izanean da, eta bera eta oro batetan izaki, den guziaz badaki: horregatik da garbi ikusle edo araugaindiko ezagutzale.

Mirandek ez du inoiz argitu, euskal sorgin-mediuiotatik euskal mitologiara, jainkoetara, zehatz nola ematen den pausoa. Baina hain erlazionatzen ditu beti sorginak eta euskal jainkoak, horixe pentsarazten bait du: sorginon izpiritu izaerari, berez eta jator dagozkien jainkoak, haiek zirela. Hau da, mitologia hartan espresatzen dela egokienik, euskal izpirituak, «bera eta oro batetan izaki», dakiena eta ikusten duena. Hura da, beraz, «geure leinuak asmatuiko theologia zaharra».

Kristautasuna oriental dela, eragozten duenean, Mirandek seinazio geografiko bat baino askoz gehiago egin nahi digu, hortakoz.

PARAPSIKOLOGIA: IZPIRITUAREN AHALMENAK

Mirande izpiritualista da, nahi bada zentzu onean eta nahi bada txarrean. Beraz, dualista.

Miranderen izpiritualismoa, teoriarik baino lehenago eta barrenago, bere kondizioa da, postura bat, jarrera eta plegu. Esteta, intelektualista. Mirandek «esteta» deritza bere protagonistari **Haur besoetakoa**-n, mila eratako Autorearen espilu bait dugu. Progresoa eta materialismoa erdeinuz begiratzen ditu Mirandek. Protagonistak, haren nobelan, ez daki negoziotan; liburutan hainbat jakinagoa duzu, ordea. Besteak, «jende zintzo eta ohoragarriak», hain zuzen «salerosketari kultura gabekoak» dira.

Mundu izpiritual fin-fina bai poetak eta bai prosistak —poeta beti, nolana ere— sortu digutena.

Alabaina, orain axola zaizkigunak, Miranderen filosofiak dira izpirituari eta haren bizitzari buruz. Hori, ordea: haren literatur formen eta haren filosofiaren artean harmonia osoa dago.

Bere dohainen eta ihardunen bidez antzematen zaio izpirituari: izan ba ote den, lehenengo; zer den, gero. (Oraingoz izpiritu esanen dugu, ez arima). Dohain arruntez beste, ahalmen izugarriak ditu izpirituak: mendez-mende gizadia izutu dutenak. Hala nola sorginek, aztiak, mirarigileak, agertu izan dituztenak. Mediuiek orain. Beti izan dira izpiritu dohain guziz bereziz dotaturiko pertsonak.

Lehenago, izpirituak sor ditzakeen fenomenuok, «mirariok» (deabruaren) parte gaiztozkotzat jotzen ziren. Gero, zientziak esplikatu ezinik, ukatu edo baztertu egiten ziren. «Oraingo garaian, ordea», Miranderen ustez, bada zientzia bat misterio hauk argitzeko: parapsikologia. **Jakintza berri bat: psikologi gaindikoa** deritza, saio llabur zalearen daukagun saio luzeen eta sakonenak. «Psikologiaren sail bat dugu, eta oraindar jakintsu gogo argi bat ezin egon liteke hartaz arretatzeko», deritza Mirandek. Izan ere, metafisikak utzi eta «orain» mintzo gindezke

zientifikoki izpirituaz, gizona betidanik gehien arduratu duen problemaz.

Zientzia honen interesa, oraindik hasiera lanetan ibili arren, da, gizona zer den, azal diezaigukeela: «...zeren gizonaren iza-teaz egia zerbait irakats bailiezagukete, azkenekoz, jakintzak egiztatu egiek, metafisikari hutsen ametsek ez antzo».

Esan dugu, Mirande preokupaturik zebilela, jakin nahirik bera zein zen, zer zen.

Parapsikologiatik espero zuen laguntza, gizona zer den, zer ari den munduan, apur bat argitzeko. Parapsikologoak gogotik estudiatzeaz gainera, bera ere ibiltzen zen esperimentuak egiten: «Neronek, saiaketa ernegarri zenbait egin ditut arlo hon-tan mediumtasuna poxi bat daukan lagun batekin», adierazten digu uki-metagnomiaz diharduela. «Neronek amets bat egin nuen haurtzaroan, geroko gertakari bat zehaztasun guziekin iragarri zidana», aurretiko ezagutzaz edo geroa igartzeaz diharduela. Ikusten da Miranderen interesa gauzaotako.

Hamar urte geroago, ez dela lehen bezainbeste parapsikologiaz arduratzen, aitortzen dio Peilleni gutun batetan. Alabaina:

Interesantena, basajaun, lamina edo gizotso bat topatu lukeen norbait aurkitzea litzaidake (ez dezazula otoi uste ukan burutik egina naizela, eta izaki horietan sinesten dudala, kristauek aingeruetan sinesten duten bezain naiboki; baina gure psikearen «Arkhetypen» dira, eta ikusgune hortarik izate piska bat emaiten ahal zaie (10).

(10) Arimaz iharduterakoan ikusiko ditugu Miranderen usteak konzientziak eta konzientziapeaz edo konzientzia barrenaz. Hemen, konzientzia barrenean alegia —eta honek badizu izakera ontologiko bat edo, Miranderen ustez— goi-eredu edo arketipo batzuk seinatalu zituen Jungek, «gizaki guziekiko mito edo ereduak: guziekiko berjakintza-lekoretik baidatoz, Jungen esanetik». Beraz, laminak, etc., euskal arimako arketipo bereziak ditugu Miranderen eritzian; hau da, euskal berezitasunik barrenkorrena, oinarri-oinarrizko egitamua euskal izpirituaren beste edozein espresiotarako, hizkuntza eta baino askoz barrenago, antza.

Hemen ezin bil genitzake, Mirandek inguratu dituen fenomeno parapsikologiko guziak («psikologi arau jatorretatik kanpo gertatzen direla adierazi dut gorago; araugaindiko esan ohi zaie»). Mesmerren sendaketa miragarriak aipatu dizkigu: gaisoari ezarri eskuak gainean eta sendatu egiten zuela. Hipnosia edo irasorra. Radiestesiasia: zotz bat edo eskuan hartuta, dilindaren bitartez, lurpean urik, mehatzik, e. a., ba ahal dagoen igarri ahal izatea. Izpiritismoa. Telepatia: «denok ikusia dugu behin edo behin ferietako aztiren bat, han zeudenen deitura, izen eta jaiotegunak igartzen zituena». Baina telepati kasu benetan harrigarriak izan dira. Igarren edo ikus-metagnomia, kristalean ikustea... Ikus-metagnomia edo garbi ikustea zera da: «mediumak begiak hersten ditu, eta gogoan husten, eta begietaz baliatu gabe, hurbil edo urrun dauden zerak 'garbi ikusten' ditu»; «metagnomi edo araugaindiko ezagutza gogoarekiko gertari bat da, batere dudarik gabe, ez gorputzarekikoa», esango du Mirandek materialista edo ukigaizaleen kontra (materialistez maiz trufatzen da). Hipnosi bitartean ere gerta liteke, hipnotizatua «garbi ikusle» bihurtzea, hots, ezkutuak «ikus-tea», begietako bistarekin gabe, gogoarekin nolabait. Gogoratuko du irakurleak, «Jakintza gorago batez» eta «barne begiz» basaiuna «ikusteaz» goian esandakoa.

Beste araugaindiko fenomeno bat uki-metagnomia da: gauza bat eman mediuiari eskura, eta gauza ukituz gero, haren historia ikusten du (zer den, nondik datorren, haren jabeak zeintzu izan diren, jabearen gorabeherak), gauzek berek oroimen antzeko zerbait izan eta mediuiak irakurtzen balute bezala. Hau ere gogoangarria sorginkerian. Honekin baterakoa duzu iratxo edo pamerialen arazoa (gazteluetako fantosma agerketak, etc.; gaztelu gabeko etxeetan ere sarri ohartuak, Euskal Herrian asko dago halako). Esan nahi bait du, etxeotan izpiritu bat edo bizi dela ezkutuan, ikustezin, oroimen bat edo: «bertan gertatuen aztarnak gordetzen ditu, hau da, gertatuen psychonak. Gizaki **sentikor** bat toki hartan egoten bada gero, psychonak bil ditzake eta haietatik, iratxo bat eral». Pameriale-tan ez dago bereziki sentikor izan beharrik ere: edozeini ager-

tzen zaizkio. Parajeek eta ere ba ote dituzte honelako oroime-
nak, izpirituak edo zernahi direlakoak? Zer da Basajauna?...

Beste medium batzuek, aztiak eta hetxizeroek, hezurak, kartak, kafeondarra. e. a. beren aurrean banatu, eta ezkutukiak «garbi ikusi» ohi dizkigute, halaber. Batzuetan oraindik gertatu ere gabeko gauzak. Dakiguna da, herri primitibu askotan oso inportantea izan dela zeregin hau, geroa asmatze hau, hegaztien hegaldakera, edo izarrak, edo ez dakit zer «aztertuaz».

Halaber inportanteak izan dira, leku batzuetan oraindik dira, «eurigileak» (ez ahal ziren oraintsu arte errogatibak egiten?). Jendearentzat pertsona batzuek badute euri eginarazteko dohain aparta, eta lehortetan harengana joaten dira euri eske. Euskaldun askorentzat, era berdintsuan, harri erauntsiak sorgin gaiztoen obra izaten ziren (ik. **Euskaldunak** poeman). Sorgin ala ez sorgin, Mirandek uste du, harriak zerikusirik izan ohi duela mediuen batekin: «gertari usu xamar horien ikeretzalea ohartzen da, kasik beti, hurbil dagoela neskatilla edo mutil bat, berak uste gabean mediumean ari. Ezen gazteak gizaloratzen direnean, mediumtasuna baletorkieke zenbait aldiz».

Batzuek malefiziorako eta okerrerako dohain bereziak dituztela ere, uste izaten da. Emazte bekaitz batek begizkoa bota eta haurra gaisotu ziolako, eta inola sendatu ezin zuelako, ikusi dut nik negarrez ama bat. Azkenean promesa egin eta berbertan sendatu ere... Sinestekoak badira esaizun denak, Afrikako hetxizeroek ikaragarritzko heriotzak kausatu izan dituzte beren izpirituaren boterez hutsez.

«Ilustrasinoi» haundiko jendea gara gu, ordea. Gehienetan farre egin ohi diogu holako aipuei, esplikaziorik ez dakigulako, eta esplikazioren bat jakin beharrean geundekeela, iruditzen zaigulako, kontu horiek benetakotzat hartuaz gero. Baina egia horixe da: historia benetan «mirariz» eta «mirarigilez» beterik dago, ukaezinezko eran dokumentaturik daukagu hori (Jesus Nazaretetako «mirarigile» izandu zela, hari buruz dakizkigun gauza zihur oso gutitako bat da). Herri eta erlijio guzietan izan dira mirarigileak. Berdin, uka ezinezko da, pertsona batzuek

«kartak irakurtzen» dakitela, beste batzuek «kristalean ikusten» dutela... «Halako etxe sutan dago», esan omen zuela batek, eta halaxe gertatu. «Nire semea hiltzen dago», eta semea hiltzen zegoen Ameriketan. «Ontzia urpera doa», eta itsastuak ez zituen inork ikusi harrez gero... Honelakoak, ez dakigu zer diren, baina badirela, ez dago ukatzerik.

Arimarik edo pamerialik, Ama Birjinarik, santurik eta santarik, agertu zaizkienak, asko dira, esan dutenak baino pare bat gutiago, kontatzen badugu ere. Hori zer fenomeno den, ez dakigu, baina fenomenua hor dago.

Eta, sinestea zilegi ote dugun ere, ez dakigun mila eta mila fenomeno estraino.

Gaisoak eta burutik galduak eta neurotikoak direla, esango ahal dugu, fenomenuotan parte duten denak? Baina, halaxe balira ere, nahiko interesgarri da, giza izpirituak, nahiz eta gaitzean, holakorik obra dezakeela.

Ghien-gehienok, holakoen esplikaziorik ez dakigu, ez dakigu fenomenuoi nondik heldu, eta enoratu egiten ditugu, ero-soena horixe da eta. Beraz, guretzat ez dute esistitzen.

Mirande, nik uste, kasu bakana da gure artean, agian bakarra, guzi horren axola eta interes bizia agertu duena. Justu arrazionalismo eta zientismo bolara baten hasiera-hasieran Euskal Herrian. Eta berak ere zientismo gisa, hain zuzen. Mirandek ez bait du sineslerik izan nahi, fenomenuon begirale kritiko eta ikerle zientifiko baino.

Haren izpiritualismoaren ezaugarri da interes hau, eta interesaren tankera «zientifikoa», parapsikologian.

Parapsikologiak eta izadi edo araugaindiko fenomenuon ikerketan enplegatzeak, duda gabe, zirrikitu bat irekitzen zion, sorgin eta Mari eta lamia eta basajaun ipuinez beteriko «Euskal Herriaren Jakintza» misterioetsua ulertzeko, haren barrenbarreneko zentzu sakona atzemateko (gustora aipatzen du Azkue). Baina Mirande baitan, bestalde, esistentziaren sentiduak misterioan oin hartzen du azken-azkenean. Eta gizonaren barrenaz, misterio azkeneko hortaz, pentsatzen zuena ezkuta-

agertzeko eta pentsabideak, susmoak behintzat, nolabait formulatzeko, bide ematen ere zion parapsikologia azaltzeak, ez guziz bai eta ez guziz ez, esan beharrik gabe, esan behar zituenak behar haina esanez halare.

ARIMA BADEA IZAN?

Ektoplasmak zer diren, egokien Mirandek berak esanen digu. Haren burutakizunetan fenomenuok zein inportantzia duten, berez agertuko da geroxeago:

Psikologi-gaindiko gertari guzietatik, horiek dira ikusgarrienak. Mediuma transan dagoela, konortegabe, zein nahi araugaindiko fenomenu haundi emaiteko bezala, ekai bat, batzuetan arrea, bestetan zuritsua, ateratzen da haren soinetik, ahotik, bularretik, hezur-giltzetatik edo sabelpetik, eta ukigaitzen da itxura bereziak hartuaz: nahiz gauzak direla, nahiz gorputzadarrak, nahiz giza gorputz osoak ere. Zenbait aldiz ikusiezina da ekaia mediumetik ateratzean; ikuskortzen da iratxo-itxurak ukigaitu orduko. Iraupen laburra dute gehienetan itxurok, zenbait segundu, onenean zenbait minutu; itzaltzen dira gero, eta ekaia mediumaren gorputzera itzultzen da.

Dr. Geley heugitz aritu zen fenomenu horrekin. Ahal izan zituen ere I.M.I.-ko (Institut Métapsychique International) laboratorian ukigaiteta zenbaiten moldaketak egin. Adibidez, esku bat ukigaitzen da mediumaren aurrean. Geley-k eskatzen zion eskuari parafin urtuzko ontzi bero batean murgil zedin. Eskua, ontzitik irtetzean, ezukigaitzen zen, eta parafin gogortuzko eskularru bat uzten zuen. Aski zen orduan eskularruan igeltsua ixurtzea iratxo-eskularren moldaketa bat edukitzeko. Ukigaitetak, idurizkoak

ez baina egiazko direlako egiztagarri bikaina moldaketa hori; batez ere behatzak lotuta, bihurtuta direnean, Geley-k lortu zituenak legez.

Geley-k **ektoplasma** (ekto: at, atera; plasma: eralketa) deitu zuen gizaki zenbaiten gorputzetik horrela atera eta ukigai ditekeen ekai hori (11).

Mediuiak atera dezake aidean pertsona osoaren fantosma ere, hots, ez —esku, etab.— gorputz atalen bat bakarrik:

...Mediumaren nortasuna puskatua bada eriz (propoposis), ektoplasmak giza gorputz oso bat eral dezake, gu bezala mintzo eta ari dena, mediumaren bigarren nortasun baten kanporaketa alegia (Katie King).

Hauxe da Katie King horren historia: Crookes fisikariak, neskaxa medium bat ikertzen ari zela, Florence Cook haren izena, ektoplasma izugarri hau kausitu zuen: «den-dena bizidun bat iduri zuen iratxo edo izaki bat, Katie King izena zeukana bere bizitzan, eta XVII-garren mendeko Ingles neska bat zela berak zioena. Agertu zitzaion urte haunitzetan; mundu hontako gizaki bat ematen zuen zeharo, Crookesen gelan ibiliz, han zeudenen hizketaldietan parte hartuz, jakintzarien haurrei ipuinak kontatuz. Argazkirik ere egin ahal izan zuen: Katie King zutik,

(11) Ektoplasmak aztertuz Dr. Ostyk egin zituen bi oharpen aipatzea interesgarri izan liteke, 1. esana dugulako, esplikatutako gabe, sorgin batzarrak edo akelarreak, basajaun ikusketak eta bezala, ilunetan edo ilunabarretan izaten zirela; eta 2. Mirandek, aitortzen duen baino joera gehiago duela sortaldierantz, esan dugulako, halaber:

«a) Ektoplasma ekaiak gorri-petiko leinuruak geldierazten dituela. On da hori jakitea, ezen mediemekiko batzarrek askotan behar dute ilunpean egin, argizuria ektoplasmaren ezeztagarri da eta. Baina gorri-petiko leinuruari esker, ilunean ere gertatzen den guziaz kontura diteke?»

b) Ektoplasmaren eralgintza arnas egiteari, hatsegiteari datxikola nolabait: ekaia bazebilen Rudi-ren arnas-zalantzaren arabera [Rudi zen mediui]. Hontan bila dezakegu ausaz honen azalpena: zergatik hatsaribideek hain toki haundia duten Indiarren yogaetan. yogiek hain zuzen araugaindiko gertariak ekartzea dute beren helburu bat. Gogora gaitezen ere, hizkera aunitzetan batetik gogo, arima, eta bestetik hats edo arnasa adierazteko hitzak, jatorri beretik datozela.»

Crookesen aldamenean, Miss Cook konorte-gabe zetzala tran-san».

Holakoetan, hildakoen arimak direla, esango dizute izpiritistek. Arimak agertzen direla. Parapsikologoek ezin kontsidera ditzakete fantasmok «mediumaren bigarren nortasun baten kanporaketa» bezala baino. Zientziak ezin gehiago esan. Edonola izan, Mirandek ez du aipatu gabe utzi nahi izan izpiritisten eritzia. «Orduan, Katie King benetan izango litzateke berak dioena, hau da, orain dela hiru mende hil zen gizaki baten arima, oraingo medium baten ekaiz bizidunei agertzeko balia-tzen dena».

Izpiritismoan sartu garenez gero, Mirandek dakarren beste kasu bat aldatuko dizut:

1847-an, gizonen ardura berriz ere izadigaindiko gauzetara erakarri zuen zerbait gertatu zen Ipar-Ameriketara. New York eskualdeko herririka batean, bi neskatxek, Fox ahizpek, zerbaiten hotsa entzuten zuten beren gelan, eta joketa horri ihork ere ezin zion bidezko arrazoirik bil. Bi haurrek, beldurti ez izaki, hizpide bat asmatu zuten jotzailearekiko: ukaldi batek A esan nahiko zuen, ukaldi bik B, e. a. Horrela ikustzale ezkutua hitzegin ahal izan zien: jakin zuten aurreko etxekojaunaren arima zela, eraildua izan zela hura, eta beste zehaztapan asko. Joka eman zituen aginduei jarraituz, gelaren lurpea zulatu zuten Foxtarrek eta gizon baten hezurak hatzeman.

Mirande ez da izpiritistekin guziz fidatzen, ez bait dira kontrol zientifiko baten pean aritzen. Izpiritistek, halare, benetako fenomenu araugaindikoak egin izan omen dituzte, eta «gure eskerrak hartzen ditu (izpiritismoak), besterik ez bada, jakintzaren ardura araugaindiko gertarietara erakarri duelako».

Izpiritisten biltzarretan, edo Fox ahizpen fantosma ezkutuaren eta Katie Kingen kasuetan, etab., zinez «hilen arimak» ote diren, gureganaino bide hartzen dutenak «bestaldetik», ez dago garbi Miranderentzat. Zer gertatzen da hor? Mediuien

nortasun puskatuak ote dira, kanporaturik, beregain eta eskuko antzean, dihardutenak? Gertakari batzuek zail egiten dute esplikazio hori. Esate baterako, «bozek», edo fantosmak, ez mediuiak eta ez beste inork jakin ditzaketen gauzak, adierazten badituzte:

Eztabaida gabeko gertariak guti dira, jakina; bat orraitio ezagutzen da ederra...: Lady Nona edo Telika, Kristo aurreko XV-gn mendean bizi zen Egiptoko andragoi baten agerketa; han zeudenek eskatuz, egiptoera zaharrean hitzegin zuen, hots, hizkera batean, ihork fonetika orduan ez baizekien. Lady Nona horri esker, hizkuntzalariek, mintzaira jakintzariak ezagutzen dituzte orain Faraonen mintzaira hotsak...

«Hilen arimak» zer dabilzan utzirik, begira ditzagun hil orduko gertakaria berezi batzuk: «ernegarri dira» zeren geroko biziaren hauzia aurkezten digute (halaber ere iratxotuak)».

Fenomenuok bi sailetan jar ditzakegu:

a) batean hilurrenak; besteek ikusten ez dituzten gauzak edo gizakiak ikusten ditu (ainguruak, hilak...) Galdera da, egiazko ikuspenak direnez, ala iduripen: berjakintza-petiko asmo bat ikus-iduripen antzean kanporatua.

b) bestean, hilurrena bera agertzen zaio, hil ordu berean edo, zenbait aldiz, ordu edo egun batzu gerogo...»

Asko dago fenomenu harrigarriak. Zer atera? «LEHENIK, IZADIGAINDIKOTAN SINESTEIA EZ DELA TXORAKERIA», erantzuten du Mirandek. «Ziur da —gorago ere aipatu dugu— azti eta sorginek benetan ekarri dituztela herrien 'sineskeriak' aipatzen dituen zenbait mirari: izena sortu baino lehen medium izan dira soilki».

Izadigaindiko eta gizagaindiko hori nola burutatu, ez da erreza garbitzen, giza eta izadiko garenontzat, gauzak hemengo eran bakarrik burutatzen ditugu eta. Halare Mirandek ez du

arbuiaitu »Charles Richet haundiaren» ustea, «liburu ospatu» batetan ausartu baitzen,

pentsatzera, araugaindiko gertari adigaitz zenbait gizalekoreko «nortasun» batzuek eragiten zituztela behar bada...

Horra, ba: beharbada badira giza eta izadigaindiko, «gizalekoreko NORTASUN» batzuk... Lamiak eta Basajauna, etab. aztertzen dituen Miranderen saio baten titulua honelaxe da: **Gizalekoreko izateak euskaldunen eta kelten folkloretan**. Han esaten digu, orain jende gehienak begirik ez duela gizagaindikoak ikusteko, gure lehenagokoek zituzten bezala. Baina «Jakin-tza gorago batez» eta «barne begiz» posible dela. Beraz, ez ziren irudipen hutsak, gure lehenagokoen lamina eta Basajaun ikusketak...

«Arima badea izan?», galdetzen du Mirandek. Eta erantzun:

...Orain badirudi fenomenuok —gogobarrukoek nahiz gogo-lekorekoek— gogo hutsezko «zerbait» bada egiaztatzen dutela, ukigairen laguntza gabe (araugaindiko ezagutzan) eta ukigaitan beretan (asmo-eralgintzan) ari ditekeena; beraz, ukigai gaindiko dena. Zerbait horri, nahi dutenek, «Arima» esan diezaiketete.

...FILOSOFIAK USTE BAINO

Zerbait harrigarri dela, ikusi dugu, izpiritua. Parapsikologiako datuon gainean, eraik ote liteke filosofiazko esplikazio orokarririk, izpiritua zer den? Zer da, izan, aritu hain miresgarri eta zoli ari den arima?

Materiatik aparteko gauza beregaina dela izpiritua, atera dugu. Ukigaiaren laguntzarik behar ez duena, ukigai gaindiko, «gogo hutsezko zerbait»: arima huts, hain zuzen. Baina zer da, zehatzago, bere egitez eta bere baitan? Zer da berenez eta nondik norakoa da?

Adimenak ez dazaguen hainbeste gauza miragarri ikusita, Mirandek, aurrenik eta lehenik, bere harrizapena aitortzen du Hamlet printzearekin:

...gauza gehiago da zero-lurretan
filosofiak uste duen baino.

Misterio infinitu baten ilunetan gabiltza, argitto ipurtar-gitto, ilunteak argitu nahita. Miranderi, eskolastiku metafisikariak bezain desgogoko zaizkio materialistak zein positibistak, adimen jauresleak oro. Kaskarra duzu adimena. Gauza gehiago da zero lurretan, adimenak aditzen duen baino.

Jakintza berri bat: Psikologi gaindikoa, 1951-1952 urteetan EUZKO GOGOAN argitarara eman saioa, berez informazio emateko saio da, fenomenu eta ikertzapen parapsikologikoen berri bildu-banatzeko; ez da bere gogoeten azalpen filosofikorik. Hala ere, nahiko transparentatzen dizkigu Miranderen plegu intelektuala, insegurua, dudaz eta mudaz lazeriatua, eta Miranderen problematika lanotsua ere.

Gizonak baditu problema batzuk, izan ere, eta garbi erantzuteko mediorik ez du.

Miranderentzat fenomenu parapsikologikoak ez dira fenomenu harrigarri eta esplikatu beharrezkoak bakarrik, zientziaren soil. Batez ere gizona zer den, gizatasuna zertan datzan azkenean eta funtsean, hiltzea zer den, problemak plantearazten dizkioten fenomenuak, dira. Mirande arranguraten eta antsiatzen duena, ez da fenomenuon misterioa; fenomenuok iztil bat dastatzen uzten duten gizonaren misterioa da.

Aurretiko ezagutzak, adibidez, Etikaren problema sortzen dio: non dago gizonaren askatasuna, geroa erabakirik eta alde aurretik ezagutu daitekeenik badago, norbaitek oraintxe iragarri liezadakeen eran? Eralduta dagoelako da, inork aurretik asma dezakeela: hots, jakin. Baina orain eralduta badago gero zer gerta, gizonak ez du gerta beharrezkoa eta lehendik erabakitakoa kunplitu besterik egin, ez du eginaren erantzukizunik, libertaterik ez izaki; zuzen eta okerrik ez dago orduan...

Susmoak dira. Gogoetak, zalantzak, usteak eta erdi-usteak. Mirandek ez du ezer borobil-borobil ezetsiko eta ez baitetsiko. Problema eta galderak botako ditu mahain gainera: non dago orduan gizonaren askatasuna? Susmoak, soluzio posibilitateak, azalduko ditu. Baina ez du inon agertuko, ez duen segurantzia borobilik. Ez daki eta ez du esango badakienik. Higuin garri zaizkio segurantzia dogmatikuak, materialistak hala metafisikoak.

IZPIRITU ETA MATERIA: KONZIENTZIA, NORTASUN, HERIOTZE, SUPERBIZITZA

Izpiritua gai da bakarrik aritzeko; bada zer bait berenez eta soil, materia gabe... Baina gizonok izpiritu eta materia gaituzu. Hori da kontua.

Hori baitugu, ez bakarrik parapsikologi, bai psikologi guziaren hauzi zahar beti gorpuztu bat: gogoburmuinen edo arima-gorputzen arteko ondoretasuna.

Gorputzari loturik egon arren, ikusi dugu izpiritua bere kisa ibil litekeela, gorputzaz baliatu gabe (gorputzeko begiez, esaterako). Zenbait eta gutiago baliatu eta hainbat trebeago gainera.

Baina, biziko ote litzateke, gorputza hilez gero? «Haizu da ukigai hilondoan ere bizi ditekela uste izatea», Mirandek. Eta gorputzarekin batera sortu ote da, ala lehendik zen? «...Baldin uki-gaindikoa bada, nola sinetsi ukigaiarekin batean jaiotzen denik?», galde-erantzuten du Mirandek. Ez zaio txarra iruditzen Geleyren aburupena:

Jakintzaren bideetatik, Sortalde eta Sartalde ohitura zaharrek (batez ere India eta Keltiakoek) eta Platondarrek iritxi zuten ustekizun berera heltzen da Geley jauna: palingenesis delakora.

Palingenesis, «berjaiotza» esan nahi duen hitz grekoa da. Pitagorikoek (estoarrek ere bai) eta gero Nietzschek irakatsi

duten «gauza guzien berriro itzultzeari», Betiereko Itzulingu-ruari, esan ohi zaio palingenesi; arimaren berjaiotzari ere bai, arima berjaiotzen delako teorietan. Geroa nola igar litekeen, tratatzean, Mirandek palingenesiaren posibilitatea oroitu digu: «Nietzscheren arabera, direnak oro aurretik izan dira eta gero ere itzuliko dira, betierean aldatzeke. Beraz, geroaldian ikus-tea, egitan lehenaldi urrun-urrun batean ikustea baizik ez litza-ke». Beraz, hortara, gure mundu hau, lehenago ere izanda dago; zu, lehenago ere izandako beste bat zara berriro, eta abar. Ezer ez **da**, denik esateko; dena joan eta itzuli dabil, betiereko itzulinguruan. «Iragankorrik baizik ez duk iraunkor».

Ikuspide honekin izpiritu eta materiaren honelako filosofia bat (edo mistika?) burura liteke:

Gogo hutsak (Lehenengo Batasuna) erarik edo mu-garik ez du, ez eta berjakintzarik ere. Mugatuz gero, berjakintza hartuz gero, Gaia sortzen du: Gaia Go-goaren berjakintza hartzea da. Eraldua eta mugatua da, Dena (Gogo) izaki berezietan banatuz. Beraz, izaki bakoitza Lehen-Gogoaren alde bat da, mugaturik eta berjakintza harturik.

Eta bizialditik bizialdira, izaki oro gero eta mu-gatzenago, berezitenago da, gero eta berjakintza gehia-go edukiz. Bizialdien ingurua burutzean, izaki bakoitza Lehengo Batasunera bihurtzen da, bizialdiz bizialdi irabazi duen nortasuna zainduz haatik: orduan bera eta oro da, batera.

Pentsabideok Mirandek poesian ere azaldu ditu, **Ortziren ttunttuna** eta **Nik igitur mors est**-etan bereziki.

Bil ditzagun berriro idealismo honen puntu nagusi batzuk: lehenengoa izpiritua da, gogo hutsa, bere konzientziarik ere gabe, oraino. Bere konzientzia lortzen duenean —ez dakigu zer-gatik, ez nola, baina bere lehen akto hau izpirituari mugatze bat gertatzen zaio— gaia sortzen du orduan. Materia, gogoak bere konzientzia edo berjakintza hartzea da.

Beraz, hor dugu gogo mugaketa bat, hots, izpiritu mugatu bat, horregatixe konzientzia bat, bere materian sortu eta sartua: horixe gara zu eta ni. Zer da, orain, gure konzientzia hori, lehenengo aldiz mugatzen ez dena, beharbada milaka eta milaka aldiz esistitu duena eta mugatu izan dena, lehenagoko itzulinguru bera orain berriro ibili dabilena?...

Aitortu beharra dago, euskal mitologiaren eta sartaldetar paganismoaren abokatu kartsuak, ez dituela mitologia eta paganismo hura filosofia berezki sartaldetarrez inguratu eta finkatu.

Dena dela, nor-tasunaren eta nor-petasunaren teoria freudianoek zabalero gaitza irabaziko dute.

«Giza gogoak bi alderdi dauzka», esaten digu Mirandek Bergsonekin. Batetik, «norberak bere gogoaren gainean bat-batean ikasten dituen berriak», hots, konzientzia edo berjakintza, jakin dakiguna, eta hori burmuinari darraikio. «Bergsonek erakusten du nola burmuinaren berjakintza hori ukigaiezko munduon gaudelako sortu zaigun, ukigaiari egokitu beharrez».

Garrantzizkoago da guretzat beste alderdia: konzientziapera; ez dakigulakoan badakiguna; eta dakigulako, gure portararen, azpi-azpitik, bortizki agintzen diguna, geu oharkabean:

Freudek, ordea, giza-gogoak beste alde bat daukala irakatsi digu, berjakintza petikoa... Austriar irakasleak eta haren lehenengo jarraitzaileek uste zuten berjakintza-petiko hortan berjakintzak behin jakin eta gero ahaztutakoak zeudela bakarrik; batzuetan on-arau edo gizarte-arauen aurkako zirelako ahazturik (Freuden libido, gizaki-grina, eta Adler-en indar nahikeria).

Honek ez du esplikaziorik behar. Modako dotrina da. Behin izandako esperentziak, edo ezinak, zerbaitegatik ere, konzientziatik erortzen dira azpiko sоторa, konzientziapera, eta han gelditzen dira ahaztuta. Inoiz esperimentatu dugunik ez da ezer galtzen; oharkabe-oharkabean, han gordetzen dugu.

Baina gertatzen da, ari direla psikoanalistak soto ilun hori aztertzen, konzientziapera; eta batek inoiz sekula santa guzian

esperimentatu eta ahaztu ahal izanak oro baino askoz «hondakin» gehiago aurkitzen dizutela ilunpetan. Jungen «arketipo» haiek, adibidez. Nondik heldu dira?

Psikologilariak asko zabaldu dute azken urte haue-
tan berjakintza petikoaren adigaia. Konturatu dira ez
zela soilki berjakintzaren hondakin bat, alderantziz,
berjakintza zela haren saila, edo, hobeto esan, haren
errainua burmuinean.

Beraz, gogamenean Freudek bi eremu berezi bazituen —kon-
zientzia eta konzientziapea—, orain hiru berezi beharko geni-
tuzke: konzientzia, konzientziapekoa, konzientzia lekorekoa edo
kanpokoak. Azkenean hau da —konzientzia lekorekoa— beste
guziaren oinarri eta funts.

Guti-gorabehera asma genezake iadanik, zer dugun eta non-
dik datorkigun konzientzia lekoreko eremua, inoiz geuk espe-
rimintatu ere gabeko hori: lehen izpiritu hartatatik edo preesis-
tentzia haietatik, nonbait. Hor harruan bizi-bizi dago. Eta, fun-
tsean, konzientziape baino hobeto, konzientzia-gaindikoa esan
beharko genioke, Geleyrekin Mirandek deritzan moduan.

Gure benetako nortasuna da eta gure egiatzko
«ni»-a; gorputza hil ondoan han dugu bizi, bai eta
gorputza sortu aurrean ere, Geleyren ustez.

Orain esplikatzeko da: zenbait eta gorputza loago, konzien-
tia loago, konzientziapea ere loago, ernaiago eta biziago kon-
zientzia-gaindikoa. Orduan gogoak —zure eta nireak— GO-
GOA, Dena, lehenengo eta azkeneko zer-izana, begiztatzen du
eta «garbi ikusten» du.

Mediuma transan dagoela, bere gorputz, bere ber-
jakintzaz ezaxolatzen da. Orduan bere berjakintza-
lekoreko izanean da, eta bera eta oro batetan izaki,
den guzia badaki: horregatik da garbi ikusle edo arau-
gaindiko ezagutzale.

Baina urrutiago joan gaitzke bide hortatik: esan dezakegu nornahi, medium ez izanik ere, bere gorputzaz eta azaleko nortasunaz ezaxolaten delarik, bere egiazko nortasunera bihurtzen dela, gogo-hutsezko izanean: hala nola lo dagoelarik. Haren ametsek ...gorputzarekiko berjakintza-petikoan dute beren jatorria, telepati eta metagnomizko gertariak ospatzen dizkigute sarri, batipat goizalderako ametsek. Bai eta ere, Jungek aurkitu dituen «goi-eredu» (archetypen) direlako gizaki guziekiko mito edo ereduak: guztiekiko berjakintza-lekoretik baidatoz, Jungen esanetik.

Fenomenuok erakutsi iduri dute, ukigaiaz ezaxolaten garen aldi guziz genau eta den guzia batean garela, medium transaratua bezala. Zer du mediumak guk baino gehiago? Guk baino berjakintza-lekoretiko sail haundiago bat berjakintzara dezake, deus ez besterik.

Hori dena —konplikatu baino ere zehaztasun gabekoago, egia esateko: baina Miranderen saio batez gabiltza soil— horrelaxe ote da? Mirandek zihur-zihur ez daki. Dena dela, teoria bat da. Miranderi apenas iruditzen zaio besteak baino okerragoa.

Dena dela iduritu zait aski ernegarri zela irakurleari aurkezteko, gizanortasunari buruzko beste bi teoria nausien ertzean: burmuinarekin batera hiltzen dela dioten ukigaizaleen ustekizuna, eta, gorputza hilik ere, batere aldatu gabe jarraitzen duela daukaten Gogozale horien iritzia.

Batzuek esaten dute, izpiritualistek (kristauek, adibidez), gure nortasun osoak bizirik irauten duela, arima huts, gorputza itzalita ere. Materialistek «ondo erakutsi dute... giza-nortasuna deitzen dugun fenomenua, hein haundi batetan, ukigaiari datxikola; esan nahi dut, giza burmuinari. Beraz, burmuin

hori itzaliz gero, alferrik dugu igurikitzea gure oraingo nortasunak, gure oraingo «ni»-ak, batere aldatu gabe bere izatean jarraikiko duela».

Geleyrekin pentsatzekotan, aldiz, materialistekin usteko dugu, burmuinari datxikona burmuinaz hilgo dela. Baina horrek ez du adierazten gure nortasuna suntsituko denik: gure «egiazko ni-a» konzientzia gaindikoa zela, esan bait dugu.

Gure egiazko nortasuna, gure gogo edo arima, ez da hilko gure burmuinarekin batera... Hilko dena, gure azaleko nortasuna, gure «ni» lurterra da.

NERE SINESTEA

ARIMA:

«Ariman sinesten dut —bere izen arrunta eman behar bait zaio»: zuzen-zuzen eta kategoriko hasten da **Nere sinestea** saio laburra. Hari lotuko gatzaizkio.

Horrek ez du esan nahi, Jainkoan edo —«jainkoetan»— sinesten duenik: «Hauzi oso desberdina da». Onartzen du, arima, batzuetan, «bere batasunaren nekeak astun egiten diorean, Jainkoak ohoratzen zirikatu da, nostalgia baten uztak edo klaneko giza handien arimen oihartzuna gure izatearen beste planetan bizitzen direnak balira bezala».

«Jainko gabeko izpirituzaleak» eta bere gisako gure paganoak argi uzten du: «Neretzat, nere arima aski zait». Jainkoetan sinestu gabe.

Zer da arima? Uste eta burutaera desberdinak daude. Mirandek bere sinestea beste irudipen batzuetatik berezten du.

Lehenengo —hala ohi du— materiazale eta mekanizistengandik apartatzen da. Mirandek ez du onartzen, «**psukhê** hori ez dela ekaiaren gain-fenomeno» soil besterik, abere eta gizajendearentzat. Aldaketa fisiko-kimikoez oso bestelakoa da arima, bere izate barnatsu eta sakonean.

Nere ustez, parapsikologiako ikerketen bidez, gisa batez edo bestez, hori probatu izan da. Esate baterako, erran genezake arima errealitate bakarra eta bakoitza dela. Bai; nire Arima neure errealitate bakoitza eta bakarra dela sinets nezake...

Bigarren, arima hori bakoiztarra dela, uste du. Indibiduala, pertsonala. Arima —**psukhê**— artean antzik egon daitekeela, ukatu gabe.

Hirugarren, Miranderi ez zaio iruditzen, arima hori gure gorputzarentzat propio sortua daitekeenik; beraz, gu izan artean deus ez zena, eta gu izatera orduko deusezetik sortua, kristauek uste ohi dutenez.

Eta, laugarren, kristau ikasbidearen kontra berriz ere, arima «gure heriotzaren ondotik mundu honetan biziko dela», uste du Mirandek.

Arimaren esistitzeko moduaz, oso argitu gabe utzi dizkigun usteok ditu:

Kelta druida aintzinekoak ohartu ziren bezala, uste dut, gure bakoitzaren arimak bizitza asko dituela eramaten mundu material desberdinetan, hein desberdinetan, baina «garai» absolutorik ez denaz gain, bizitza guziak garai berekoak dira, denbora berean gertatzen, baina hori beste kontu bat da...

Beraz, metenpsikosia ez zaio iruditzen onargarri (**Karma**-ren ikasbidea): arimak tai gabe gorputz batetik bestera erratzen duela, inkarnazio edo haragitze bakoitza nolako haragitze izan, bere aurreko bizitza moralak erabakitzen diola.

Bizitza desberdin guziak garai berekoak izatea, zer ote da? Denboraren problema sortzen zaigu. **Nil igitur mors est** poesiaren iruzkinean, «nonbaita eta noizbaita dauzkan munduezagutua» gaindiatzeaz mintzo zaigu Mirande, «aldi-aldeetarik lekorean» murgiltzeko. Beste nonbait «Betiereko orainaldian» sinesten dutenak, aipatu dizkigu; eta horrek dirudi «garai berekotasun» edo simultaneitate honen giltza:

Diotenez, ez da benetan ez lehenaldirik, ez geroaldirik, baina oro garaibereko dira. Aldia badelakoz gure ustekeriak, gure ukigaiezko munduon egoiteari darrarkio. Bergsonek ere horixe adierazten bide zuen.

Ustekizun zoroa, harrigarria... gogoan igaroko duzu. Hala ere, araugaindiko ezagumenaren tankerak indar eman iduri dio: ezen geroa garbi ikusten duen mediumak ez du geroko bezala ikusten, baina ikasitako araugaindiko ezagutzak oro, nahiz lehenaldi, nahiz orainaldi, nahiz geroaldiari datxekotela, galga berean agertzen zaizkio; esan nahi dut, aldiari buruzko berez-kuntzarik batere gabe.

GORPUTZA:

Gorputza —ikusidugu— arimarentzat muga eta eragozpen da, nolabait ere. Baina arimak, esango digu, esistitzen duen «mundu» bakoitzean (kakotxak Miranderenak dira: «mundu»), haragikera bat hartu behar du. Gorputza. Arimaren konzientzia bezala da gorputza; edo, Aristotelek zioen eran, gorputzaren itxura, iduri, dugu arima.

Gorputza iragankor da, hiltzera behartua, eta, arimaren aldean, bigarren mailakoa. Haatik ez da mespretxatu behar (Nietzsche gogoratzen zaigu):

Aitzitik, gure nortasun ezagutuaren oinarri bezala ezagutarazi behar da, eta hortik... hots, metafisikalarien mintzaldien gatik bere izatezko indarrak ohoratu behar dizkiogu, horiek baitira, nahiz azaleko nahiz apaleko, erro sakon eta beharrezkoak: erran nahi dut, sexuaren ezagutza eta etniaren konzientzia. Gogoaren gainbegia gatik, zentzu horien ukatzea ez lizateke engainu eta astakeria baizik, zeren «aingerua egin nahi duenak animalea egin dezake».

Haur besoetakoa-n honela meditatzen da arimarekiko gorputzaren anbiguitate hori:

Gorputza ez-behar omen; edo eragozpen bat —baina bai eta arimara daraman bide bat ere, Goizerriko mistikoeak erakutsi zioten araura.

Haur besoetakoa-n dirudienez, arimara daraman bidea, gorputza bera baino, gorputzen batzuk direla, pentsa liteke. Harmonia bat presuposatu behar arima batzuen eta gorputz batzuen artean. Agian bidezko da, gorputza hain zuzen arimaren itxura baldin bada.

NIL IGITUR MORS EST ETA IRUZKINA

Nil igitur mors est, espresakeran Lizardi-Orixeren tankerak gogarazten dizkigun poesia da. 1952-koa (beraz, artean **Jakin-tza berri bat: Psikologi gaindikoa**, zatika-zatika, publikatzen ari zen). Mirandek iruzkin edo komentario bat erantsi zion: «**Nil igitur mors est**» poemaren giltza.

«Heriotza deus ez bait da»... Miranderentzat, San Paulorena barik, Lukrezioren jakituria da hori. Seinalagarria.

«Egia tranzendentalen» meditazio gisa da poema hau eta, heriotza deus ez dela, azkenean ikasiko da, ez hasieran. Hasieran «bizidun» guziek dazaguten hil-beldurra» dago.

Egun bero baten ilunabarra da («Oi uda egun azkendu hau!»). Haurrek ez dute jolas gogorik: «iduri luke dagoeneko badakitela beharko dutela behin zahartu eta itzali»... Hortaz gogoratzen ez direnak, maiteminak dira, «beren elkar-maitatzeaz besterik ez dute ohar». Maitaleok, hauengan gorputzak indar hartu duelako edo, axolagabeki ari dira, «gizakumeen lur honi eutsiegi» dira eta (haurrak ez dira oraindik hain lurrari atxekei) eta «gauzarik beharrezkoena eta egiazkoena zaie maitatze hori». **Haur besoetakoa**-n ikus dezakegunez, Mirandek badu susmoa, haurrak egia sakonen berri hobeto dakiela jende

larriak baino, heriotz ondokoaz adibidez, «adimen elkor alferrenen urguiluak ez baitio hari ber-jaiozko ezagutza lausotu eta itzal erazi». Haren konzientzia-gaindikoa garbiago dateke adindunarena baino. Maitaleek ez dute gogoan guzior zahartu eta hil beharra.

Baina ilunabarra da (gogora 11.gn oin-oharra, a). «Iluntzeak, gauzen itxura lausotzen duelarik, badarakar gogoeta bakan... (baten) buruan hartzera»:

Poetaren bihotzean sartu da duda bat: ikusten dituenok oro (etxe, haur, neska-mutil) bere begien, bere zentzuen iduripen bat baizik ez balira?

Zein da egiazko errealitatea? Errainu eta itzal soil ote gara munduon, zinez beste planeta batetan erreal den gure egiazko izanarenak? Pantomima hutsak?

Baina ez du onartzen, hortarako ez baita oraino zori. Jarraitzen du gauzak egiazki hor direla sinesten, bere zentzuek somatzen dituzten bezalaxe. Hor-direla heriorako! Gaua iguriki eta elkartu diren maitaleek ez dute, ez, etorkizun herioa gogoan, maite-lillurak debekatzen baititu gizon guziak— naiz landugabeak, naiz landuenak— beren bihotz zolan, beren bihotz ondoan ezagutzen duten hilbeharraren abotsaren entzutetik, bele beltz iragarle batena antzo. Alta egia da: etorkizun herioa bizidun guzietan gorderik dago; gazteenek, gaztetasuna bera iduri dutenek ere beren haragian dakarte, har jalea fruituan den bezala.

«Olerkaria bakarrik dago gelan, gogoeta goibel hoik lagun. Gau mina da. Are beldur gehiago damakio ilunak, eta ikaran jartzen dute gauazko hotsek. Erranen luke zerbait dela gelako ilunpetan, hari mintzatu nahia. Zer ote? Hil berri baten iratxo edo arima, gorputzaren ganik berezi ta nekeetan?».

Nil igitur mors, esan duenak, **timor fecit deos** esan zezakeen. Errezoa bildurrak berotzen du. Bildurra eta gutizia otoi-

tzaren hegoak. «Gizona beldur zen bai... Otoi egin behar ote zuen?» (**Haur besoetakoa**). Poetak otoitz egiten du larritasunean:

Despotê, hel! hel! Sineslegai
egun bainago bildur handiz!

«Alferretan ez ahal ziren izanen balizkako jainkotasun bati zuzenduko zizkion otoiz erdi sinetsiak?... Hobe zuen Zoriaren meneko utz zezan bere burua» (**Haur besoetakoa**). «Josu bar-Joseph, deithu zaitut haizeen artetik... zeure zerutik deus ez duzu ihardetsi» (**Ohiko Jainkoari**).

Hain izitua da, non hasten zaion, gaztaroan bezala, bere oraiko sineskabea gatik, norbait-den Jainko bati oihuka, urgaitze-galde. Haren jopu izatera ere lizake, beldur izugarri hau ken lezaioken ber... Baina norbait den Jainkorik ez zaio agertzen; bakarrik da beti; deuserako ez du izan bere hel-eskatze eta erdi-sines-tea...

Poetak laguntza nahi zuen. Ihes egin nahi zuen. Otoitzak ez du irekitzen biderik. Ez dago nora ihes egin. Alferrik aritu da —gaztaroan bezala!— otoitz eta otoitz.

Beraz, larri otoitzak inora ez bagaramatza, nora aldegin ez badago, pentsa dezagun, batere ez gaudela bildurrez eta batere ez dagoela zergatik bildur izan. Hola edo hala kontsola daiteke, kontsolatzekotan. Eta kontsolatzen ez dena, berak nahi ez due-lako, omen da.

Miranderen poetak etsi du. Bakarrik dago, «bizidunaren heriorako hor izatez». Ez du zeinengandik zer itxaron. «Mundu lazgarri hontan galdurik».

Ihes asmoak utzi eta bere barnean barneratzen da. Mundu lazgarri hau lazgarririk ez dela, somatzen du: nola izanen da lazgarri, zinez deus ez bada, izan, errainu eta itzal baino! «Bakhea jin da». Mundu hau egiazkoa balitz bezala ikertzen duten liburuak hertsu; teoriak baztertu, mundu honen zer-nolakoaz,

aburuak gutietsi; barren-barreneko lehen gogoari utzi mintzo dadin.

Poeta, gogoetatuaren ariaz, jartzen da emeki emeki lo-antzeko egoera berezi batean, Okkultisten «bigarren egoera», orduan bait dago gizarima bere egiazko izanean.

Trantzean sartu da; mediua ere «lotan mintzo eta ari da», zabaltzen ditu barne begiak bestaldera, gorputzeko begiak hertsiaz, edo ilunetan dagoela.

Urteotantxe, beste euskaldun mistiko bat Ameriketara barena doa: Orixe, itsaso beti berdinari begira, uhin durundia entzunez, ilunetan, baratzean begiak hertsiaz iturriaren ur xurrua belarrietan duela... estasian edo murgiltzen dena hura ere (irasorrean, hipnosian, trantzean). Merez du bi Autore hain arras desberdinok alderatzea: bi mistiko. **Nil igitur mors est:** azkenean poesia mistiko bat, Mirandek esaldia bera Orixeren antzeratu diona. Gogoangarri ditugu Orixeren «trantzeak»: «Ixil organua /, ixil dut ezkila... An nagozu bakar / Eliza xokoan / begiak ertsirik /. Ernai? Lo-xorroan?», —«Ostoen urrunak arian arian lo-arma sartzen dit... Gogaia goxatuz irakiten doi-doi ari zait burua oarkabe». —Ilun dago lurra... galtzen naiz berêla», eta abar. Miranderen ipuin batetan —**Ur bazterrean**— holako Orixe bat badago, Jakes protagonista: ur bazterrean dagoela, zurrumurrua entzuten eta soa uretan galdurik, ikuskizun bat agertu zitzaizen haren bihotz begiei... «Oro hilkizun dira —esaten zioten Jakesi lore zimelek— polit eta ezti direnak oro: nesken irriak, haurtxoen irriak, arbel-hegatzen peko zorientxoak, gizon-emakumeen alkarmaitatzea —eta gu ere zoritxarrez...». Mintzatu zitzaion uhaitza ere: «Oro hilkizun dituk; iragankorrik baizik ez duk iraunkor. Eni begira, nola lore zuri-gorriak, arto muskerrok... eroaten ditudan, ez-deuserazten».

Mirande bere gelan dago. «Itzalak gelan izugarri». Gauzen hil beharra iraultzen ari da buruan. «Sorgortzen zaizkio atza-

rraldiko Oroimena eta Adimena... bai eta ahaztutzen du bi men hoiek gogoratzen zioten gauza guzien hil-behar hura. Itzaltzen dire buruan zerabilzkien pentsa hitzak: gauzak ulertu nahiz ematen dizkiegun izenak. Uste baitugu, izena jakinez gero, gauzaren izana ere ezagutzen dugula... Baina egiatan, gure ezagutza oro hitz-keta bat baizik ez da eta ezerek ez digu ustea zilegi egiten, hitz hoién atzean izan ere zerbait badela».

Gero eta murgiltzenago da olerkaria bigarren egoera hortan, gero eta bake ta bozkario handiagotan dagoela. Bere baitaratu da, egia aurkitu du bere baitan. Erdainatzen ditu orain aztertzen ohi zituen asmalari sakonen lanegin eta iritzi ezberdin guziak: bazebiltzan, bakoitza bere bidetik, munduaren arauen bila; baina munduaren ezagutza aizun izaki, arauok ere aizun izan behar... (12). Poetak aldiz uzten du, gezurrezko jorik, nonbaita eta noizbaita dauzkan mundu-ezagutu hori, eta aldi-aldeetarik lekorean zorabioan dagoela, badantzu bere baitan hizlari —ez bere goiko edo kanpoko Jaun Egile bat, baizik bera ere den Arima orokorra.

Trantzean bezala dago poeta, konzientziatik haraindi konzientzia-gaindikoraino urrundurik; bere barren-barrenean, egiazko nitasun hutsetan, ez-jainkoa mintzo zaio isil-isil: «Deus ez da», zion «herioa: Ez dena EZin daiteke hil».

Jai eder neure jauregian.

Orain, bakeaturik, pozkarioz, atzera gogoratzen da: zergatik zen hain larri? Hiltzeko bildur. Baina zer da hiltzeko bildur hori? Bizitzea ez den zerbait dela, ez den errealitate bat dela, uste izatetik, datorren kezka hutsala. Bestela deus ez da heriotza: ez dena ez daiteke hil.

(12) Neke intelektual berdina nabari zaio Orixeri, bere intelektual munduan, noski: hainbeste dotrina eta teoria eta hipotesi eta uste ta muste utzi eta funtsezko egia bakun apalez gelditzeko atsedén mina. Tipiko, intelektualismo eta «ideologi esklaboaren» garaiotarako.

Baina jende gehienak ez bait daki, badela uste dutena, deus ez dela. Eta eri dira «hil-bildur deithu gezur-minaz». Mina ere gezur min.

Gizon gehienek ordea diote munduko biziari, beren mundutar nortasunari, ardura oro eman, eritasun bat baizik ez duten arren delako bizi hori, hil-beharra berarekin ekarki. Behin ere ez dire beren baitaratzen, ezagun ahal lezaten beraz eta oro den Arima, hau da, Egia bakarra. Orduan balakikete iduritze bat direla mundua eta munduaren izatea, eta hil-beldurra joan lakieke, iduripen baten herioa bera ere iduripena bait da.

Poetak ediren du egia handi hau azkenekotz. Segurrean badaki oixtion ikusten zituenak oro bere gogoaren amets bat zirela soilik, izaterik gabeko. Atsegin batean dago, lorrezko amets hartarik askaturik eta egiazko Izatea beraren baitan aurkiturik. Zer garrantzi dauka bere «gizakideek» amets zaharrean irauteak, bizitze eta hiltze badelako sineskerian? Bere haiekiko har-emanak ere iduripen hutsa direla ta...

Poetaren arima, «gezurrezko soma-gauzen mundu mugatua utzi eta egiatan Dena-ren itsas handi mugarik gabeen ondortzen doa»...

Ttakadatto bat, bukatzeko: hil bildurrari, guziz bitxi, Mirandek eta Mirandek batere maite ez zituen horietako edozein materialistak (edozein marxistak, adibidez), soluzio berdina aurkitzen diote azkenean: irudipen eta begitasun dela, eta ukatu.

MIRANDEREN TRAJERIA: BI MUNDUAK

Gorago esan dugu, maitasun/gorroto dialektikan dabilela beti Mirande. Honez gero esan genezake, beharbada, Mirande-

ren pentsamentu guzia, sakonagoan, desio/desengainu dialektikan teinkatu dela.

Mirandek esaten du, mundu hau ez dela irudihuts besterik. Baina Mirandek ez zuen irudihuts bezala maite mundua, ez horixe! Mirande mistiko bat zen, baina ez asketa.

Zer axola dio —esango du Mirandek— «gizakideek» (horrelaxe berak, alegia, kakotx artean «gizakideak») amets zaharretan badiraute? «Bere haiekiko har-emanak iduripen hutsa direla ta...». Bere haiekiko harremanetan guziz errealak ziren, ordea, ez irudipenak, Miranderen sofrikarioak!

Miranderen esperentzietan konstante bat soma genezake (oiloa ala arrautza lehenago den, arduratu gabe orain): Mirandek maite dituen gauzak, denak ruina dira. Hondamendi hutsa, deus ez.

Mirandek euskal ipuin zaharrak eta mitologia maite zituen: hondakin puska batzuk, Elizak eta politika erromazaleak porrokaturik lehenengo, mentalitate modernoak xahaturik azkenik, deus ez.

Mirandek euskara, euskal kultura, maite zituen: hondamendi galanta hori ere. «Euskara ez da, eta ihoiz ere ez da izan, kultura hizkuntza bat». Hortik, ezin esanezko zailtasunak eta korapiloak sortzen dira. «Nor izan daiteke segur euskal politikariak eta **intelligentza** zailtasun horiek beren gain hartzera gertu diratekela? Beren oraindainoko jokaeratik epaitu eta, hori ezin sinets dezaket».

Mirandek Euskal Herria maite zuen. «Baina asperturik nago zinez aldi huntan Euskal Herriaz».

Abertzale zen: eta abertzaletasuna goitik behera hondaturik zegoen orduantxe; Hegoaldean frankismoak harmaz porrokaturik, Ifarraldean konzientzia faltak. Okerrago zuena, izpiritu bakezale «ohoragarritz» eta demokratismoz ahuldua eta buru altxatzeko gauzaetzua, ikusten zuen Mirandek abertzaletasuna. «Euskaltzale eta abertzaleen artean ene ideietako batño ere» ez zuen kausitzen.

Mirandek zangar eta burgoi nahi gintuen euskaldunok: eus-

kaldun «zintzo» negargarriak besterik ez zuen ikusten, ik. **Euskaldun zintzoen balada.**

Mirandek gutiengo herriak maite zituen, euskaldunak, bretoinak, okzitanoak, irlandarrak, kornubiarrak...: hondamendi hutsa. Edertasun zanpatuak, dolorearen dolorez maitatuak, denak. «Minoritate madarigarrion maitasunak ez dit eni sekula profeturik ekarri!». «Euskaldunen eta bretoinen artean egoten naizen aldikal, herri minoritaten baithango fedea galtzen dut».

Badirudi Mirandek maitasun benetan pozgarri eta itxaropenez bete zezakeenik, ez duela bat izan, bat ere. Miranderen maitasun denak dolorezkoak dira. «Amor es triste».

Esperentzia konstante honi zor zaio eta dagokio **Ur bazterrean**-go lora zimelen mezua:

Oro hilkizun dira, POLIT ETA EZTI DIRENAK
ORO: nesken irriak, haurtxoen irriak...

Historian nahiz inguruan eta bere bihotzean, Mirandek horixe ikusten du: edertasuna pasa egiten da; haurrak hazi egiten dira; maitasuna pasa egiten da eta asperkudetan bukatzen da... Polit eta ezti direnak oro zanpatu eta hondatu egiten dira. Indarra bakarrik da beti gelditzen. Zoria «indartzale eta indardunen zale, hilkizunen hilgarri» da. Hori da legea. Indarra da lege, ez ederra, ez maitagarria.

Polit denak, ezti guziak, makalak oro, puskatzen ditiat, beren zorakeria eta zintzokeriekin batera (**Ur bazterrean**, begira **zintzokeria!**).

Mirandek batera aipatzen ditu gauza eder-eztiak eta makalak.. Hilkizun dira. Deus ez dira. Horixe sortzen dio egunoroko esperentzia etengabeak. Beraz, maite dituen edertasunok hil beharreko badira, ezdeus badira, besteak ere deus ez direla, konkludituz mendekatuko da Mirande. Mundu hau ez da erreala.

Mirandek izpiritu finezko mundu bat maite zuen eta izpiritu zakatzeko munduan bizi zen. Izpirituz betetako moral librea maite eta izpiritu gabeko moral baten azpian zapartatu. Paganismoa maite eta gizarte artxikristauak hain zuzen Euskadin, Bretanian, Irlandan...

Gizonaren eta emakumearen arteko bizitza intimo izpirituala maite, baina: «guzia beti berdin, egunero ordu berean lanera, egunero lankide berak, egunero hizketaldi berak, egunero emakume bera etxean!».

Mirande «faxista» egin zen (anarko-faxista). Konsekuentzia logiko bat zuen hori, munduaren errealtatea ukatu zuenean bezalaxe.

Hau da Miranderen drama. Desioen mundua, errealtateen mundua. Adibideak ekar genitzake oraindik ugari. Baina ondoena Mirandek berak **Haur besoetakoa**-n azaldu digu drama hori. Nobela guzian. Nobela hasierako bi orrialdetan bildukia-go: maitearen maitagarritasuna berehala higatzen da; higuingarri bihurtzen da orduan. Nexka batek, haur batek, beti haur gelditu behar luke (heriotzekoan esango duenez).

Ez balitz hain polita izan, sekula kasu egingen ote zion bere alaba besoetakoari? Ez beharbada; errukiz zuen bere etsean hartu, Theresa umezurtz gelditu zenean; urteak baziren ez zuela ikusi, eta ez zekien eta nolakoa zen ere. Gutxi asmatzen zuen, orduan, aste zenbaiten bururako zertaturirik lizatekeen Theresa txiki hori zela kausa. Eta orain, susmatzen hasia zen gorputz eder hori, bere edertasun mozgorgarriagatik eta guziz ere, sinbolo bat baizik ez zela, haren bihotz urduria herri-minez jotzen zuen zerbaiten sinboloa [Miranderen obran leku inportantea hartzen du nostalgik!], baina oi! inoiz ez zuen orain sinbolo hori behar bezala ikertzeko astirik izanen... Hain gazte zelarrik, Theresak ez zuen hainbat aldiz adin horretako hurrek duten mehetasuna erakusten, nahiz, zeruari esker, ez zen oraindik formatua neskato goiztarregiak

diren bezala. Baina emakume batenaren eztitasuna zedukan haren larru esnetsuak eta haren iztarrak, mardul eta fresko zirenak, berotasun batez iraganak, izaten ziren gizonaren eskuak heien gainean zabaltzen zirelarik eta barruko aldera eztiki oratzen zituztelarik. Urre eta marmorezko usain-ontzi bat zedukan hor eskuen artean eta, makurturik, ahoratzen zuen usain maite hori, hainbat mozkor-erazten zuena. Eta Theresaren haur-emetasunaren zigilua hain sotilki zekarren sabeltxo ordo horri, ozta antzen hasia zen bular zuri horri bere zorabioan begiratzen ziolarik, murmurikatu zuen, bet-betan goibel-durik: «**Et les fruits passeront la promesse des fleurs...**» Bai zoritxarrez; handik urte gutxi batzuetara, hiruzpalau urteren bururako, betiko joana zatekeen haren haurtasuna; lore berri bat izateko ordez, udako fruitu lirin bat izanen zen maitaleen hortz erruki-gabekoek osk egingo ziotena eta, laster udazkenak zimel-eraziko zuena... Handik urte zenbaitetara, beltzaranduko zen urrezkotasun hori guztia, endaren hala-beharraz, eta sexuaren hala-beharraz haragi arin eta malgu hori mardulegi, beteegi eginen zen. Begiak orain bezain nabar eta garbi egonen zitzaizkion noski, baina orain begi horietatik so egiten zion arima, bere aldatu ezinean ere, estaliko, eskutatuko zen Theresa-
ren gainerako bizi guztirako eta haren ordez, emakume baten espiritu huts eta itsuak so eginen zion... Nazkagarria! Hobe lizateke bai oraintxe hil lekion, bere haur-emetasuna orbandu gaberik zedukalarik, bihoztzean zauri sendatu ezin bat utzi behar bazion ere.

Arriskugarri da guzi honi, eta «Mirande eta kristautasuna» testuinguruan areago, Miranderen drama deitzea. Baten-batek erraz har dezaiguke ohizko moralismo kristau aspergarriak egin ohi zuen eran; buru hiltzea ere moral libururen batetako ez dakit zenbaikarren orrialdetan esan zenaren arabera epaitzen bait da, Mirandek arrazoi guziz gorrotatzen zuen moralismo zi-

kin eta triste, izpiritu zimur, pobre-pobre-pobreak, hartu ohi duen alderditik. Baina oinarritzkoa da guzi hau Mirandek konprenitzeko. Ez dugu sentidu hortan aipatzen, ez, Miranderen drama. Ziztrinkerion eta kaskarkerion oso gaintetik zegoenaren drama, eta gaintetik zegoelakoxe sortu zitzaiona, aipatzen dugu. Gizon izpiritual baten drama izpiritu gabeko mundu batetan.

Mirandek, funtsean, moralista eta perfekzionista bat da, erdi-purdikeriazko eta moraltasunik gabeko —moral gabeko huts eta beste ezer ez, inmoralik ere ez— mundu eskas honetan. Esteta bat, erredituen eta hobarien munduon.

Maite du mundua. Baina gizonon mundua gezur xuriz, konbentzionalismoz, moralkeriaz (keriaz, holaxe esango du Mirandek), dogmatismoz, errespetu faltsoz, mediokritatez, jauntxo diplomatuz, emakume izpiritu gabekoz, obligazioz, zintzokeriaz, mila leialtasun zamaz, mekanismoz, horarioz, beterik dago. Munduak min egiten dio Miranderi. Mundua aspergarri da.

Mirandek bihotzez eta arimaz euskalduna da. Zuberotar garbia. Baina Parisen sortu zen eta han bizi da. Haren herria urruti dago. Kilometroaz ere baino urrutiago izpirituz. Mirandek, iadantik, paristarra da, guziz zuberotar izanik. Harek maite duen Euskal Herria, ez da, den Euskal Herria, bere ustetan izan behar lukeena baino. Aldarazi nahi luke eta ezin du. Miranderi Euskal Herriak min eman dio. Etsitzeraino min.

Errealitateak horiek badira, errealitateak ezer ez direla, esango du. Errainu eta irudipen huts. Baina, horra: teoriak ezin gauzak desegin.

Egin du Mirandek burrukarik ere, egin du. Besterik ez du egin. Poeta batek eta artista jenial batek daukan harma bakarraz, gerra etengabea egin dio mundu horri: irudimenez, fantesiaz.

Mirandek bere irudipenetako mundu eder berri-berria eraiki digu bere obran. Esteta baten mundu pagano ezti. Librea. Edertasunezko eta gozotasunezko mundu garbia.

Irekia. Dorre zahar erromantikuz eta zaldunez, jauregiko

etxenagusi dekadentez, neska gaxtearen bular zurien ikaraz eta Theresaren larru eztitasun eta malgutasun biluziz, amodiozko historio sekretoz, Beethovenen sonataz eta Schuberten **Amaitu gabeko**-z, harbitxizko jauregi dorredunen ametsez, bizio ezkutu apasionagarritz, ur luminos hotx gardenez, undinaz eta sorgin lirainez... (13).

Haur besoetakoa-n «gizona» da protagonista. Agian ez Mirande bera; baina haren espilu, oso-osorik. «Gizona», beste izen gabe, gizon soil eta gizona bera: prototipiko. Haren etsaiak erdi-gizonak, moral gabeko moralistak, kultura gabeko kulturalistak, konbentzio guzietan lotutako monigoteak, izango bait dira. Bakarra salbatzen da: pintorea! (Mirande bera, noski).

Hona nobelaren hasiera:

Martxoko egun bat zen. Sartaldetik zetorren hai-zeak, itsasoko oihartzunen ekarle, makur-erazten zitu-entuen parkeko zuhaitz ilunak sala-leihoaren aurrean; intzirika ari ziren, eta iharrostean ziren ontzi-mastak izan bailirakeen ekaitz baten jostagailu. Bazirudien giza-bihotz baten amets [amets] maiteena, ontzi-irudi haietara emanaz, urrutira eramaneen zutela, beti urrutirago amets [amets!] orok loratze ta betegintzarre duen ugarte doatsuetaraino...

Samaldaka sujestiorako elementu literarioak: sala bat, leiho aurrean parkea, zuhaitz ilunak, haize intziririk, itasontzi mastak, ametsak, urruntasun mina, amets orok loratze eta betegintzarre duen urrutiko ugarteak...

Jauregi batetan gaude. Hor bizi da gizona. Eta euskal nobela politenetako batetan gaude; polit, beharbada politena.

(13) **Undinak** (lat. **unda**, uhin-etik), uretako izaki legendariak, emakumezkoak, baina arima gabekoak, gizon batek esposatzearen bidez beren egoera horretatik reskatatzea itxaroten dutenak, Teofrasto Lesbokoak dioenez. Maiz-sarri aipatuak literaturan, Erromantizismoan bereziki (adbz. F. Baron de la Motte Fouquéren **Undine**, 1811, E.T.A. Hoffmann eta Lortzingek operatara eramana, 1845).

«Salan bero zen eta goxo... Gar biziak xinpartak zerabilzkien utegian, alai eta zalapartari —egurrezko suak baizik ez zituen onartzen gizonak; ez zuen nahi esan-delako aurrerapenak haren etxe zaharra deusetan ere itxuraz alda eta itsus-eraz lezan... Gizarteko eginbideak zituen eragile, pentsatzen zuen ironia mingar batekin, etxe-ondo zahar baten jabe ta leinu ohoragarri bateko seme denaren eginbideak... naiko lotsa-gai ematen zion bere leinuari, hogei eta hamar urteetara heldurik eta beti ere lan egin gabe bizi izanaz, gurasoek utzi zioten diru apurra janaz», etc.

Hori da, ba, «gizona».

Itsas ondoan, parke baten aldean, jauregi dotore zaharrear, salan tximiniko sua biztuta, estilo zaharrear, teknikak ez dakion santutegia profana, gurasoek utzitako dirutik, neskamearekin bakar-bakarrik eta neskamearekin zipotz («Urteak eta urteak baldin baziren zerbitzatzen zuela leialki, aurretik haren gurasoak egin zituen bezala...»), holaxe bizi den gizonak, ez du kolperik lan egiten, musika aleman goibel eta samurra entzuten du, «barrurakor eta oroz-gainekoa» (latin herrietako musika zaratatsua ezin jasan du), bibliotekan egoten da eguna ametsetan, lotara baino lehen vodka eraten du, «harbitxizko jauregi dorredun bat haren inguruan eraikiz, hartan jaun eta jabe eskubide osokoa izanen baitzen, jendeen zintzotasun (!) ankerretik sendoki zaindua». Materialki bere marfilezko dorrean bizi da. Estudioan pasa ditu urteak. Mota guzietako alkoholak dastatu ditu. Gurasoak hil zitzaizkionean etxera etorri zen, «eta herrikoiz aterata saiatu zen», ez zuen lortu; orain baztertu du herrikoiz izaten saiatzea. Ez daki bere «egiazko nortasuna non zegoen», ez «zer nahi zuen haren bihotzak», ametsez eta nostalgiaz bizi da —ESTETA BATEN SOLAS ALFERRA.

Burges tipo dekadente bat, esango dugu. Noble dejeneraturren bat edo, apika, «marinel zangarren» odolekoa (euskaldun jatorra, dudarik gabe), «etxe-ondo zahar baten jabe eta leinu ohoragarri bateko seme». Zer nahi duzu gehiago, euskal ideologia jator-jatorrean. Gogorik batere gabe, baina emakumearen

gorputza —sorgor emale bezala, gabetako vodka bezalaxe— irrikatzen duelako, eta ohiturei buru ez egitearren, «giza-saldoan sartzea ontzat hartu duena»: hots, askok desiatu duen neska eder batekin ezkontzea. Halare despreziatu egiten du «emakume baten espiritu huts eta itsua».

Maite duena liburuak eta musika dira, eta ametsetan egoitea bibliotekan. Eta nexkato bat gutiziatzen du, ume bat, haur besoetakoa, «walkiria xiki baten urrezko bi trentzen artean elurtsu eta garbi agiri zen aurpegitxo». Eta promesak egiten dizkio walkiritxoari: haren «apaingarritzat, urre eta harbitxizko altxorrak bilduko zizkieten mehatzetan esklabo larru beltzek; haien gainean izanen zen haur zuri eta horaila agintari, ezin hurranduzko printzesa bat bezala». Amets egiten du, nexkarekin atzerriko lurralde urruti ezagun-gabeetara joatea: «Hegoaldeko herri eguzkitsu eta koloredun batera? —eta jadanik haurra ba zekusan berarekin itsasoko ur epeletan iherika, edo Aitzinateko hiriak eta herriak ikuskatzen zituztelarik, museoetan edo harri zaharren artean... Ala ametsaren iratzartzaile den Ifarralderantz ziren ote joanen, bere urratsak oihan sakonetan barrura ezkutatzera, edo-ta, itsas-nesken dantza-leku izandako arkaitzetan eserita, uhinen eta bere bihotzen musika uzuari entzutera?».

Berak konstruitu duen lilurazko mundu aristokratiko, elegante, aparte batetan bizi da gizona, materialki nahiz izpiritualki. Euskaldun zaharren «spiritu aristokratikoa» goratu du Mirandek.

Gizonak, orainokoa, berak asma eta eraik lezake bere mundua, gustatzen zaion era-eran, posibilitate guziak zabalik dauzka, ametsak errealtate dira. Ez lan beharrak, ez horarioek, ezerk ez du mozten gizonaren mundua. Ametsa bezain libre da. Izpiritu urdineko aristokrata bat.

Miranderen obran, halare, sarri agertzen da, bat-batean, zerbait «amets hutsa» izan litekeen bildurra, sintomatiko bait da. «Poetaren bihotzean sartu da duda bat: ikusten dituenok oro... bere begien, bere zentzuen iduripen bat baizik ez ba dira?».

Badago Jakes gogoetan, eta «amets bakar bat, —amets hutsa ote?»», moztan ditu gogoetak.

Neskatxak poesian:

Han, palmadoi pherde hartan
erori ziren neskatxak
elkharren besoetara.

Non zan hori? Zer egun zan?
Ala dena gau-amets bat
izan othe da bakharrik?

Hori da problema. Amestiaren amets egiteko grina eta amets egiteko bildurra. Errealitateak eta ametsak nahasten dira. Dena ez ote den, orduan, undinak bezala: «aenigma zarade ulhermenentzat /. Nor zara? Ala bethi gezurrekoa?». Eta **Amsterdameko orhoitzapen bat** bezalaxe:

Utzirik eme bero 'ta
gizon mozkorren multzoak,
nindabilano parketan, hurran
haur goiz-loratu gozoak,
ene zentzuak oi! ez ziraden
kalvindar eta zintzoak...

.....

Guztia balitz ere gezur bat
garagar arnoz sorthua
zure orhoitzak daut populkatzen
gaur Pariseko mortua,
amets duela nere bihotzak
Amsterdameko portua.

Nobelan ere, buru-hilez bukatuko den trajeria, hasten denean, gizona,

Bibliotekan zegoen, ametsetan; bet-betan entzun zituen norbaiten urratsak etse-aitzineko atera eramaten zuen bide-zigorrean zeihar. Estonatu zen...

Mirande, nobelako gizona bezala, ametsetan ari denean, dago bere buruarekin; ametsetan sentitzen da norbera («amets bideetan galtzen nintzan»). Ametsetan gudari gogor sentitzen da: harmak eskuan erortzen da mendian, goiz batez, etsaien eskutik (**Eresi**); etsai denak garbitzen ditu (**Jeiki, jeiki; Harrizko jainko bati**). Ametsetan undinak eta itsas-neskak eta sorgin dantzariak eta esklabu beltzak eta printzesa agintariak sortzen ditu... Ametsetako mundu diztiratsua sortu digu. Mundu beltza bera, mozkor, hiltzaile, urkatu, bela beltz eta kanposantuen mundua bera, argia da Mirande baitan. Estetikoa, zentzu positibuenean. «Harentzat egintza azkenean ametsaren senide izan zen» (**Haur besoetakoa**).

Baina egunoroko ordu gogorretan, ametsetatik kanpora, gauzak bestela dira. Poeta ez da gudaririk; etsai denak garbitzea eta Euskadi zut eraikitzea, poesia bat baino gehiago kostatzen da...

Bai, euskaldunok, txit noble eta aristokratiko gara, denok, badakizu. Baina, jauregietan asko ez dira bizi, lan egin behar gabe gutiago, nobelako gizonaren moduan. Eta Mirandek ere —«nik, eusko aitor-semeak!»— goizoro-goizoro lan gorrotatura joan behar... Hori da errealitatea. Mirande lan bila Parisera joandako zuberotar landerren seme da.

Egunoroko errealitatea horixe da: «buroko emakumeak... danak dirade itsusi». Eta da: «seiak jo arte ezin erten / aspertzen naiz, lor betean / büro zikintsu batean».

Eta da Euskadi gogaikarria: «badakite politika / pilota, dantza, kantika / bai eta kantu ez likits; / leitzen dakite Misala».

Eta da, errekek dakarren zakur zahar hila, Miranderen «hil anaia». Kaleetan neguan hotzak akabatzen dabiltzan zakur zorritsuak. Pigalleko putak da (ez itsas-neskak) eta haien arno beltz boza. Paris da, «puta zahar». Euskadi da, «Ene herri on

bakezalea / eliza zuriz bethea, / Goizerritiko Jaungoikoaren / herri hautetsi maitea».

Larunbat-arratsa da,
beharra zan;
astegunetako langile bizkorrak
zinemataratzen dira taka-taka
edo oheetara, ikhuzi ondoren
bihar igandeko
oinak, soina eta oro
ur-ziripen burbul zolietan;
ongi da! Jainkoak benedika ta begira ditzala
bihar arteo beren oheetan
lo-zurrungan eta, nahiz ez goseak,
ezkur-amets bat dutela.

Beste mundua hori da. Egunorokoa. Orduorokoa. Eta, orduan, ametsetan dabilenari, gertatzen zaio, «sorthu orduko urtzen zan / ene gogorapen oro».

Miranderen buru-bihotzetan bi munduok ikaragarritzko drama burukatzen ari dira. Ametsetako mundu ideal «burgesa», estetikoa, eta egunoroko bizitza prosaiko «burgesa», —«burjes xiki estu zikina», Mirandek esan bezala. Errealak biak dira, baina, azkenean bigarrena «errealago» (Mirandek mundu faltsu eta irreal eritziko ziokeena) munduon hura denez gero menpean gauzkana. Harek zanpatu du mirande. Etsiarari du. Ikus **Zergatik** poesia.

Mirandek onerizten diona eta onartzen duena, lehenengo mundua bakarrik da: argi eta libertatezkoa, edertasun eta gozotasunezkoa. «Gelatxo zuri garbian / neska dago / ilhe gorriak orrazten», eta hura. Beste mundua —iluna, aspergarria— Mirandek sofrizten duena da, ezin desegin duena, inola onartu ezin duena eta eraman ezin duena, gorrotatzen duena.

Eta kristautasuna errealitate grisen mundu gorrotatu honetan dago.

Kristautasunak nolatan ez dion Miranderi, bilatzen zuen

argia eta gozotasuna, eman, beste galderarik da. Batez ere, nolatan huts-hutsik utzi bide duen haren sentimentu estetikoa (liturgia!), ipuin eta misterio zaletasuna, maitasun egarria, naturarekiko sentitzen zuen samurtasuna (ik. haren **Behiak**), etc. Hain zuzen katolizismoak asebeste behar zukeela hori dena, pentsatuko litzateke: bere liturgiak, misterio munduz, Birjinarren kultoz eta bestez. Niri, behintzat, hala iruditu zait, haiekin ibiliz: ez sinestun gehienei, alegia, komunitate estetiko bat iruditu ohi zaiela katolizismoa, kanpotik.

Miranderen obran ez dago aztarrenik ere, misteriotasunak edo estetikak inoiz katolizismoa baitan inpresio egin dionik. Arrazoiak asko izan litezke: liturgia ez da beti oso estetikoa; misterioak aspaldian arrazionalismo zakueta sartuta darabilzki-gu (eta, dogmaka ebakita, buruz ikasten ere dira!); ohizkoak ere misterioa galtzen du; gaitzerizten zuen inguru guzia kristautau zen...

Nik uste dut, arrazoi inportante bat askatasuna dela. Miranderen «argizko munduan», mitologia germanikoa, Ifarraren nostalgia, hamabost urteko neska gazi-gezak eta gogorkeria bera, ala pedofilia, itsasoa bezala eta Gazteen lur mitikoa, etab., ez dira lehenengotik agiri diren horixe soil: beti askatasun espazioak dira. Misterioak, estetikak, aspaldi galdu zuten katolizismoan askatasun dimentsioa.

Beraz, ohargarri da, nola Miranderen ondotik, Txillardegiren nobeletan misterioaren eta Oteitzaren estetikan askatasun dimentsioaren berkonkista saioak dauzkagun. Katolizismoak galdu dituen dimentsioak berbilatzen dira.

MERRY CHRISTMAS

Bi munduen arteko guduan, Mirandek, batzuetan, erabat mundu positibuaren alde erabaki ditu, lur honetan nahiz bestean: mundu honetan undinaz, nexka politez, bestean Gazteen Lurrez.

Beste batzuetan lur hau baztertuz eta bestean itxaronez; azkenean positibua da soluzioa: mundu honek ez du errealitate-rik (**Jakintza berri bat: psikologi gaindikoa**); edo soluzio positiburik ez dago eta orduan mundu honek ez du sentidurik, eta beharbada besteak ere ez, hemen gabiltzako (ik. **Behiak; itxasuntzi zaharra** poesia).

Mirandek inoiz egin ez duena, bi munduak nolabait elkarrekin konjugatzea, da. Bi munduok, Miranderentzat, arras elkar ukatzen dute. Bion konpondiorik ez dago inola.

Liburuaren hasieran ikusi dugu, Mirandek, aitona on eskarmentatu baten antzera begira dezaiokeela barre-barrez kristautasunari, malezia xamur batez, zirikari, hasarre gabe: **Kofesio ona**. Beti ez da horrela. Miranderen filosofia ez da mundu honetan patxadan pipa erretzen egotekoxea. Drama bat da. Burruka. Antikonformismo. «Izpiritu aske bat» deritza bere buruari: izpiritu aske batek ez dauka esistitzerik Euskadin irabazi edo zapart egin gabe. Edo konpromisoak eginez, hori ere posibilitate bat da, ez okerrena, baina beti ez errazena ere, esanak esan Mirandek.

Mirandek konpromisorik ez zuen onartzen eta orduan ukazioa beste erremisiorik ez dago. Nolakoa edo halakoa, baina ukazioa.

Merry Christmas —Eguerri zoriontsu! Kristaudentzat Eguerri pozkario festa da. Sarri, zentzua galdu bait du, jendeari pozarazteko abisatzen dion kalendarioko eguna, besterik ez da izango. Baina gizonek ohitura xeble horietxek dituzte: kalendarioak egun batzu seinalatzen dizkienean, ikaragarritzko pozak eta festak egiten dituzte. Beraz, batzuek festaren mezuagatik eta besteak kalendarioagatik, baina Eguerritan denak poztu egin ohi dira.

Denak? Miranderen poesia garratzena **Merry Christmas** da, Eguerri zoriontsu, niretzat (**Ohiko Jainkoari** bainoago). Bildur naiz, Miranderen zentzu sozial-kritiko guziz bidezkoaz beste, hain zuzen zentzu sozial haundirik eta ez bihotz-zabaltasun apartik den beste zerbait ere, ez ote duen agertzen, jende sa-

malden pozak eta jaiak sortarazi duen poesia honek: besteen pozak tristatzenago du Mirande, ez besteen minak mintzen bakarrik.

«Hain zuzen —idazten du Peillenek— Jon Gabon gauean hil zaigu. Aspaldian hartutako erabakia zuen, eta egun haren garrantzia ezagutzeko aurkitu dut 1947-garrenean Gabon gaue-rako idatzi zuen frantses olerkia eta euskaraz jarri». Hona hemen Peillenek itzuli bezala:

Ozkarbian izar ederrek argitzen
ehun argiz izar ederrek distiratzen
armiarma iduri, zilar hari luzeen muturretan
zintzilikan.

Astoa arramaz, idia abesten, eta kanta ta arramaz
ere aingeru marfundixeak; haur ttipi bat sortu zaigu!...

Pozkarioz sudurretik abesten dute eliz atarietan
trumilkatzen direnek.

Jendeak kartoinezko ta igeltsuzko «Jaiotza»-ren
aintzinean lilluran daude; Baltazar Erregeren buruan
bost liberako bat sartzen dute...

...Eta Baltasar Erregek eskertzen, aurten hain txiro
den Jainko Onaren izenean burua inarrosiz.

Gaberdi mezaren ondotik Gabon afari! Kristauak,
jan eta edan berriz, haur ttipi bat jaio zaigu!

Eguerri alegera! Pozkariozko Eguberri! Egube-
rri on!

Baina Eguberri eguna, besteak bezalako edo bes-
teak baino txarrago denentzat?

Baina ametsetan dauden bizia-penara epaituak eta
gauaren ilunean zaldien intziriak entzuten dituzte-
nentzat?...

Minutu bakoitzak hirurogei sekundu eta sekunduak askoz gehiago duen haientzat?

Errabia nigarretan lokartzen direnak Pariseko karriken pozkario arrama entzuten dutelakotz?

Eguberri on!, hotel aurrean hotzikaratzen den putarentzat, eta azkenean Gabon mezik, dantza ondotik bezero berandu bat heltzen zaionean? Irri egin dio, sartzen da, sartzen du, baina urdeak! ez dio hogeï sos gehiago ematen.

Eguberri on!, emaitzarik sekulan hartzen ez dutenentzat? Eguberri on, sekulan emaitzarik egiten ez dutenentzat?

Zakur zaingu-mainguentzat, karrikako erreka izoztuetan laster izorratzen berotzen diren zakur goseti oraillentzat?

Eguberri on, oinazetan zinkurika datzaten baztertuentzat, zeren heien bihotza garbiegi dago?

Eguberri on, gaua bakarrik, liburu zahar bat irakurtzen denbora iraganik eta biziaren segeretua edirenik dardaratzen direnentzat? Eguberri on, nere lo gelan aspertzen naizen honentzat? Goiti-botakin koloreko hodei eta tximini zikin lur ikuspegi bikaina nere kortinen artetik behatzen dut... aspertzen naiz.

Aspergabetzeko erretzen dut, pipatzen dut, baina aspertzen naiz.

Hain bakun lizateke begiak hetsi eta atsedean har baneza? Baldin begiak hesten baditut badakit ke urdin eta untzostoz inguratu teilatu gorrizko etxe ttipi bat badagoela, nonbait iparraldean, eta han Hans eta Elsa mahain ertzean begiak apal, otoitz erraiten ari direla...

Edo bestela Ruthe edo Jackie, begiak Eguberri arruxkilez eta izotz-oskiz beterik.

Edo bestela ere Karloo eta Ryti eta urki oihanak...

Badakit Iparburu zelaietan haizeak ziztu dagiala, ziztu zuhaitz eta aintzira izoztuetan. Errota majikua-ren Jainkoak enkantoak eihotzen ditu; neska biloak, urki adarretan zintzilikatzen dituzte.

Esku ttipizko gizon orien ez dute bildurrik; Iparrorean ezurrez egin harpoinak dituzten gizon ori epotxen ez dute bildurrik; Elsa Gazteena eta Ederrena baita, puddinga adelatzen du.

Begiak berde, biloa urre eta gorosti abaiak iduri ezpainak.

Baina orobat da? Kanporat begiratzen dut urrun goiti-aurdikin eta tximini zikinak baino urrunago.

Eguberri izai, arrain gorri, alaitasun argi ontziz, zamatu horiek baino urrunago.

Urrun, hainitz urrun Munozuri gainean ilargia parez dagoen muno hotzean, nere Eguberri izaia dakust: muno gainean izai mehar bat dago, urkatu bildurti eta ihar bat junpatzen den urkabe bat. Oso parregarri, hainitz irriestingarri den lastozko txapela buruan eta ni bere katinaren muturrean balantzatzen dakust.

Ekialdetik, Mendebaletik, Iparraldetik, Hegoaldekik urkabeari buruzko mozko gotorrezko bela beltz hiltiarrak hegaldatzen dira, eta haizetan junpatzen den berilki ustelari jokatzen dira hegatin meharrak eta sudur-kantuz abesten dute zati bat jan aldikal: Eguberri on! Eguberri on!

Urkatu harrituak hegaztin mutiriak inarrosi zituen eta kuakatuz urrundu ziren eta hila ihes, itxaroten, egurukitzen nuelarik, nere gana...

Handik une batean nere baitan zegoen, bere be-soetan trinkatzen ninduen eta haren zauri guzietatik odola galtzen nuen nik.

...Abenduaren 25 bat zen, Kristau-aroko mila be-deratzi ehun berrogeitazazpigarren urteko Abenduaren 25-a. Eguberri on.

IHESI

Faxista hau ez da faxista. Inmoralista hau funtsean moral-tasun radikal garbi bat esijitzen ari da. Pagano hau mistiku bat da. Izpiritualista hau, poeta sensual-sensuala. Sinesle hau, es-keptiko galdu bat azkenean.

Non dago bera, gizon hau? Moralaren arazoa, bizitzaren eta heriotzaren sentidua, gizona zer den, arima zer den, erlijioa eta jainkoak zer diren, zorrozki aztertu ditu, pietate gabe; «zi-hurtasun kolektibu» guziak profanatu eta birrindu ditu, solu-zio aldera apuntatu du, eta dena airean zintzilik bezala utzi digu azkenean. Ez dio errematea eman diskursuari.

Trebeago da Mirande problemak erazten, soluzioak jazten baino. Kritikua da eta bakana.

Baina soluzio bilatzaile kartsu ere bada; eta bakana, egiatia. Mirande ez da beti kritika «jakintsuan» ari denaren zeregin ero-soan enplegatu, soluzioak bilatzea besterentzat utzita. Enple-gatu eta enpeinatu da. Aurkitu ez du egin. Edo, eskumenean zeukala, hartu, ez du egin. Lurrean utzi eta aurrera segitu du.

Soluzio bat izpirituaren heriotze puxka bat da. Eta Miran-dek, soluzio bilaketaren buruan, eseri eta pausatu eta soluzio gainean finkatu ordez, ametsetan hegaka bidaltzen du izpiritua, soluzioz kargatu gabe, «ugarte dohatsuetaraino».

Jakite argi bat baino hobe itxaropen ilun bat, urduri eta bizi.

Azkenean, Mirande, zihurtasun garbi-garbirik gabe aurkitzen da beti; nahiago du hala; soluzioan ez da gelditzen, bereztat mendean hartzeko eta defendatzeko. Mirandek ezin esan dezake inoiz: «hau nire lurra da; soluzio hau nirea da». «Dogma zehatzik» onartzea goizerritarra bada, zinez Mirande Goizerriaren beste punta-puntakoa zen. Pentsa liteke, uste liteke, halakorik sinestea ez da txorakeria, Geleyk uste du, —esango digu beti; hola eta hala da, beharbada... eta beharbada ez. Eta inoiz, irmo, «sinesten dut», esaten badigu, berehalaxe bigunduko du «sinets nezake» batekin.

...Haragia den lurra, gogoia den haizea, arima den ura.

Mirande gogoia eta ura da. Doan haizea, labaintzen den arima. Soluzioen konkistatzailezik ez da. «Amets ezin esanezkoari hegoak aske uzten zizkion Sartaldeko ugarte dohatsu haietaraino eramane zezan».

Bitartean ihesi dabil mundu honi. Mundutik askatu nahita. Gabean persegitzen duten oinkada aztunei ezin ihesi (**Zinopa**); deitzen duen undina bati ezin jarraiki. «Ihon ezin geldi».

Ihesi aritzea, sarri agertu arren, ez da gai bat beretzat Miranderen obran, Guziaren azpiko zola da, bi aldetan erdibituta munduarena.

Baina holako iheskari nabarmena **Haur besoetako** protagonista dugu, esate baterako. Nobela guzia da ihesi bat —eta itxarote bat, nostalgia. Ihesi dihoana ez bait doa, ihesi dago.

Ihesbide bat! —ihesbide bat bilatzen du, desesperaturik, gizonak. «Biek behar zituzten, biok gogaide izaki, bideak apaindu ihes egiteko». Bai «biok ihes eginik ziratekeen, betikotz, etsai guzien helmenetik —aski bihoztoi izanen baziren behintzat».

Heriotza da ihesbidea —«ez zuten beste ihesbiderik». «Zoriak utzi zien ihesbide bakar hura».

Gizona bere buruaren ihesi dabil. Lehenengo, Isabelekin (sorgor-emale bat), ezkontzea erabakitzen du, bakartadeari ihesi. Gero Isabeli ihesi joango da Theresagana. Giza saldoari ihesi. Etsaiengandik ihesi, Theresarekin, heriotzera joango da. Ez du pausalekurik ez pausurik. Beti ihesi ibili beharko du.

Esan-ezinezko herri-min batek, nostalgiak, betetzen dio ari-ma. Urrun-geroen mina du bihotzean. Persegitu bat da mundu honetan.

Theresarekin bakartadean ezkutatuko eta babestuko da, «jende horietatik ihes». «Ordura arteinoko ezagunak oro ahaztu, bere zorion berria eragozpenik gabe gozatu ahal izatekotz». Lagunarterik ez du nahi. «Theresa zen premiazko gizarte bakarra». Horixe zen haren zoriona.

Hilik zegoen bientzat inguruko mundua oro, biok baizik ez ziren gelditzen xori-kantaz eta lore-usainez gonburu beteriko atsedeen-baratza batean beste Eden guztiak gutiesgarri egiten baitzuten.

Hondartzan, «jenderik ez zegoen leku bat bilatzen zuten eta, ondarrean jarririk, biak eskutik helduta, itsasoari begira egoten ziren».

...eta neskatoaren laguntzarekin ezagutu nahi zuten poz bakan guztiez merezi zuten bezala gozatekotz, eragozpenik eta gibel-asmorik ezean, askatasun oso bat behar zuten inor jakile gabe, inor so egile gabe... Beharbada, herritik kanpora joan beharko zuten ere.

Berak bakarrik nahi du haren irakasle, haren maisu, haren agintari, haren maitale eta maitatu, haren adiskide, haren ezagun bakar izan. «Eskolatik kanpo ez zuten Theresak aita besotakoaz beste inor ikusiko, ez bere adineko lagunik, are gutiago jende adinekorik, irakasle ala ahaide ala beste nor-nahi». «Hemendik aurrera, nik aukeratuko dizkiodan jantziak jantziko ditu Theresak, nik aukeratuko dizkiodan liburuak irakurriko ditu...»

Oiloa etxe ondoan harrapatu eta bere ehizearekin basazulo ezkutu-ekzutuan ezkutatu den piztia dirudi, hagin artean bere xoria, zoriona, guziengandik ihesi.

Nik daunat irakatsiko ikasi behar dunan guztia, eta eskolan besteengandik ikasiak oro ahaztu behar ditun... Eta gaurgero, Theresa, ni izanen naun hire aita eta ama, hire senide eta ahaide, hire lagun bakarra. Nahi dinat enekin baizik ez hadila ibil, ez dinat nahi nitzaz kanpo beste ezagunik izan dezanan.

.....

Udazkenerako bere herri eta etsera itzuli ziratekeenean, haurra ez zen areago eskolara ibiliko; berekin etsean edukiko zuen beti aita besoetakoak, arima, gorputz eta gogo beti eskumenean; eta Theresak ez zuen orduan bere lagun gazteetarik inor ikusteko baimenik izanen... aldendu behar zen haunditzen ari ziren beste haurrengandik.

Alkoholetan errefujiatzen da herstuasun herstuenetan. Hala bukatzen da nobela. apropos, hortan ere nobela hasierari oihartzun eginez (gizonaren sekretua pintoreari fidatu zaio), esaldi honekintxe: pintorea «karrikako lehengo ostatuan sartu zen, bere amets etsigarria alkoholetan itotzeko». «Inolaz ere ezin sar zitekeen gaur bere etsean, bere etseko jende zintzo eta zuzenen artean!».

Gizona, hiltzeko bildur bada, mozkortzera joaten da, «bere koldarkeria madarikatzen zuelarik etsituta».

Erasoa datorkioenean, ahaideek Theresa kosta ala kosta kendu nahi bait diote, alkoholetan itotzen du larria:

Moldegaizki jaiki zen, eta ozta-ozta zutik egonaz errestatu zen liburutegi-sail berezi batera, oroit baitzen vodka-botila oso bat han ezkutan utzirik. Isabela joan zen eguna ezkerro ez zuen edaria dastatu —baina

gaur, gaur zoratuko zen ez bazen berehala horditzen!
Esker onezko malkoak isuri zituen, eta otoitz bat mur-
murikatu zuen edozein jainkoren aldera, azkenekotz,
bere behatz enbaldituekin, tapoia kendu ahal izan zue-
nean. Alkohol maitea edan zuen, irentsi zuen, erdia
soinekoetara erortzen zitzaiolarik, burutik eginda irudi
barrez ari zela... Berriz edan, hasnasa hartzeko ahal
bezain denbora guti galduz...

Edariak ematen dio, «edozer eragozpenetatik, edozein era-
gozlerengandik, Theresa eta bere burua askatzeko boterea. Ge-
hiago edan behar zuen».

Nobela hasieran esplikatzan digu Mirandek, pasarte luze
samar batetan, zergatik edaten duen gizonak: bihotz min,
amets, sorgortu, mozkorraldi, lo, ihesbide, gaitz-itxaropena
uxatu, harbitxizko jauregi dorredun bat eta hartan bera jaun
eta jabe..., giltzarri konzeptuak dira denak:

Edaten ari zen, emeki baina lasaiki, eta pattarra
bur-muinak berotzen hasia zitzaion eta pentsamentu
minak sorgortzen azaletik baizik ez, ondikotz! Ba ze-
kien aski zuela sakonkixea go pentsatzea, berriz ere
bihotz-min ezin aitortuzkoa eratortzekotz, inoiz baino
mingarriago. Beharko zuen bai askoz gehiago edan
oheratu baino lehen; beharko zion vodkak egiazko
mozkorraldi bat eman, lo egiteagatik soilki —ametsik
gabeko lo astun, ahatz-erazgarri bat. Goizera artean,
soilki. Goiz ozkirriak berriz ere betiko mundua esna
eraziko zuen, harentzat ihesbiderik gehiago ez zukeena.
Eginbide estutik ibiliko zen handik aurrera, eta zintzo
guztien goraiпуak merezituko zituen hark ere. Ai!
vodkak krea ahal baleza berekiko mundu bat, zoroa,
burzoratua, baina Isabelarik, neskamerik, ezagunik,
gezurrezko eginbiderik behintzat aurkeztuko ez lio-
kena...

.....

Beraren gaztaroko egunak ber-irazaten zituen bere gogoan, mota guztietako alkoholek koloraturiko egunak. Mutil zelarik, biziak zarakuskion gaitz-itxaropena uxatzeagatik hasi zen edaten, gurasoen eta lagunen isilean; gizon-adinera heldu zenean, eta haren kezka eta bildurak egiaztaturik izan zirenean, bere zorion ilortuen intziriak, bere atsegin okaztagarrien oroipenak ohiltzeagatik edaten jarraiki zen, edonoren agerrean (...). Bitartean, biharamoneko goizera arte eramanen zuen vodkak, harbitxizko jauregi dorredun bat haren inguruan eraikiz, hartan jaun eta jabe eskubide osokoa izanen baitzen, jendeen zintzotasun ankerretik sendoki zaindua. Goizeradinokoan... baina goiz-sentiak, hiltzera dihoazen aurpegi zurbilak azken aldikotz argitzen dituztenetakoa izanen zen goiz arreak, lurtara eraziko zion dorre zaindaria...

Alkoholak aldentzen du, salbatzen du, errealtate mingarritik. Alkoholak darama —goizeraino, behintzat— ametsetako errealtate gozora, jendeen zintzotasun ankerrik, eginbide hersturik eta zintzoen goraipurik, han ez bait da. «Ahatz-erazgarri» da, oroipen ohilgarri, gaitz-itxaropenen uxagarri. Harek askatzen du «betiko mundutik», «harentzat ihesbiderik gehiago ez zukeena» bait da hori: betiko mundua.

Alkoholak sortzen dizkio gogo akituari beharrezko hegalak ametsetarako:

Atzerri hontan nola ez laite
ene gogoa enoa?
Nephentes ordez beharrik badut
jaunen garagar arnoa:
jasan hala hurrupaturik
Paristik urrun banoa...

Thesi beti. Baina ez dago nora ihes egin. Mirandek berak ezin ederkiago agertu du Kafka tankerako **Zinopa** ipuinean.

GAZTEEN LURRA: ZERU ESPERANTZA DESESPERANTZATU BAT

Gizona ametsetan egon ohi zaizu, begiak hertsita, edo erdi hertsita, ahazturik mundua. Musika goibel bat entzunez. Edonolako planak egiten, sekula ez dituenak egikarituko.

Irudimenaren solas bat zen hori, soilki, bai baitzekien harentzat ametsa sekula ez zela egintzaren senide izanen...

Itxasuntzi zaharra da Mirande. «Zei harka zethorren untzia / bide zehaztuak utzia / baleran zebilen uretan...» Ez dakit: kasi autorretratoa dirudi poesiak. Begiratzen dugu haren ibilbidea eta horixe agertzen zaigu: zeharka zetorren Mirande, bide jakinetako gizarte herstu batetan, beti antikonformista, bide zehaztuak utzia; baleran, deliberatu bai, baina ez militante fanatiko; kontra bai, baina zalantzaz beti zeren alde.

Zurbil marinelak zubitik
so ziren, joan zoan urari

bela beltz zabalak haizeak
goizaldebako lui hezeak
joiten ez zituen haboro
eta arraunak oro geldirik
aurrera badarik zihoan

oihal beltz hiruki zabalak
arratseko aize jabalak
hunki ez arren, zerk zeroan
untzi hori arin aurrera?
Marinel ixilok dakite.

Haizerik ez bela beltzetan, arraunak oro geldi, baina beti aurrera, zerk daraman ere gabe aurrera. Bizitzan aukerarik beti sortzen da, nagikeria dela ala atsedean irabazia, ibiltzeari utzi

eta xoko goxoren batetan lasai toki hartu eta bertan gelditzeko. Baina Mirande, lurralde adeitsu jatorren albotiko bidez, artega, inon ezin aingura bota, beti aurrera, lur irritsuak izanak gatik, ez zen han gelditu. Maite zuen mundu klasiku argia, «izaro soinudun ozenak /, aitzinako jainko zuzenak / heietan baitziran jauresten / marmorezko etxe goretan...» Gelditu, ordea, paganismo klasikuzalean ere ez zen gelditu. Maite zituen eta aztertu zituen eta bihotz-bihotzean kasi sinesten ere zituen mito germanikoak, euskal mitoak, ipuin zaharrak, antzina-antzinako jakituria zaharra. Baina ez zen gelditu han ere. Bila eta bila. Ospatzen zituen eta gozatzen zituen bizitzako atseginak, baina plazeretan ere ez zen gelditu.

Izaro heietan neskatzak
ekhi-urhezko soin exkasak
ondartzan zautzanak irrikiz,
marinelen solhas-gai bakhan,
eta han geratu ez ziran.

No!arebait, hildakoz kargaturik zetorren bidean. Hil zuen hainbat amets, sakrifikatu zuen hainbat nahikaria, bere gain hartu zuen hainbat oinaze eta pena (abertzale izateak bakarrik hamaika sortu ziona!), garaitzarik eman ez zion hainbeste gurenda eta derrotatu ez zuen hainbeste derrota. «Ertzo!», esango zuketean, noski, hura ikusten zuten «errealistek». Baina Mirandek aurrera jotzen zuen, beti aurrera.

Baina nora?

Uraren lankaden azantzaz,
ez iguzkiaren erlantzaz
axoltzen ez ziran batere
hoik untzilariok: alphertu
baitziran bideko asperaz.

Untzia ber-oguz utzirik,
bihotz-minak oro hezirik
hondamen haiduru zegoen
nahi enduregiz ez ausart
untzia suthautsez jauzaraz.

Zer bilatzen zuen Mirandek? Euskal mito, moral berri, bere ezinegonarentzat aberririk, sorgintasun fenomeno, bizitza eta heriotza berak, baino aruntzago, ihesi beti, bilatzen zuena, galdetzen dugu. Gizonak, irakurtzen dugu **Haur besoetakoa**-n:

...bere herri-minaren jaioterri hura zekusan barruko begiekin, eta bere amets ezin esanezkoari hegoak aske uzten zizkion Sartaldeko uharte dohatsu haietaraino eraman zezan, Gazteen Lur ezkutu hartaraino.

1. Herri-min, 2. amets, 3. barruko begi, 4. uharte dohatsu-Gazteen Lur: horra lau elementu elkarren osagarri. Giltza bat Miranderen interpretaziorako.

«Bihotz min» da Mirande; kupida gabeko adimen zorrozturn gizona bihotz barrenean nostalgiak isil-isilik erretzen du, su gabeko antsia gar ilun batez. Eta ametsetan egoten da. Adimenak ezin gaindia dezakeen muga hesia barneko begiz iraganda, ikus eta ohart ez daitekeena ikusten eta dastatzen, gauza zer-garrien eta ukigarrien mundua baino aruntzago, «herri-minaren jaioterrian».

Mirandek uste du, gau eta egun bihotzetik darion nostalgia, bere barneko izpirituaren herri-mina dela. Izpirituak bere lehengo hartara itzuli nahi luke, jatorrizko garbitasunera, izpiritualtasunera, gorputzaren irrika eta grina itsusiak gabe, gorputzak mugatuta gabe, gizarteko betebeharrak zoro ikolak gabe, izpiritu huts eta libre.

Ametsetan egoten da galduta, barneratuta, «orduan bait dago gizarima bere egiatzko izanean». «Sorgortzen zaizkio atzaraldiko Oroimena eta Adimena, ... bere baitaratu da, egia aurkitu du bere baitan»: deus ez da mundua irudipen hutsa baino. Nola liteke gizonek, bere inguruan, mundu ezerez horri, erita-

sun bat baizik ez den itxura horri, beren ardura oro ematea? Denak itsuaren itsu ote?

Ala hura baizik ez zen inoiz izan besteok ez bezala. Sartaldetar itsasoko bazterrean zegoen herrialde zahar horretan, herritarren artetik hark bakarrik ote zuen sekula antsiatu eta ikusi, itsasoaz bestaldean, heriotze gabeko Gazteen Lurra, kristalezko abardun sagar-ondoaz estalia den hura?

Gazteen Lurraren min da gizona bakartadean eta tristuraz dagoenean; zorionaren distiratan, orobat, Theresarekin, jenderik ez dagoen leku batetan eseri ondartzan, eta begira egoten da itsasoari, bere zorionaren gozoa gozaten. Ipuinak asmatzen dizkio nexkatoari, ametsak amestarazten dizkio, printzesa bat izanen dela eta esklabu larru beltzek mehatzetan urre eta harbitxizko altxorrak bilduko dituztela harentzat... Baina:

Urrutiko Amerikak baino urrutiago, Indianoen lur urretsuak baino urrezkoago diren uharte dohatsuak, ordea, ez zizkion oraindik aipatzen, han, arimaren sorterri den Gazteen Lur mirarizko hartan, baitzatekeen Theresa printzesa eta agintari zor zitzaion araura.

Tristuran ala pozkarioan, Gazteen Lurra beti xede eta jomuga: itsasoaz bestaldean dagoen heriotze gabeko Gazteen Lurra.

Gero, zintzo eta zuzen ohoragarriek Theresa eta bera nahi dituzte derrigor apartatu, zoritxarrean amilduaz. Zer nahi diete, funtsean? Nahi diete beren zorion garbia zanpatu; «gaiztoek eta xarrek ahatz-erazi, gezurtatu nahi [diete] Gazteen Lur irrikatua».

Gazteen Lurra beti. Zer da hori, Gazteen Lurra? Zeru modu bat, mitologia keltikoan.

Gizalekoreko izateak euskaldunen eta kelten folkloretan artikuluan, Irlandako **beansidheak** eta Galesko Enda Ederrekoak aipatu dizkigu Mirandek: gizagaindiko izaki maitagarriak, Euskal Herriko lamien paretsu. **Beansidheak**,

mundu honen bestaldean bizi dira. Bestalde horri izen hauek eman ohi zizkion Goidel hizkuntzak: Gazteen Herria, Poz zelaia, Agindu lurra... Itsasoan zegoen atsegin-herri hori itsaslariek ezin ikus zezaketen: iduripen batek atzipeturik, uhinak baizik ez zituzten haren lekuan ikusten.

Beraz, «Goidelen **beansidhea** gizagaindiko izate bat da: bestaldean bizi da, paganuen atse-baratzeko aingeru-antzean». Mirandek ipuin bat kontatzen digu:

«Behin Kondle Gorria, ehun Borroketako Kond-en semea, aitarekin zegoen Goi-Usnech-ean. Emakume bat ikusi zuen etortzen, ohi ez bezalako jantzitan.

—Nondik ator, emakume? —erran zuen.

—Bizidunen Lurretik horra nauk —erantzun zuen—, han ez baita ez Heriorik, ez hogenik, ez hutsik. Tai gabeko afariak egiten ditiagu, adelatu behar izan gabe; batzarre ederrak baditugu liskarrik gabekoak. Bake haundian geudek, horregatik **sidhe** deitzen gaituk [**Sid**: bake, irlandara zaharrean; **bean**: emakume].

—Norekin haiz mintzo? —Mutil Kondlek erranzion semeari.

—Emakumeak erantzun zuen: «Ari jatorreko emakume gazte eta eder batekin mintzo duk, behin ere hilen edo zahartuko ez dena. Maite diat Kondle Gorria! Dei egin dioat, Poz zelairat jin dadila, han baitago Boadag erregea betiereko jaun; nausi denez geroztik, haren herriak ez dik auhenik ez lorrik ezagutzen. Ator nirekin, Kondle Gorri, idun apain, argia bezain gorria... Nere deia onartzen baduk hire ederra ez duk zimelduko...»

Ikus dezakegunez, han ez heriotzik, ez hogenik eta ez hu-

tsik da. Afari ederrak egiten dituzte, adelatu behar gabe. Banean bizi dira beti, edertasuna ez da zimeltzen, etc. Han, eder eta ezta ez da iragankor. Munduaren haseran ez, baino azkenean dagoen paradisua. Itsasoan dago.

Plazetan erre zituzten sorgin aratzen arimak «Gazte Lurrean kontsolaturik daude» (**Sanguis Martyrum**).

Itsasoan Theresa ito dadinean, gizon gaiztoen ihesi, «haien munduaz bestaldean dagoen Gazteen Lurrera» joanen da, undina eta itsas-nesken artera. «Uraren oldarrak engoiti bazeraman hainbat gutiziatu zuen zabalerantz, Gazteen Lur hainbeste amestu hartaraino...»

Gazteen Lurra da beti Mirandek amets egiten duena, antsia izpiritualetan nahiz grina sensualetan:

Herri-minez, ezin-minez
erdiratzen zait bihotza
arrats luzetik goizera,
lo-gabeen.

Mirandek, arima, hil eta gero ere, biziko dela, espero du. Batez ere orduantxe biziko dela, beraren bizitza den bezala, arimaren egiazko bizitza, gorputzaren katibu egon gabe —beti ere «mundu honetan».

Heriotza, hortakoz, esperantza bat da. Zeru esperantza bat erabateko askatasun eta garbitasun esperantza. **Haur be-soetakoa**-n, gizonaren eta Theresaren heriotza ritual sakratu baten antzera jazoko da: «Seinale bezala, aspaldiko goizaldi hartan biek elkarrekin entzun zuten Schuberten sinfonia disko-inguratzailean iragan erazi zuen berriro; musika isildu zenean jaiki ziren biak elkarrekin eta, bata besteari eskutik helduta, kanpora joan ziren». Gero ondartzan konsumatuko da sakrifizioa, jainko itsasoaren aurrez-aurre, eta Theresak «ez zuen ez intzirina bat, ez hats-behera bakar bat ere itzurtzera utzi...».

Baina zihurtasun azkenekorik ez dago mundu honetan, Miranderentzat behintzat. Dudak urratuta bizi behar azken-azkenerraino. Zer ote da hil eta geroko bizitza hura? «Hil ondoren

ere elkarrekin izanen gara, ez da?»), galdetzen dio gizonari Theresak. Eta bat-batean ez daki —«neronek baneki!, pentsatzen du etsiturik, nik zorioneko horrek ene liburuetan eta ene eleetan ediren dunan zihurtasun hori neronek baneuka!». Eta orain «beraren zalantza, beraren ezagueraren muga» horiek larritzen dute.

Biak elkarrekin betikotz? Biak bat eginik betikotasunean? Batzuek hala diote, eta bestetuek bestela... izugarriena da neronek ez baitakit, zion bere baitan... Beharbada Theresak ba daki, ordea, adimen elkor alferren urguiluak ez baitio hari ber-jaiotzko ezagutza lausotu eta itzal erazi, eni zoritxarreko honi bezalaxe... Denborarik gehiago utzirik izan balitzait, dena ikasiko nuen atzera, haren arima erneak eni irakatsiz... baina beranduegi da, eta orain beldur naiz, ezin-gehiagoko beldurrez, ordua ba delakotz heldu gure bien batasuna zulo beltz batean agian ondatuko baita, gure bien izana eta izenarekin batean —betikotz. Berdin izugarria, edo areago, osorik itzaltzen ez bagara ere baldin bi iratxo bezala egotekoak bagara betikotasunean, elkarrengandik betiko berezirik edo, sordeis, gehiago ez jakinik elkarren berri... Baina bata bestea areago ez ezaguturik ere, bata bestearenganako irrika lauso bat, orduan ere inork ez ulertua, geldituko zaigu beti, ez da Theresa, ez da?... Baina oi! egia ba da bi iratxo berezi ere ez garela izanen, arima molekula barregarri bi baizik, bi arima-zati arimaz gabeturik geuri ez doakigun batasun alfer eta anker batean galduko direnak?... Ene jainko zaharren aldarreak zutik balira oraïndik ez nuke beldurrikan, aspaldion pozik joana nintzateke Theresarekin batean gaiztoek eta xarrek ahatz-erazi, gezurtatu nahi daukuten Gazteen Lur irrikatu hartara...

Miranderen gizonak «arima bien egiazko elkargoa» bilatzen dizu, «epedotusia anker» hartarainoko radikaltasunez bilatu.

Baina bi arimaren batasuna, mundu honetan, batasunik al da? «Ala gero izanen ote zen elkargoa hura, begitasun bat bakarrik edo gerorako gertabide bat izaki orain artean egin zuten guztia?». Eta gero ere, batasunik izanen ote da arimen artean, nortasunen batasunik? Ala ur tantak itsasoan bezala galduko dira Lehen Gogoan? Zer biziera izanen du arimak, datorren lekura itzultzen denean, Lehen Batasunera?

Zalantzak eta zalantzak azken orduan —«bide itzal, itzulterik gabeko hartan gaindi» joateko orduan. Eta fedearen oinarri nahia bait da, nahiak sendotuko du gizona bere esperantzaz, bildurraren, larriaren, ezjakinaren, zalantzaren kontra: «Malkoek ez ahal dute, ordea, ez-izatea ukatzen?»...

Ezina zen... ez ziezakeon ezerk, ez Oro zen Ezerk ez eta ezer-ezak ere, Theresa ken betikotz, jainko zaharren arnegatzaile ziren gizon eta emakumezkoek hori ezin lortu bazuten. Zer zen haren adimen ergel hori, zer ziren bihotza ausikitzen zioten duda ergelok?... Guztiaren azalpena izan behar zen nonbait, zorion guztizkoaren giltzekin batean Theresak eta elkarrekin edirenen zituztenak! Bestela deus ezin izan zitekeen, deus ez zen sekula izan: ez Theresarekikoak, ez haren horizaterik itsas-bazterreko herrialde zahar hortan, ez itsasorik, ez herririk, ez mundurik; inon, inoiz, inor, ezer ez zen izan... Malkoek ez ahal dute, ordea, ez-izatea ukatzen?» «Oi! Theresa», deiadar egin zion nigarrez zoraturik, «ez ezan kezkarik ukan batere, beti elkarrekin izanen gaitun bai biok, beti!».

Ausaz irakurlea esistentzialista kristau askotaz oroitu da pasarte irakurtzean... Haundia horixe, haundia! Paganismo hau azkenean finkatzen zuen filosofiak, hortakoz, ez zituen oso urruti San Paulo eta San Agustin...?

EMAKUME SALBATZAILEA

Mirande ez da Fausto bat. Don Juan bat, gutiago. Baina, nolatxobait, harian edo dago haiekin. Mito berbatetan.

Miranderen kontakizun gehienetan gizonak askatu eta ihes egin behar izaten dizu emakumeagandik: emakume «haragi mardul eta bero»-koagandik, batik-bat.

Baina, erromantikuengan emakumea gizon «kondenatuaren» salbatzaile agertu ohi zaigunez, Mirande baitan ere maitasun izpirituala, ametsetako «gizalaba baten musu pollit, ituna», gerta daiteke salbatzaile —hala **Ur bazterrean**, eta berdin **Haur Besoetakoa**-n, maitasun garbiaren «zorion hauskor, zentzuaz lekorekoa».

Erromantiku bat da. Andrazkoaren amodioz dator zorigaiztoko gizonaren salbabidea.

Wagneren **Itxasontzi fantosma** edo **Holandres iheslaria** (Der Fliegende Holländer) datorkigu gogora. Hauxe da ipuina: kapitain holandres bat, biraoka aritu izan delako, deabruaren esku gelditzen da, atsedean gabe itsasoetan gaindi ibiltzera beti kondenatuta, Mateo Txistu bezala, galerna eta ekaitz artean. Zazpi urtez behin deabruak lehorrera joaten uzten dio: betiko leial izan dakion emazterik aurki baleza, horrexek askatuko luke malefiziotik. (Dударик gabe, deabruak ez du emakumeen leialtasunean sinesten). Halako emazterik ez aurkitzen, ordea, eta kapitain gaisoa erremisio gabe itsasoz-itsaso dabil betiere guzian, sekula atsedenic ez hartzera kondenatuta. Portu aldi horietako batetan Senta ezagutzen du, kapitain alaba gaztea bera. Erik, neskaren maitaleak, eginahalak egiten ditu Sentaren eta kapitain madarikatuaren maitasuna eragozteko. Neskak, maitez, arkaitz batetatik behera amiltzen du bere burua itsasora, sakrifizio honekin kapitaina malefiziotik askatuaz. Itsasoaren gainean distiraz ospatzen dute biok beren glorifikazioa.

Itsasturu madarikatuak, esplikatzen digu gero Wagnerek berak, gizonaren antzina-antzinadaniko plugu bat, isuri eta min bat, erakusten digu: bizitzako ekaitzetan, burruketan etengabe

nahastuta dabilen gizonaren nostalgia etxera biltzeko. Odiseoren nostalgia inoiz etxean izateko, sutondoko bakean, emaztearekin. Judu herratuaren motiboa. Azken gabeko ibilira kondenuatu honek ez du beste itxaropenik eta pozik noizpait hiltzea baino. Ez izatea. Horixe luke bere salbazio bakarra. «Judu erranteari ukatzen bazaio, darrai Wagnerek, holandesak, halare, salbabide izan lezake: emazte bat, haren maitez sakrifika dadina; heriotzaren nostalgiak —gehiago ez izan nahiak— andre hori bilatzera bultzatzen du».

Salbazio antsiak, eta, beraz, bere buruaz beste egiteko eta ezerezean suntsitzeko irrikak, horixe bait litzateke alderrai mardarikatuaren salbazio bakarra, darama gizon geldigorra, ekurgaitza, emakume bila...

Miranderen gizonak, **Haur besoetakoa**-n, beste madarikazio bat dauka; galdurik ibiltzea, indeziso, keko-meko; eskeptiko ahul izatea, «bihotza etsipenez izozturik» egotea, zorteari abandonaturik bere burua; xede garbirik ez eta ez jomuga zehatzik ere, zer egin behar zuen jakiteko eta erabakitzeko. Ez daki nora jo eta salbatzaile bat behar du, gidari bat, bere asturúgaitzetik atera dezan, malefiziotik aska dezan.

Gizona beldur zen bai, beldur latzetan, harentzat egintza azkenean ametsaren senide izan zen mundu zahar honetatik alde egin beharrez. Otoi egin behar ote zuen? Zein jainkoari ordea?... Alferretan ez ahal ziren izanen balizkako jainkotasun bati zuzenduko zizkion otoi ez erdi sinetsiak?... Hobe zuen Zoriaren meneko utz zezan bere burua —zoriona ala zorigaiztoa zatekeenetz ez zekin, Theresaren gidaritzapean izanen zela baizik.

Urratsik urrats, gizonak ez du egiten patuari jarraitu besterik. Gurasoak hil zirenean, ordura arteko bizimodu alferra utzi eta etxera etorri zen. Etxean ez du aldakuntzarik egin izan nahi, dena lehen bezalaxe utzi du. Besteren esanera bizi da.

Zoriak ipini dio Theresa eskuetan. Umezurtza etxean hartu zuenean, ez zekien zergatik hartu zuen ere: «gizarteko eginbi-

dea» zelako, norbaitek hura hartu beharra zegoelako, inor gabe bait zen gelditu, errukiz —eta, orduan, ahaideek laudatu zuten, «elorri bat haragitik kentzen zien diruzale berekoi haiei». Baina gizonak ez zekien Theresa nolakoa zenik ere bestela. Gutxi asmatzen zuen orduan, Zoriak zekarkiola Theresa. Berak ez du ezer egin, Zoriak etxera sartu zioena etxean hartu baino: bere zoria eta zoriona.

Orain, «haren bihotz urduria herri-minez jotzen zuen zer-baiten sinboloa» zuela Theresa hori, susmatu arren, bildurrez dago oraindik, ez da bere zoriona eskuetan hartzera ausartzen. Ezta bazter uztera ere. Eta **sendagailuaren** amarrutxoaz eta vodka-aren laguntzaz baliatuko da, gizagaisoa, neskamearen ezkuta-ka, «poz haundiaren» instant batzu bederen gozatzeko... Batere ustekabean, Theresa hori oso-osorik entregatzen zaiola, konstata behar dezanean, dardaraz ikaratuko da eta boza ere ia galtzen du, lotsaz gorri-gorri, «haren gelatik lapur hatzeman batek bezala ihes egiteko asmotan». Baina berriz ere Zoriak esku-eskura ematen dio zoriona, bere arte eta ez parte gabe. Gertatu egiten zaio gizonari zorion bidea. Ez du berak egiten. Zoriak zapaltzen dioen bidean joan, besterik ez du egiten, beti ere joana baina eramanago. Eta zorioneko irriño eskerdun, dohatsu bat ezpainetaratzen zaio.

Gero, zoriona erruz gozatzeko, behar zuen Isabelari zaputz egin. Baina beti bildur zen, ikara eta lotsa zen, konpromisoak eta gezurtxoak eta tranpatxoak eginaz salbatu nahi luke berriz ere. Eta berriz ere Zoriak lagunduko dio, situazioa garbi-garbituaz. «Eskerrik aunitz, eskerrik aunitz ene balizkako jainkoari!, pentsatzen zuen gizonak... Azkenekotz, azkenekotz hark berak [Isabelak] ematen zizkion bere burua askatzeko zio bat eta bide bat».

Azkenekoz, erabaki haundia hartzeko orduan, beti ere bildur da eta nahiago du, bere situazioan akklaratu baino, Zoriaren meneko utzi bere burua.

Baina orain bai, badaki, gidari eta salbatzaile Theresa duela, Zoriak beti eskura eman dioena.

Theresa ez da propioki Senta, «emakume salbatzailea». Ume bat da. Baina hari-harian dago. Aldeak alde, nobelako gizonaren «emakume salbatzailea» Theresa da —emakume guziz piritualdua— eta hari jarraikiko zaio gizona, bere galdutasunetik salbatzeko.

Zihur-zihur zegoen neskatoa gaua erori baino lehen bata bestearekin egonen zirela, betikotz betikotasunerako, eragozpenik eta areriorik izanen ez zen atsedeneku loredun batean... Bai, agintzen zion [gizonak] bere bihotzari, azkenengo egun horretan, neguko irribarre bat zerakuskion uda-egun horretan, Theresa izanen zuela gidari, zihurtasun baten jabe zirudien ezkerro, lehen eta azken aldikotz —ala betikotz?— elkarrekin ibiliko ziren bide berrian gaindi.

Hemendik aurrera, itsu bat bezala, Theresak eskutik eramango du azken bururaino gizona:

...baina Theresa aurrera zoan lehena; eta beldurrik ez zuelakotz erakusten haurrak, ahalgez eta urguluz bihotza gainezka zedukan gizonak, atzetik zerraiolarik. Theresa orain gidari, bai... Haren nahi gurena egin zedila!

Plaia hartako gunerik baztertuen, ezkutatuena, itsaso zabalari hurbilenera iritxi zirenean ere, haurrak zituen lehenik udako jantzi arinak kendu; eta gorputz zuria biluzik erakutsi zionean, bere ahultasunean hain hukigarria, bere ahaltasunean hain jauretsia, gizonak areago ez zekien etsipenez negar-garraisika hasi, ala zorionaren onaz belaunikatu eta Izatea benedikatu behar zuenetz... Baina Theresa haiduru zen —orain, lehengo aldikotz beharbada, den mendren lotsarik gabe haren soari eta haren irrirsari eskainirik izanaz... Theresa haiduru zen, begi nabarrak samurtasunez beteak hari buruz jasorik.

Sakrifizio bitartean, «bere irribarre gozo lilluratua gorde zuen» Theresak. Itsasoak konplitzen du purifikazioa: «uhinek bertan garbitu zituzten bekatu guztietatik». Gero:

Alegintzen zen haurra joatera ez uztekoz..., baina haurrak zabalerantz ba zeraman, geroago eta urrutira-go... Noraino joan beharko ote zuten, eta noiz arte-raino?... Nekaduraren haundiegiaz nahi-eta-nahi-ez haren besoak itzurtzera utzi zuenean, undina bat be-zala abiatu zen Theresa, olatuen oldarrak eramana, itsas-beteari buruz... Eta denbora apur batean itsasoak atxiki zuen bere gainean, ur-lili zuri zabaldu bat izan bailitzakeen. Gizonari so egiten zion, hain urrundik jadanik! eta haren begitarteak beldur-antzik ez zeka-rren... Haurra begira zitzaiola, haren alderantz lehia-tzen zen iherika...

Olatu haundiek atzera egin zuten, eta neskatoa be-rriz ere agertu zen itsasoaren azalean; oraindik begira-tzen zion aita besoetakoari irribarre batekin...

Theresak darama, Theresari darraika, gizona. Berriz ere bil-durrak menderatuko du. Badirudi, halare, azkeneko momentuan Mirande bere gizonaz kupitu dela, edo eta, azken une hari signifkazio berezia eman nahi izan dioela: behin, bederen, au-ker a eman dio bere borondatezko zerbait haundi egiteko, beti patuak itsuki eramanda ibili gabe. Gizonaren heriotzak libre eta bere borondatezko izan behar du...

Ito da Theresa: «uraren oldarrak engoiti ba zeraman hainbat gutziziatu zuen zabalerantz, Gazteen Lur hainbeste amestu har-taraino». Gizona, aldiz, xalupek salbatu dute.

Hor dago, orain, gizona, berriz etxean, bakar-bakarrik, ha-sieran bezalaxe, baina gizon berri orain, eta hor dago «begi-tartea eskuekin estalirik, soa tapaturik arimaren begiak zabal zekizkiontzat». Gaua da, errebelazio haundien ordua. Nobela hasierako zuhaitz ilun urkabeak orain «zuhaitz anaiak» dira; ezti-ezti du orain Izadiak erosta...

Oi, Theresa, ziotsan, jadanik hire deia badantzut...
otoi, esaidan badakinala hire ondotikan natorrela, ez
haudala utzi!

Bildurrak eta zalantzak tormentatzen zutena, dudak paralizatzen zuena, orain, beste Kondle Gorri bat, Theresaren deiari jarraiki doa, deliberatuki orain, bipil, seguru, bizi-bizi («ez dabila hire botza hain hozen izan, jendeek entzunen dinete bestela»), jadanik badaki «nola [Theresa] haren begira zegoen orain Sartaldeko ur-jauregi irrikatuetan, beti haur, beti urre, beti elur izanen zen printzesa bat, loreen eta kristalezko abardun sagar-ondoan artean...» Gizonaren azken orduok libertate irabaziaren garaitzape orduak izango dira («inola ez zezakeen egun hartan bere askatasuna gal!»). Jende zoro, ergelak, erdeinatuz joango da orain hiriko kaleetan gaindi, zut eta lerden, gizandi gisa, edo, hobeki, gizagaindiko heroi garaipentsu bezala. Garaitzarre haundi, azkenean. Salbazioa. Theresak ekarri duena.

BUKATZEN EZ DEN BUKAERA BAT

Haur besoetakoa-n franko ageriki eta oso samar azaltzen zaigu Miranderen pentsamentua. Beraz, garaitzape nobelarik ezin izan daiteke, azkenean garaitzapea eduki arren, ezin daitekeelako —Miranderena izaki— tesi erabakien eta problema soluzionatuen eta konponduen nobela izan.

Beraz, eskaintzen du salbazio bat, baina ez da salbazio nobelarik. Mezurik badu, baina mezu nobelarik ez da.

Eta, beraz, bukatzen da, baina egiazko bukaerarik ez du, iragapidea baino; transizio bat.

Nobelaren hasieran gizon bat dago, etsiturik eta gogoetatzen, bakartadean, uharte dohatsuak ametsetan —amets alferretan; zintzoen eta zuzenen ankerkeria sofrizten du eta gorrotatzen du, vodkatan anparatzen da. Iluntza da. Nobelaren azkenean, berriz ere, iluntza da. Itsasoko ur berdea iluntzen ari zen. Etsiturik eta gogoetatzen, bakartadean, ametsetan —amets

alfer— beste gizon bat gelditzen: misterioa ikasteko duin izan den bakarra, pintorea. «Ez zuen lagunik, ez zuen gerorik —amets bat baizik ez, gerorako laguntzat, eta amets alferra... Zer egin behar zuen?»». Eta berriro ere ez daki gizonak, zer egin behar duen. Hasieran bukatu dugu. Berriro hasi gara.

Eta hitzok bukatzen dizute nobela:

Inolaz ere ezin sar zitekeen gaur bere etsean, bere etseko jende zintzo eta zuzenen artean! Paseianteen ajolarik gabe negarrez ari zela, karrikako lehengo ostatuan sartu zen, bere amets etsigarria alkoholean itozeko.